



jose mari pastor

**AZKEN  
METROA**

 BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOSE MARI PASTOR

# azken metroa

Artikuluak

Hitzaurrea:  
Andoni Arenaza

Artikulu hauek **Berria** egunkariak argitaratu zituen, eta berplazaratzeko baimena biziki eskertu nahio dio Booktegik.

## AURKIBIDEA

Minaretetik beha, begi zorrotzez ...

Juliarekin txateatzen

1984

Morgan Freeman paseatzen

Tatuajeak

'F... you'

Bederatzi mila arrazoi

Prandelliren sekretua

Laudrupen zergak

Zipaio bat Ajuria Enean

«Exiliatuen» meloia

Vinicius Ipaneman

Zapotecak

Joanen hitz bakarra

Arnaldoren liburua

Oprah Alderdi Egunean

Inkestak

Cuenca espainiartzen

Emmanuelle

Barcinaren aitona

Obama zuria balitz

Patuak

Londres, 1812

Merezitako tiroak

Enkantea Parisen

Messi, zubi

'Tofu' eta 'fufu'

Eguzkia Mongolian

'Geisterfahrer'

'Torap doktrina'

'Yogurin' bidaiak

Selma, Beyonce eta Denzel

Burusoilen kalea

Gillotina

Anaïs, Anaïs

Portugal, Kuba eta...

Yolanda

Ahaztuen komandantea

Stasi Zarautzen

'Malaka'

'Elanchove'

Zirkunzisiao

Sarita Azkoitian

Bakean herdoil bedi

Erregimenak eta kazetariak

Ama kamisetan

Nazilandia

Ricardoren gerra

Komuneko papera

Gere eta Isabella

Gosaria diamanteekin

Azken metroa

Larunbat arratsaldea

'Terroristaren' apologia

## Minaretetik beha, begi zorrotzez ...

Hainbat lurralde ikus daitezke Jose Mari Pastorrek eraikitako minaretetik ...

Literatura eta zinemaren lurraldeak, esaterako. Anthony Burgessekin egingo dugu topo, eta haren ipuin ilunarekin, are ilunago zen XIX. mende hasierako Londres hartan kokatua; Philip Roth-ek, zirkunzisia aitzakia hartuta, “normala” denaz, guretzat jakina!, gogoeta egitera gonbidatuko gaitu; *Gran Torino* filmeko Clint Eastwood zaharrarekin ere elkartuko gara, Ogasuna guztiok garela (ene bada, hala balitz ... ) gogoratuko diguna; *The Passage* filmean agertzen zaigun harrizko euskal artzain hark ere egingo digu bisita, Anthony Quinn-ek gorpuztua, euskaldun erdi-basati, hitz gutxiko baina kausa nobleengatik arriskatzeko prest dagoen estereotipo peto-petoa bihurtuta; eta Sylvia Kristel-ekin ere izango dugu zita, aspaldiko partez, Serantes zinemako arratsalde haietan bixi-bixi sentitutakoak gogora ekarrita ...

Memoriaren eta kontakizunaren lurralde malkartsu zein arriskutsuak (batzuentzat, behintzat) ere ikusten dira minaretetik. Beltzak eta zuriak, demokratik eta biolentoak, onak eta gaiztoak, gehiegikeriak edo zehar-kalteak eta hilketak, benetako sufrimendua eta nolabaiteko sufrimendua ... Jose Marik komunikabide handietan agertu bezain laster desagertu zirenak gogoratu nahi dizkigu, kontakizuna benetakoa eta osoa izan dadin, eta, esaterako, Yolandaz gogoratzeko egiten digu gonbitea, sufrimenduaren monopolioa bahitu dutenek bazter utzitako beste bat. Oscar Wildek *The Importance of Being Earnest* idatzi zuen; espainiar demokrazian Hellin abizena izatearen garrantziaz gogoeta egiteko aukera izango dugu. (Hitzaurrea idazten ari nintzela, Billy el Niño torturaztailearen heriotzaren berri eman dute: frankismoan zein frankismoaren ondorengo urteetan makina bat herritar basatiki torturatu zituena. Ohean hil da, jasotako domina guztiak soinean, egindako zerbitzuengatik jasotako soldata gehigarria azken euroraino kobratuta eta, jakina, epaitua izan gabe. Eta kasu bakarra izan balitz ... ) Hausnarketak eta galderak planteatzen dizkigu kazetari santurtziarrak, gorago esan dugun bezala, lurralde hau oso arriskutsua izan daitekeelako eta, jakina!, denok ez baikara Mandela, auzi malkartsu hauetaz argi eta garbi hitz egiteko.

Ezkerraldeko “muezzin” agnostikoak, bere minaretetik, beste hainbeste kontu aurkezten dizkigu, bere ikuspuntua emanez, noski, denok gure betaurreko berezietz ikusten baitugu munduaren kolorea. Halako batean, arropa zirtziladun emakume duin bezain pobrea agertuko

zaigu Aljerreko kaleetan, zurrumurru arrazisten kontrako antidoto galanta. Beste emakume batek, Eugiko etxeko andre batek, euskaldun egiten gaituenaz ikasgai labur bezain zehatza emango digu, bere aitona gogoan. Gizon batzuk ere agertuko zaizkigu, Hugo Chavez zena, esaterako, badakizue: indio populista, barregarri (are gehiago txandal koloretsu horiek janzten zituenean) eta diktadore hori, mendebaldeko demokrazia orbangabeak anitzetan egurtu eta mesprextatua; Herr Pastorrek, beste betaurreko batzuk jantzita, hain mendebaldetar eta zuria (zentzu bikoitzean) ez den begirada ezberdin batez Chavez ikustera animatzen gaitu. Eta, Hego Amerikatik irten gabe, *Garota de Ipanema* kantua sortu zuen Vinicius de Moraes poeta eta musikaria agertuko zaigu, makina bat aldiz inarrosi nauen sentsazioari hitzak jartzeko: “Ni ez naiz heriotzaren beldur; nik bizitzaren nostalgia daukat”.

Eta azkenik, besteak beste, minaretetik atzera ere begira dezakegu, behinolako Ezkerralde hari begira: Labe Garaiak, Babcock Wilcox, Euskalduna, gure arrantza-portua (garai hartan Santurtzi bazen norbait euskal arrantzaren barruan), kutsadura (Josu Murueta eta Antón Fernández erandiotarrak, arnasa hartzeko eskubidea aldarrikatzeagatik, 1969an poliziak hilak), grebak, manifestazioak (artean klase borrokaz konplexurik gabe hitz egiten zen) ... Goizeko seietako txandan sartzen ziren langile asko lantegien ondoko tabernetan elkartzen ziren, egun gogorrari aurre egiteko lehen pattarraz eta tabernako bideoan ematen ziren pelikula pornoen marruez beroturik (Zarama talde santurtziarrak Kazaiak kopa ta porno gogorra kantua giro horren eraginez plazaratu zuen) ... Klase- eta nazio-kontzientzia bateratzen lurralde berezia izan zen gurea, hemengoak eta hangoak, hemengoan seme-alabak eta hangoenak arrago hartan bildurik, eta horretan Benitok, Itoitzek edota Errobik liluratu gintuzten, baita Pablok eta Silviok ere ... Ezkerralde hark egin gintuen, neurri handi batean garena, eta inor gutxi Bizkaiak sakona kontsideratuko duen arren, superfiziala izatetik oso, oso urruti zegoen.

Igo zaitezte minaretera eta begiratu patxadaz handik ikusten den guztia, Calvo Sotelo kalean bizi zen Jose Mari Pastorren minaretetik. Bide batez esanda, ni General Mola kalean bizi nintzen ...

Andoni Arenaza



## Juliarekin txateatzen

2012ko maiatzak 19

Edozer egingo nuke zurekin oheratzearen truke». Rubem Fonsecaren ipuin bateko protagonistak paperezko mezu anonimoak idazten dizkio emakume gazte bati. Neskak ideiarik ez, nor izango ote den ezkutuan desiratzen duen pertsona. Etxebizitza horietako zaindariari azaldu dio kontua. Gizon zaharra da hura, itxuraz batere arriskutsua ez dena. Gainera, mihi gaiztoen arabera, gerran tiro bat jaso zuen hankartean...

Brasilgo unibertso sentsualean girotutako istorioko pertsonaia sare sozialak eta teknologia berriak garatuta ez zeuden aroko gizona dugu, Paleolitokoa. Giza komunikazio arruntenaz baliatzen da bere desioen berri emateko. iPhone batekin zailagoa izango litzateke ustezko koldarkeria horretaz jokatzeko. Ustezko, zeren ikusteko dago noraino dauden anonimotasuna eta koldarkeria lotuta, eta noraino ez. Izan ere, bada anonimotasunik gabeko koldarkeria ekintzarik. Zer da, bestela, bikotekideari SMS baten bidez ematea erlazioa amaitzeko erabakiaren berri, begiei begiratu gabe?

Teknologia berriek komunikatzeko aukera ugari eskaintzen dituzte. Maitasun harremanak lantzeko, baita gorroto haziak ereiteko ere. Askatasun handiagoa duzu komunikatzeko, baina kontrol soziala eta bikotearen barrukoa ere lehen baino zorrotzagoak dira —lanire Estebanez psikologoak azaldu du egunkari honetan atzo argitaratutako elkarrizketan—. Komunikazioaren mundua zitzu bizian garatzen ari da. Gazteak eskuko telefonoarekin ikusten dituzu gora eta behera, eta behinolako garaiak etortzen zaizkizu gogora. Etxeko telefono mugiezinararen iragazkia —hori ere kontrola zen—. Institutuko gelakideari gaueko bederatzi eta erdietan deitu zenion etxera. Afaltzen egongo zen, eta bazenekien amak hartuko zuela telefonoa, bai, amak %150ean. Ama alaba zaintzen, betiko legez. Baina zer arraio, egin beharrekoa egin behar zenuen, kabina hotz ilunean dar-dar, gaueko sentimenduen kontrabandista.

Orain errazagoa da dena, baina telefono dei edo mezu baten hotsak edonor traiziona dezake. Gaur, edonork du aukera alboan lo egiten duenaren telefonoa hartzeko bere zalantzak argitzeko. Orain, teknologia eta sare sozialekin, eremu zabal emankorra da komunikazioa.

Istorio gozoak bizitzen dituzu, baita bestelakoak ere: mezu hiper hot bat idatzi diozu rollito bati, baina, Neolitoko gizona zarenez, ez duzu telefono berri modernoa menperatzen. Eta, ohartu gabe, okerreko aplikazioa aukeratu eta mezua azkeneko deia egin dizun lankideari bidali diozu —emakumezkoa da, gainera—.

Neska batek bere messengerreko helbidea eman dizu, txateatzeko. Bigarren saioan zeure buruari galdetu diozu zer egiten ari zaren helbide elektronikoa julia\_roberts1...@hotmail.com duen neska batekin; zer pentsatuko zuen berak zure helbidea eskatu, eta zuk george\_clooney1...@hotmail.com eman bazenio. Ba, horixe, baboa zarela, gizajo galanta. Eta zuk zergatik ez duzu hori pentsatu behar Hollywoodeko hanka luzeenak inbidiatzen dituen neska bati buruz, ba. Julia Roberts hori ez da benetako Julia Robertsen modukoa, Yetiren alaba ere ez, baina horrek berdin dizu. Kontaktuen zerrendatik ezabatu duzu, ergelkeria iruditzen zaizulako bere burua Julia Robertsen moduan aurkezten duen neska batekin berba egitea.

Eta duela urte asko zenuen freskuraz gomutatu zara. Zure herriko neskatxa maite bati bihotzaren zati handiena eskaini zenion eguna. Eguerdian, ausardiaz, alkoholik gabe. «Ez dakit konturatu zaren, baina ez zaizkit mutilak gustatzen». Hara, mutilak gustatu ez, eta zu ordura arte konturatu ez, papao hori! Eta zure erantzuna, erreflexu biziekin: «Ba, ez dut uste, baina deskuiduan gustua aldatzen baduzu, jarri nire izena zeure zerrendan». Eta urrundu egin zinen, bihotza behera baina burua gora, zeure zortea madarikatzen, baina puztuta, egin beharrekoa eginda. Orain, neska-lagunarekin bizi da, Espainia aldean. Zoriontsua da, itxuraz. The End.

1984

2012ko maiatzak 26

Brian de Palmaren Body Double filmean aktore pornoa da Melanie Griffith. Zuzendari batek pelikula bat filmatzeko esan dio, baina hark baldintzak jarri ditu: «Ez dut ezer egiten animaliekin; ez zait sado-masoa gustatzen, eta uko egiten diot tortola depilatzeari». Filma aste honetan eman dute telebistan. Quim Monzok duela ez asko idatzitakoa berretsi du Griffithen eskaerak: gorputzeko alde hori depilatzea estetika pornoaren ezaugarria dela —ileak ikuskizuna oztopatzen du...—; pornoaren itzalak herritar guztiei eragiten digula, baita kastuenei ere.

To depilate or not to depilate, that is the question. Gaur bizi balitz, Hamlet gazteak ez lioke halakorik galdetuko bere buruari, Ofeliarekin egon baino lehen. Gilletemakina hartu eta aurrera. Behekoa depilatzea oraingo joera da. Duela 30 urte, ordea, ez zen ohikoena. Goikoa ere orain baino iletsuagoa zen. Biboteak eta bizarrak zeuden nonahi: bazen bizar bizkaitarra; bazen bizar nafarra; bazen bibote gipuzkoarra eta, horren barruan, azpitaldeak: bibote donostiarra eta Urola aldeko bibotea, esaterako. Frantziak administratutako Euskal Herrian sarriago mozten zuten bizarra gizonezkoek. Bestalde, baziren faxista kutsuko bibote finak eta bibote zakarragoak, gizontasun (?) ikurra zirenak. Eta guardia zibilen biboteak, noski.

Orain gure errepideetan kontrolak jartzen dituzten guardia zibil gazteek, ordea, ez dute biboterik. Depilatuta daude, eta, uniforme barik, gimnasiotik ateratzen den edozein herritar izan litezke, Desigual edo Custo sudaderak jantzita. Egungo guardia zibilak metrosexualak dira, baina haien funtzioa lehen bezain kilometrosexuala da: hemen barrabilak nork dituen erakustea, argi ikus dezagun nork agintzen duen.

Kontrol horietaz kexatu da Maria Eugenia Arrizabalaga EAJko legebiltzarkidea, Deia egunkarian asteon argitaratutako iritzi artikuluan. Jeltzalearen arabera, ETAk borroka armatua utzi arren, Guardia Zibilak kontrolak jartzen segitzen du. Horrek Gernikako Estatutua urratzen du, lege organikoak asko mugatzen baitu berdeenzeragina. Eguneroko jardunean ez dago mugarik, baina. Autoan apur bat mugitzen dena erraz konturatzen da: asteartean bertan kontrol bat

zegoen, A-8 autopistako irteera batetik ez oso urrun. Duela hilabete eskas, EHUko atean zeuden txapelokerrak, Leioan, ikasleak kontrolatzen. Arrizabalagak dioenez, guardia zibilek operazio horien berri eman beharko liokete Ertzaintzari. Areago: baimena eskatu beharko liokete. Guardia Zibilak Ertzaintzari baimena eskatu kontrol bat jartzeko? Hala behar luke, teoriarik. EAJko politikariaren ustez, Ares jaunak ez du Ertzaintzaren funtzio integrala defendatzen. Ea, ba, Iñigo Urkullu EAEko lehendakaria bada, Ertzaintza bidaltzen duten Ibarruriko aldapako kontrolera, Gernikako Estatutuaren ale bat eskuan, Benemerita-ri mugak erakusteko. Seguru guardia zibilak ikaratuta daudela hori pentsatu hutsarekin.

Azken asteetan ETaren historia errepetatu du Espainiako telebistak, Crónicassaioan. Jose Antonio Saenz de Santamaria jenerala (1919-2003) azaldu da bertan, hura ere depilatu gabe, mortsa bibotearekin. 80ko urteetan terrorismoaren kontrako borrokako buru aukeratu zuten Saenz de Santamaria. Hona haren hitzak: «Nire zailtasun handiena hauxe zen orduan: ia militarri jardutea, baina operazio militar baten itxura eman gabe».

Egun ere berdin segitzen dute guardia zibilek. Militarri jarduten dute, baina saiatu egiten dira okupazio militar baten itxura ez ematen. Mamia ez da asko aldatu; azala, bai. Orain gure antzera ibiltzen dira guardia zibilak: depilatuta. Euskal Herrian ZEN plana indarrean zegoen garaian, berriz, desberdina zen —oharra irakurle gazteenei: ZEN horrek ez zuen zer ikusirik budismoarekin; pikolomonjeek beste era bateko meditazioa eskaintzen zuten euren monasterioetako egonaldietan—. Orduan ilea zen nagusi. Brian de Palmaren pelikula 1984. urtekoa da. Aktore pornoek izan ezik, nork depilatzen zuen tortola —edo barrabilak—1984an?

## 'Cafe Extra Ball'

2012ko ekainak 2

Duela bi egun 250.000 euro aberatsago esnatu zen. Kutxara joan zenean konturatu zen. Baten bat erratu zen, eta dirutza hori sartu zion kontu korrontean. Emakumeak ez daki dirua norena den, transferentzian ez baita izenik agertzen. Aholkua eskatu die programako entzuleei. Zalantzak ditu, dirua nola itzuli. Izena eta telefono zenbakia eman ditu. Berari deitzeko esan du, inork hutsegite horretaz zer bait badaki.

Dirua bueltatu ala ez. Nork ez du antzeko zalantzarik izan, kasua hipotesi bat izanda ere? Inoiz itzuliko ez garen hiri bateko supermerkatu edo denda batean 50 euro gehiago bueltatu dizkigute. Zer egin? Berdin jokatu genuke hutsaz supermerkatuko atean ohartuko bagina, edo handik 100 metro edo 100 kilometrora? Ez beti. Azaleko justifikazioak arrazoi moralei nagusitzen zaizkie sarri. Hori 50 euroekin egiteko tentazioa badugu, zer ez zaigu pasako burutik ezustean milioi laurden bat euro jasotzen badugu.

Entzuleek dirua bueltatzeko esan diote; Poliziari eman behar diola erantzun dio hizlariak. Aditu batek deitu du. Emakumeak deklarazio bat egin beharko du epaitegian, argi gera dadin diru hori hor dagoela, eta polizien eskuetan utzi duela. Horretarako abokatu baten zerbitzuak kontratatu beharko ditu eta berak ordaindu, ekintza ezezagun baten edo estatuaren mesederako izan arren —dirua inork erreklamatzeko ez badu—. Emakumeari ez zaio justua iruditzen abokatuari berak ordaintzea. Ez da justua, baina logikoa da, erantzun diote. Eta diru horren benetako jabea agertuko balitz, zenbateko saritxoaz konformatuko zinateke? Dirutza horren % 1 eman ez gero, ondo? Bai, horixe, 2.500 euro beti etortzen dira ondo.

Zintzotasuna galdutako arte guztietan onena dela esan zuen Mark Twainek. Zuk inoiz ez duzu halako dirutzarik aurkitu, baina dirua galdu duzunean, beti itzuli dizute. Hutsegite handiena milioi laurden bat euroko emakumea bizi den hiri berean egin zenuen. Abendua. Elurra. Ostiral gaua, hitzordua kafetegian. Deutsche Welle-ren musika airean. Handik hotelera. Igande goiza arte ez zinen konturatu eskuko poltsa falta zitzaizula. Barruan pasaporte, hegazkin txartela eta ... 500 bat marko, hau da, ia 40.000 pezeta. 240 euro, eurorik ez zegoen garaian. Astelehen

goizean itzuli behar zenuen Euskal Herrira, eta agiriak eta dirua galdua. Korrika batean itzuli zineten kafetegira eta hango zerbitzariari galdetu. Irribarre egin zuen: «Zuek joan eta berehala konturatu zen zuen mahaiaren ondoan zegoen beste bikote bat». Hogeita gutxi urteko neska eta mutila ziren, ilehoriak. Artean gogoratzen zinen. Neskak eraman zion dirua zerbitzariari. Zintzotasunaren artista. Nahi izanez gero, zer ez zuten egingo turista ezezagun batek galdutako diruarekin? «Hau Erroman gertatu balitzaizu, ez zizuten itzuliko, ez bikoteak, ez zerbitzariak», esan zizun lagun alemaniarrek, txantxetan. Barre egin zenuten. Zeinen lapurrak diren italiarrak, bai. Eta gu, zeinen zintzoak.

Baina hurrengo hanka-sartzea ez zitzaizun Erroman gertatu, leku askoz pobreago batean baizik: Aljerren. Eta han ere Munichen bezain zintzo jokatu zuten. Bankutik irten zara. Atzeko poltsikoan 20.000 pezeta, dinarretan. Handik bost minutura, Boulevard de la Republique-n barrena zoazela, oihuak entzun dituzu zeure atzean. Itzuli, eta emakume bat: aurpegi zaharra, arropa zirtzila, baina begirada bizia eta planta duina. Eskuan bilete mordoa du. Alboan, gizon batek: «Esan du hau zurea dela, dirua ez botatzeko». Eskua atzeko patrikara eraman duzu. Hutsik dago. Bileteak lurrera erori zaizkizu, eta emakumea atzetik etorri zaizu bueltatzera. Zintzotasunaren artista. Nahi izanez gero, zer ez zuen egingo andre horrek kazetari ezezagun batek galdutako diruarekin? Saritxoa eman nahi izan diozu zintzo jokatu izanagatik, eta bilete batzuk luzatu dizkiozu. Ozenago egin du oihu eta eskuak altxatu ditu, zu jotzeko keinuak eginez. «Ez du zure dirurik nahi. Alde egiteko».

# Morgan Freeman paseatzen

2012ko ekainak 9

Maiordomoa Txinan. Horixe izan liteke etorkizuneko lan desiragarriena. Enplegu bulegoetan dugun panorama eta, batez ere, lan baldintzak ikusita, ez da erabat baztertzeko aukera. Kontuak atera: Txinako aberats berriekin urtean 125.000 euro baino gehiago irabaz dezake maiordomo batek. Horretaz gain, ostatua doan du etxe dotoreenetako batean, eta munduko bazter guztietara joan daiteke hegazkin pribatuan. Haiekin 10-15 urte lan, eta erretiroa, 67 urte izan arte itxaron gabe.

Aberats berriekin? Klasea, kategoria, ez da erosten, esango du batek baino gehiagok, kexuka. Bai, hala da. Hango zure jaunak goizeko lauretan esnatuko zaitu, Kentucky Fried Chickeneko Zinger Burger bat nahi duelako —benetan gertatua da—. Eta baietz esan behar. Dena den, zer egiten duzu hemengo zure jabeak ostiralean esaten dizunean «komenigarria» dela larunbatean lantokira joatea enkargu batzuk bukatzeko? Zer sentitzen duzu ezetz esateko kemenik ez duzunean, datorren hilean Lanbideko ilaran egon nahi ez duzulako, eta biharamunean txurriarekin egoteari uko egin behar diozunean? Behin zeure burua prostituitzen hasita, hobe marmolezko jauregietako urrezko ohantzetan, herdoildutako eraikinetako koltxoi lohietan baino. Erosotasunagatik bestegatik ez bada ere.

Robert Wennekese, Nazioarteko Maiordomo Akademiako buruak, South China Morning Post egunkariari adierazi dionez, maiordomo trebakuntza ez da merkea, baina merezi du: 14.000 euro balio du ikastaroak, eta bi hilabeteetan prest zaude. Eta garrantzitsuena: lana duzu. Irtenbide hobe askorik ba al dute gure unibertsitateetan lau urte edo gehiago ematen dituzten gazteek?

Nazioarteko Maiordomo Akademia —The International Butler Academy du izen ofiziala— Herbehereetako hegoaldean dago, Kasteel Oost herrian, Maastricht hiritik gertu. Hong Kongeko egunkariaren arabera, gero eta maiordomo gehiago behar dituzte Txinan, eta eskola horretako ikasle asko bertara doaz lanera. Asiako herrialdeko eskaera eskaintza baino

handiagoa da. 2015. urtean bikoiztu egingo da. Aurreikuspenen arabera, 2,8 milioi aberatsek eskatuko dituzte maiordomo baten zerbitzuak.

Jabeak prestigio sozial handiena izateko, Europakoa izan behar du morroiak. Garai batean, ukitu chic bat ematen zuen gure kontinenteko etxe aberatsenetan kolonietako zerbitzariak izateak. Antzera gertatzen da orain Txinan. Haiek ere kolonietako maiordomoak nahi dituzte: europarrak. Mendebaldeak kolonialismo kulturala bultzatu du munduan barrena. Txina komunista, aldiz, finantza kolonialismoa ezartzen ari da kapitalismoaren bihotzean — AEBetako bonuen lehen eroslea da — eta merkatu ekonomia nahierara baldintzatzen.

Maiordomo zuriak izatea botere ekonomikoaren sinboloa da Txinan. Txinatar bat txinatarren zerbitzari? Hori edonork lor dezake; ez dauka meriturik. Anglosaxoi zuri bat bere apeten aginduetara makurrarazteak, ordea, bestelako sentzazioa eragiten dio zurien menpe egon denari. Human nature, zer egingo diogu ba.

Londresen jatorri nigeriarreko lankide bat nuen. Urtebetetze egunean, cab bat alokatu zuen, hiriburuko taxi beltz horietako bat, gidari eta guzti, lagunekin gora eta behera joateko. Lagun guztiak beltzak ziren. Taxilaria, zuria; ingeles peto-petoa. «Gu jatetxean, pubean edo diskotekan gaudenean kanpoan geratu behar du, taxiaren barruan beti, gure zain», azaldu zidan. Astebeteko soldata osoa xahutu zuen egun hartako ospakizunetan, baina berdin zion. Hura poza, rolak aldatuta: Mister Daisy Morgan paseatzen.

Robert Wennekesez egunkari txinatarrari azaldu dionez, maiordomo lanak badu arriskurik ere. Haren ikasleetako batek kontatu zion behin ezustean aurkitu zuela sukaldean etxearen jabea, celebrity bat. Amorantearekin zegoen faenaren erdian. Andreak haiekin bat egiteko esan zion. «Ezetz erantzun zuen. Gertatutakoa ahazteko esan nion, inori ez kontatzeko. Eta lasai hausnartzeko etxe horretan segitu nahi ote zuen lanean».



# Tatuajeak

2012ko ekainak 16

Chetan eta Sarju hiru ezaugarrik lotzen dituzte: lehengusuak dira; 17 urte dituzte, eta Indian lanean esplotatutako umeak izan dira. Indiako 1.200 milioi biztanleen %40 dira 18 urtez beherako umeak. 35 milioi haur ari dira lanean bertan, egunero 8-12 orduko txandetan, nekazaritzan edo lantegietan. The New York Times egunkariak argitaratutako erreportaje batean agerienez, horien artean daude Chetan eta Sarju.

Haurren Lanaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen asteartean. OIT Lanaren Nazioarteko Erakundeak duela 10 urte aukeratu zuen ekainaren 12a, munduan lan egiten duten adingabeen egoera salatzeko. Jarduera horren aurkako kontzientziazioa hedatzea, estatu bakoitzak dituen lege eta araudiak aldatzea ez da erraz lortuko. Esplotazio horren sustraietara joan beharko litzateke, oinarri sozioekonomikoak irauli. Jarduera hori onartzen duten estatuek argudiatzen dute halako lana behar dela hazkundeari eusteko, beste irtenbiderik ez dagoela. Eta ezikusia egiten dute, sarritan umeak langileak ez ezik esklaboak ere badiren arren.

Hemen saltzen dizkiguten produktu asko eta asko haurren eskubideak errespetatzen ez diren herrialdeetan eginak dira. Apenas dugun aukerarik kontra egiteko. Arropa Europan diseinatzen da, baina Asian ekoizten dute. Diseinu europarra dugu; materiala eta langileak, oster, asiarrak. Hitz potoloetatik haratago, arazoa konpontzeak ez du lehentasunik. Ekainaren 12an hedabideei begiratu besterik ez dago. Zenbat manifestazio egin ziren asteartean munduan barrena, haurren lanaren aurkako egunaren harira? Eta Euskal Herrian? Ume langileak hor daude, eta, egoera benetan aldatu ezean, hor segituko dute luzaz.

Chetan eta Sarju gazteek itxurazko markako arropa koloretsuak janzten dituzte, merkeak baina Indian total fashion direnak. Alde horretatik, traza berekoak dira. Gauza batek bereizten ditu bi lehengusuak, baina: Chetani tatuajerik ez egiteko eskatu zion amak, eta hark agindu zuen ez zuela gorputza tatuatuko. Sarjuk, aldiz, ez zuen halako promesik egin etxean.

Tatuajeek hesi sozial guztiak hautsi dituzte egun. Leku guztietan daude, edozeinen azalean.

Berdin dio Mumbaiiko Jogeshwari suburbioan —bertakoak dira bi mutilak— edo Londresko Chelsea auzo pijoan. Tatuajeak hedatu egin dira, baina lehen zuten konnotazioa galdu dute. Larruan marrazkia zuen pertsonaren inguruko misterioa desagertu egin da. Tatuajea sozializatu egin da, baina balioa galdu du.

Lehen, pedigria behar zen tatuaje bat egiteko. Legearen beste aldean edo legearen ertzean ibiltzen zen jendearen ezaugarria zen tatuajea: piratak, abenturazaleak, presoak, marinela, prostituta... Lehen, tatuajea zuena estigmatizatuta zegoen. Carné edo Duvivierren errealismo poetikotik irtendako pertsona izan zitekeen. Orain, 20 urteko gazte nini batek erakusten du tatuatutako besoa, gurasoen BMW dotorea gidatzen ari den bitartean. Lehengo marinelek St Pauliko ostatu ilunetan grabatzen zuten lortu ezinezko amorantearen izena. Orain, gela dirdiratsuetan tatuatzen dugu gure azken eta betiereko maitasunaren seinalea. Halaxe egin zuten duela zortzi urte Bk eta Pk. Bihotz bana tatuatu gerrian behera, izterraren hasieran. Bihotz gorriaren erdian, bien izenak, gezi batekin. Duela gutxi banandu ziren. Amodioa ez zen, espero bezala, bizi osorako izan. Tatuajea, ordea, bai. Zer sentituko du orain maitale berriak, bikotekidearen izterra gozatzen hasi eta aurreko maitalearen bihotza laztantzen duenean?

Sarjuk lau tatuaje ditu: batean Chamela hitza grabatu du, amaren izena; beste batek magia beltzaren ondorioz hil zen lagunaz oroitzeko balio dio; hirugarrena aitari eskainia da. Azken tatuajeak hiru gurutze ditu. Apaiz kristau bati dedikatu dio Sarjuk. Txikitan bizi zen auzoan jana eta arropa banatzen zituen. Eta esperantza.

## 'F... you'

2012ko ekainak 23

F... you. Zenbat aldiz ahoskatu dute ingelesezko esamolde horren baliokidea katalanera itzulitako filmetan, zineman katalanaren erabilera normaltzeko onartutako legearen ondorioz? Askok. Euskarara baino askoz gehiago itzuli da esaera katalanera. Izan ere, lege horren arabera, Katalunian estreinatzen diren filmen erdiek katalanezko bertsoan egon behar dute. Salbuespen bat dago, baina: arauak edozein hizkuntzari eragiten dio, espainierari izan ezik. Jatorrizko hizkuntza espainiera duten filmak %50eko kuotatik salbuetsita daude.

Salbuespen hori espainolaren aldeko pribilegioa dela esan dio Europako Batzordeak aste honetan Generalitatari, eta legea aldatzeko eskatu. Europako beste hizkuntzetan dauden filmak katalanez eman behar badira, espainierak ez luke betekizun horretatik kanpo egon behar. Bruselak ez du legearen mamiaren kontra egin. Espainierazko filmak ere itzuli behar direla esan du, besterik ez, espainierari beste hizkuntzei onartzen ez zaizkien pribilegioak onartzen zaizkiolako.

Hemen oraindik ez dugu f... you hori itzultzeko behar handirik. Gure legeak ez dira zigortzaileak —hizkuntzari dagokionez; gainontzeko arloetan gero eta arau eta zigor gehiago ditugu, baina kultura edo hizkuntz ekologia ez da gure lehentasuna—. F... you itzuli ez, baina haren erabilera bultzatu bai. Hedabide pribatu eta publikoetatik. Astelehenean galdera bota zieten euskarazko irrati bateko entzule gazteei: «Nori esango zenioke gaur f... you?». Entzuleen zenbait erantzun: «Amari gaur oihu egin dionari, f... you»; « mutilari, f... you, zurrunga egiten duelako»; «Whatsappeko mezuak erantzuten ez dituen jendeari, f... you»...

Hegoaldeko euskaldun asko ez gara oso iaioak kortesian. F... you herria bihurtzen ari gara. «Egun on» entzun, eta hortz arteko «egun on» behartu batekin erantzuten dugu, erantzuten baldin badugu. Gutxieneko jendetasuna sobera da guretzat; txorakeriak dira horiek. Ez dugu espainolak izan nahi, baina espainolen ohitura zakarrenak hartzen ditugu —onak, egon badaude, baina horiek inoiz ez ditugu gure egiten, siesta izan ezik—. «Egun on» edo «kaixo» entzun, eta ezer ere ez. Edo orain modan dagoen beste agur mota bat, jatorra oso: «Qué

pasa!?!?»). Goizean goiz kalean edo lanean lagun bat agurtu eta zein da erantzuna? «Qué pasa!?!?»). «Zer pasatu behar da, ba, zu agurtzeko? Hain berezia zara?», pentsatzen duzu. Ez dakizu benetan zure ongizate espiritualaz kezkatuta ote dagoen edo, darabilen doinuagatik, zerbait leporatzen ari zaizun. «Qué pasa!?!?»). Ematen du Far West-eko saloon-ean sartu zarela eta Dalton anaiak zain dituzula, whisky bana eskuan, zu hantxe bertan akabatzeko. «Qué passa!?!?»). Lapurdiko edozein karrikatako azken katuak esango dizu «egun on» edo «bonjour». Bai, frantseskeria da hori, zurikeria, badakizu gabatxo puta hauek nolakoak diren. Eta espainol huile d'olive pitoak nolakoak gara, ba? Aukeran, nahiago ustezko zurikeria gozoa ustezko zintzotasun zakarra baino.

Kortesia kontuetan badirudi euskaldun asko ongiaren eta gaizkiaren gainerik gaudela. Lebitatzen gabiltza. Jendetasuna? Zer da hori? Gu oso jatorrak eta azkarrak gara; ez dugu halakorik behar. Kontuz, baina: azkarra zakarra izaten da, hizki bakar bat aldatuta. Gainera, zertarako nahi duzu ondoan pertsona ustez azkar bat, sarri haren inteligentzia emozionala putzu batean korroka dabilen apo likits batenaren modukoa baldin bada?

Euskaldunon Egunkaria-ren aldeko elkartasun bazkari batean zerbitzari lanak egitea egokitu zitzaigun behin. Kafe ordua iritsi, eta bi mutil gazterengana hurbildu nintzen, kafean esne pitin bat nahi ote zuten edo. «Esnerik? Ez, motel, ez. Nahiko esne daukagu hemen!», oihu egin zuen batek, eskua hankartera eramanez. Gaztanbera kiloa zenbat zen galdetzea bururatu zitzaidan, baina isildu egin nintzen. Irribarre egin nion begietara, neure buruaren barruko zurigunea zazpi hizkik hartzen zuten bitartean: «Fuck you».

## Bederatzi mila arrazoi

2012ko ekainak 30

Historiaren filmoteka osatzen hasi gara. Nor bere aldetik. Filmen oinarria errealitatea den — izan zena gogoratzeko— edo fikzioa —izan ez zena asmatzeko—, horixe eztabaida. Filmak egiten hasi gara, baina baliabideak ez dira berdinak guztiontzat. Batzuei ukatu egiten zaie lan hori egiteko modua. Haien errealitatea pantailaratzea galarazi nahi diete mehatxuen bidez: erakunde publiko batek 9.000 euroko laguntza ematea talde politiko bat legez kanpo uzteko arrazoa izan daiteke. Itsulapikoa atera beharko dute kalera zinema zuzendariek 9.000 euro lortzeko? Jende aurrean diru hori eskatu edo ematen duten lagunak ere legez kanpo utziko dituzte?

Biktimak gogoratzeko garaiak ditugu, biktima guztien sufrimendua, baina batzuek bi mailako biktimak nahi dituzte. Badirudi alde batekoen sufrimendua beste aldekoena baino handiagoa dela, biziagoa. Sentimendua ezin da kuantifikatu, neurtu; ez dago oinaze merkaturik hura kiloka saldu eta erosteko. Hala ere, baten batzuk besteen sufrimendua gutxiesten saiatzen ari dira. Beste horien sufrimenduari ez diote kalitate labela ematen.

Sufrimenduaren monopolioaz jabetu nahi dute. Sufrimendu gordinena eurena edo euren aldekoena baino ez da. Besteen sufrimendua ia-ia zehar kaltea da, PPko ordezkari politiko bat esatera ausartu denez. Ikusi besterik ez dago nola kontaktzen ari zaigun historia. Batzuek hilketak egin dituzte; beste batzuek, ordea, gehiegikeriak. Alde batean sadismoa dago; bestean, hutsegite hutsak. Hor ez dago indarkeriarik, ez da existitu ere egiten. Ez dago nahita eragindako hilketarik; ez dago aldez aurretik diseinatutako politika errepresiborik. Gehienez ere, abusuak izan dira. Dokumental batean ikusi dugu: pertsona bati buruan bederatzi tiro jotzeari gehiegikeria deitzen badiote, zer gertatu beharko da hilketa bati hilketa deitzeko?

Hamaika aldiz gogorarazi digute alde batekoek xanpainarekin ospatu dituztela hilketak; menu berezia eskatu dutela kartzelan, haien aldekoen armek bizitza bat errotik moztu dutenean. Halako irudiekin osatzen ari dira historiaren filmoteka. Alde bateko biktimak omentzeko lanak eta ekitaldiak ugaltzen ari dira. Besteen oinazearen berri emateko saioak urriagoak dira, eta

hamaika oztopo dituzte bidean. Besteen sentimenduak azaltzeko egitasmoak mugatu nahi dituzte. Alde batekoen kexua besterik ez dute onartzen; besteena, ez. Besteen alde humanoa azaltzea delitua da. Besteak munstro agertu nahi dituzte. Haiei buruzko edozein aipamen neutral zigortzeko arrazoia izan daiteke. Arrigorriagako plazan Argalaren gorpuari agur militarra egin zioten guardia zibilei terrorismoa goratzea leporatuko liekete gaur.

Bi aldeetatik begiratuta, filmoteka aberatsa osatzeko adina lan emango luke gatazka espainiar-frantsesak. Zenbat film egin litezke! Ez soilik bonba-autoek eragindako triskantzei buruz. Zenbat film egin litezke kuartel eta komisaria barruko irudiak zuzendari ausart batzuen eskuetan egongo balira. Biktimen testigantzak ez ezik, borrhoroenak ere kontuan hartzekoak izango lirateke pelikula edo dokumental horietan. Hainbat kezka eta galdera etiko azalduko litzaizkiguke, batzuek atentatuak xanpaina edanez ospatu dituztela esaten dugunean bezalaxe: frankismoak fusilatutako militanteen hiletetara joaten ziren poliziek euren lagunak hiletetan ere janzten zituzten kolore biziko gorbatak? Zer sentitzen zuten demokraziako poliziek kartzelan hildako presoaren lagun eta senideei oldartu eta hilkutxa lurrera botatzen zuten bitartean Bilboko kaleetan? Arratiako etakide historikoaren aita atxilotu eta mendeku hutsez torturatu eta gorputza ubelduta utzi ziotenek zer afaldu zuten gau horretan? DGSen egoitzan atxilotua gorputza lehertu arte torturatu zutenak bingora ala kabaret batera joan ziren gatibua hil eta gero? Estatuko segurtasun indarretako kideek erekziorik izan ote zuten emakume hura makila batekin bortxatu zuten bitartean komisariaren zigorgabetasun ilunean?

# Prandelliren sekretua

2012ko uztailak 7

Sigmund Freuden arabera, erotismoa eta heriotza dira gauzarik inportanteenak bizitzako garrantzi handiko gauzen artean. Beste guztia eros eta tanatosbikotearen menpe dago. Bizitzaren pultsioari eta heriotzaren pultsioari lotuta gaude. Bi indarren arteko borroka saihetsezinak gobernatzen gaitu. Batak bizitzera bultzatzen gaitu; besteak, sufrimenduaren bidera. Erotismoa, desioa, maitasuna lagun ditugu Itakarantz nabigatzen dugun bitartean. Bizitzaren ikurra dira. Heriotza azken portua da, lehorra, gure barne ekaitzak betirako baretuko direna.

Horren guztiaren berri daki Cesare Prandellik. Italiako futbol selekzioko entrenatzaileak jaso duen kolperik latzena ez da izan Espainiaren kontra Europako txapelduna izateko aukera galdu izana. Haren bizitza, beste hainbat gizon eta emakumerena bezala, sufrimendu bizienak ilundu du tarteka. Edo argitu, nondik ikusten den. Roma taldea entrenatzen hasi eta gutxira, emazteak tumore bat zuela esan zioten medikuek. Prandellik lana utzi zuen haren ondoan egoteko. Andreak ezin izan zuen minbizia gainditu. 2007ko azaroan hil zen.

Hedabideek Prandelliren bizitza gogorarazi dute egunotan. Kirolari italiarrak futbol partida batetik bueltan ezagutu zuen andrea izango zuena. Prandellik B kategorian jokatzen zuen orduan. Txokolate bat hartzeko gogoa zuen, eta kafetegi batean gelditu zen. Hantxe aurkitu zuen Manuela, beste lagun batekin. «Elkarri begiratu genion, eta geroztik ez ginen banandu», kontatuko zuen urte batzuk geroago Italiako entrenatzaileak. Hurrengo egunean Manuelaren eskolara joan zen Cesare gaztea, eta neskaren zain egon zen atean. Erlazioaren hasiera izan zen.

Manuela Caffik senarraren eta seme-alaben ondoan pasatu zituen azken orduak. «Medikuek esan ziguten hilzorian dauden gaixoen senideen ahotsak baino ez dituztela errekonozitzen azken uneetan, eta gu hantxe egon ginen hari mintzatzen. Horrek lasaitu egiten zuen», kontatu zuen gero Prandellik. «Haren azken hitzak barruan daramatzat, gordeta, baina ezin ditut esan. Desagertu egingo lirateke». Emaztea hiltzearekin batera jaio zen Prandelliren sekretua.

Garai horietan giza izaeraren hainbat ezaugarri jabetu zen Italiako entrenatzailea: «Konturatu nintzen jende asko maitasunaren beldur dela. Maitasuna eman egin behar da. Ematea errazagoa da ez ematea baino, baina geure egoismoaren gatibuak gara». 30 urtean behin baino ez ziren haserretu senar-emazteak. Maitasuna eta elkarbizitza uztartu zituzten. «Ezingo nuke infidela izan. Beste batekin ezingo nuke sentitu berarekin sentitzen dudana». Entrenatzailea gurasoei buruz mintzatu zen La Repubblica egunkarian, emaztea hil eta hiru hilabetera eman zuen elkarrizketan. Aitarengandik, lanari dion errespetua hartu zuen. Amarengandik, «maitasunaren alde fisikoa» ikasi zuen Prandellik: «Maitatzeaz ez lotsatzea, eta hori erakustea, bihotzaz, buruaz, eskuez». Zenbait lagunek benetako maitasunaren eredutzat jo dituzte Prandelliren bizipenak eta jokaera. Beste batzuk ez dira ados egongo, norberak zein duen benetako maitasuna adierazteko modua. Hala ere, argi dago kleenex gizarte honetan ez dela oso ohikoa Italiako entrenatzailearena bezalako erlazioa.

Prandellik beste emakume bat ezagutu zuen 2010. urtean. Geroztik harekin dabil. Bizitzari eutsi dio, baita bere sekretuari ere. Igandean 4-0 galdu zuen Espainiaren kontra, baina horrek ez du ardura. Arrigo Sacchik esan zuen behin futbola gauzarik inportanteena dela garrantzi txikiko gauzen artean.



# Laudrupen zergak

2012ko uztailak 14

Espainiako kazetari batek Danimarkako presio fiskalari buruz galdetu zion behin Michael Laudrupi. Zergetan gehiegi ordaintzen omen zen bertan, ados zegoen edo. Jaioterriko zerga sistema egokitzat jo zuen futbolariak, zergen dirua herritarren ongizatea bermatzeko dela argudiatuz. Berak gustura ordaintzen zuen.

Zergak gustura ordaindu? Hemengo edozein herritarrek —ez soilik futbolari aberatsek— nekez ulertuko lituzkete Laudrupen hitzak. Kultura edo pentsaera kontua da. Hego Europan eta Ipar Europan ikuspegi diferenteak ditugu zergei buruz. Laudrupen pentsaera eta jokaera erantzukizun kolektiboan erroten dira. Max Weberrek aztertutako etika protestantearen ezaugarriak dira, lanaren eta arduraren garrantzia nabarmentzen dutenak. Han ere badira zergetan iruzur egiten dutenak, baina gizarteak ez ditu txalotzen. Gurean, bai. Hemen oso sinpatiko zaizkigu iruzurgileak, picaresca espainolaren tradizioan. Batzuetan, amnistiatu egiten ditugu.

Esaten dute Alemanian, proportzioan, hemen baino politikari gutxiago daudela. Hau ere esan beharko lukete: iruzurraren kontrako teknikarien kopuruak hemengoak bikoizten duela. Eta han iruzurgilea ez dela salbatzen. Justiziak berdin tratatzen ditu iruzur egiten duen langile xumea edo aberats handiena —galdetu, bestela, Steffi Grafen aitari, zenbat lasaigarri hartu behar izan zituen alaba tenislariaren kontuekin garbi ez jokatzearatik kartzelan pasatu zuen denboran—. Hemen zergak ordaintzea ahaztu egiten zaigu eta ezer ez da gertatu: diputazioari arte lan batzuk eman, eta kito. Fini.

Espanian eta hark administratutako Euskal Herrian ez dugu oso barneraturik erantzukizun sozialaren kontzeptua. Zerbait ematen dugunean penaz edo, gehienez, elkertasunez egiten dugu, ez erantzukizun sozialez. Hemen klan moduan funtzionatzen dugu: gure administrazioa etxeokak dira, familia. Eta lagun hurkoenak. Izan ere, horiexek ditugu sostengu, estatuaren benetako babes sendoaren ezean. Zergak gizartearen ongizaterako dira, baina ez gaude prest ordaintzeko. Ia denok saiatu gara, noizbait, bideren bat aurkitzen erantzukizunari ihes egiteko.

Edo iruzur egin dugu, txikian edo handian. Unamunok «que inventen ellos» esan zuen. Alegia, besteek asma dezatela, gero geu baliatuko gara haien asmakariez. Guk ere berdintsu jokutzen dugu zergekin. Besteek ordain dezatela, gero geu aprobetxatuko gara haien diruaz eskainitako zerbitzuez.

Zergak ordaintzea tontoarena egitea dela argi utzi du Espainiako Ogasun ministro Cristobal Montorok, BEZaren igoeraren harira. Ordaintzen ez dutenek ordainduko balute, ez litzateke zerga igo beharko. Adar jotze galanta dirua jartzen duenari. Pentsatzen al du Montorok %18ko BEZa ordaindu ez dutenek %21ekoa ordainduko dutela orain? (kar, kar, kar, barre algara platean). Lehen ordaintzen zuenak gehiago ordainduko du orain, baina zalantza metafisikoa ez zaio burutik kenduko: iturgina etxera datorrenean eta «BEZarekin ala BEZa gabe» galdetzen duenean, zer egin beharko du? BEZarekin eskatuz gero, nork dio erreziboak egiteko langile autonomo horrek A taloitegia eta B taloitegia ez dituela, eta azkenekoan sartzen dituen fakturak, BEZarekin izan arren, benetan aurkeztuko dituela administrazioan? Inork ez. Haren hitzaz edo itxuraz fidatu beharko du bezeroak. Iturginak dirua jaso eta irribarretsu alde egingo du etxetik. Poz-pozik. Eta guri ere Bugs Bunny aurpegia geratuko zaigu.

Gran Torino filmean Clint Eastwood zahar egoskorra abadeagana joan da aitortzera, hildako andrearen aholkuari segituta. Kontatu dio festa batean musu eman ziola emakume bati, artean emaztea bizirik zuela. Eta beste bekatu bat egin zuela ibilgailu bat saldu zuenean: «Diru hori ez nion Haziendari aitortu. Hau da, lapurtu egin nuen». Ez litzateke txarto egongo filmeko eszena hori hartu eta iruzurraren kontrako kanpainetako spot-ean jartzea. Baina kasu egingo genioke Clint zaharrari?

# Zipaio bat Ajuria Enean

2012ko uztailak 21

Edo Moncloan. Zipaio hitza zentzu mugatu batean esan izan da hemen, polizia arloan, baina hara non baden beste testuingururik erabiltzeko. Lehengoan, argi utzi zuen hori Bartzelonako egunkari ezagun bateko zutabegileak, Espainiako presidente Mariano Raxoi deskribatzeko killer eta zipaio hitzak aukeratu zituenean: «Raxoi Merkel andrearen killer ona da. Espainiarrak pobrezia biderantz eramateko egiten ari den soldatapeko hiltzaile lana merkatuko onena da», zioen kazetariak. Eta jarraian: «Hemen ezer ez da gertatzen errudunak aukeratuen kastako kideak sentitzen direnean, Ipar Europaren zipaioak direnean». Raxoi, killer eta soldatapeko hiltzailea. Raxoi, zipaioa.

Zer esan nahi du zipaio hitzak, baina? Hitz batek askotariko esanahiak izan ditzake. Hiztegiak ematen dion definizioaz gain, termino horrek baditu beste konnotazio batzuk, hizkuntza formalean onetsi ez arren herri hizkeran txertatuak direnak. Zipaio hitza da haietako bat. Haren esanahia ulertzeko, menpekotasun linguistikoan gaude euskaldunok. Hitzaren definizio osatuena espainolezko hiztegi batek ematen digu, ez euskarazkoak. Errege Akademia Espainiarraren hiztegiak hauxe dio: «Cipayo: (Quizá del port. sipay, y este del persa sepahi, soldado).1. m. Soldado indio de los siglos XVIII y XIX al servicio de Francia, Portugal y Gran Bretaña. 2. m. despect. Secuaz a sueldo». Lehen esanahian, kanpoko botereen zerbitzuan dagoen soldadua dugu zipaioa. Bigarrenean, soldatapeko jarraitzailea. Euskaltzaindiaren Orotariko Euskal Hiztegiaren on lineedizioan begiratu, eta zipaio hitzaren arrastorik ez. Politikari hitzak sarrera bat du; lehendakari hitzak hiru sarrera ditu, ertzain hitzak beste. Zipaio hitzak, ostera, bat bera ere ez. Euskarak ez du zipaiorik, antza.

Zipaio hitza ia tabua da gurean; hura erabiltzeak ondorio txarrak ekar ditzake. Deitu zipaioa ertzain bati, eta, astintzeaz gain, baliteke zu auzipetzea ere, goizean goiz All-Bran gosalduek ez badu. Deitu zipaio lehendakari bati, eta akabo koplak. Espainian, aldiz, zipaio, killer eta soldatapeko hiltzailea deitzen diote presidenteari, eta ez da ezer gertatzen. Baten batek, edozein arrazoi argudiatuz, Patxi Lopezi edo beste lehendakari (ohi) bati zipaioa deituko balio, nola erreakzionatuko genuke herritarrok eta politikariek? Askok errespetu falta dela esango

lukete, baita instituzioa iraintzea ere. Lehenengoa egia izan liteke, kasuaren arabera. Bigarrena, ordea, ez. Lehendakari edo presidente bati lapur, gezurti, traidore edo zipaioa deitzea ez da instituzioa iraintzea, kargua daukan pertsonaren kontra egitea baizik. Gustu onekoak edo gustu txarrekoak izango dira aukeratutako hitzak, baina pertsonari zuzenduak dira, ez erakundeari. Argiketari bat alferra dela esaten denean, pertsona jakin bat kritikatzeko da, ez da lanbidea iraintzen. Badirudi Eusko Jaurlaritzako lehendakaria denik eta pertsonarik garbiena eta ohoragarriena izaten dela beti. Birjintasunaren eredia. Jainkoaren ordezkaria euskal lurrian. Iraina garbitzeko manifestazioak egingo genituzke, Frantzian prentsa satirikoak Mitterrand, Chirac edo Sarkozyri buruz esandakoen erdien erdiak esango balizkiote hemen gure lehendakari bati.

Espainiako presidentea zipaioa da, baina hori ez da oso gauza bitxia gaur. Gauden garaietan, agintari zipaiorik ez izatea da arraroena. Beraz, ez harritu inoiz EAEn lehendakari zipaio bat egokitzen bazaigu, orain artean egokitu ez bazaigu... Behin zipaioa izanez gero, Ajuria Eneko zipaioa, askotan, bi aldiz izango da zipaioa: Raxoi Ipar Europaren zipaioa da, baina gure kasuan lehendakari hori Ipar Europaren zeharkako zipaioa ez ezik, Madrilen zuzeneko zipaioa ere izango da. Zipaioa, killer eta soldatapeko hiltzailea, Bruselari men eta Madrili amen. Karguaren zina Gernikako arbolaren azpian egin arren. Jainkoaren aurrean apalik edo jainko barik harro.

## «Exiliatuen» meloia

2012ko uztailak 28

Berlinen izan zen. Erosketak egitera joan ginen kaleko merkatu batera. Meloia hartu nuen eskuetan, helduta ote zegoen ikusteko. Itxura ona zuen, eta lagun batek erosteko esan zuen. Halako batean, saltokiko emakumeak, gugana hurbildu, eta meloia kendu zigun eskuetatik, oso modu txarrean. «Espainiatik bota gintuzuen. Alde hemendik», esan zigun erdara garbian. Hizkuntzak nola markatzen gaituen. Espainolez ari ginen, eta espainoltzat jo gintuen. Emakume sefardita zen, Fernando Faltsutzaileak 1492an kanporatutako juduen ondorengoa. Espainiak jazarri eta botatako exiliatu haien urruneko senideren batzuen gorrotoak bizirik segitu du mendez mende.

Aste honetan, beste exiliatu batzuen gaia azaleratu du Jorge Fernandez Diaz Espainiako Barne ministroak. ETaren indarkeriaren ondorioz Euskal Herritik alde egin zutenek gurean botoa emateko eskubidea izango omen dute. Horretarako baldintzak: Euskal Herrian bost urtean errolatuta egon eta presio terroristaren ondorioz alde egin izana. Proposamen horren atzean bozei eragiteko asmorik ez dagoela adierazi du ministroak: «Hurrengo belaunaldiak izan ditugu gogoan, ez hurrengo hauteskundeak».

Ukaezina da ETaren jardueraren ondorioz jendeak alde egin duela Euskal Herritik. Baina zenbat izan dira? Areago: nola frogatu terroristen presioa? Oso subjektiboa da hori. Juduen kasuetan ez bezala, hemen ez zen dekreturik onartu jendea kanporatzeko. Demagun Euskal Herrian 30 urtean bizi izandako pertsona bat Espainiako jaioterrira itzuli dela. Demagun botoa eman nahi duela Hegoaldean. Nola justifikatuko du terroristen presioa? Bere kontrako zuzeneko erasoaren berri eman beharko du edo nahikoa izango da adieraztea urteroko jaietan kalean ikusten zituen presoan aldeko pankartek zorabioa eragiten ziotela? Bestalde, zer esan nahi du ministroak «hurrengo belaunaldiak» aipatzen dituenean? Iparraldeko sindromeak jotako polizia baten seme-alabek hemen bozkatzeko eskubidea izango dutela, haien aita Gipuzkoako errepideetan kontrolak jartzen ibili zelako bost urtean? Trantsizioko lehen urteetan Nafarroako herri bateko plazan ikurrinak ez jartzeko zelatatzen zuen guardia zibil zaharraren bilobek eskubide hori izango dutela, aitaxi, barkatu, abuelitoaren kuartelaren ondoan bizi zirelako

txikitan?

Bozkatzeko eskubidea estatukidetasunak ematen du. Eta bozkatzeko lekua, erroldak. Legez inor ezin da egon estatu berean bi lekutan erroldatuta. Iruzurra da, eta ezina. Bilbon jardundako polizia bat orain Sevillan bizi eta erroldatua bada, Sevillan bozkatzen du, ez Bilbon. Bilbon bizi den ertzain batek bertan ematen du botoa, ez Sevillan. Estatukidetasun bera dute biek, baina bata han erroldatuta dago, eta bestea hemen. Espainiar batek ezin du Avilan eta Segovian bozkatu. Bada salbuespenik, pertsona hori atzerrian bizi denean: Belgikan erroldatuta egon arren, Avilako herritar batek Espainian bozkatu ahal du, atzerrian dagoelako. Hortik begiratuta, PPren asmoak badu alde positiborik: Euskal Herria ez dela Espainia onartzea. Espainian erroldatuta daudenak gure atzerrian bizi direla, alegia.

Exiliatuek Espainian erroldatuta segitu nahi badute, eta Euskal Herrian bozkatu, bada erdibideko konponbiderik: Iparraldean erroldatzea. Horrela atzerrian egongo lirateke erroldatuta espainiarren ikuspegitik, eta Euskal Herrian gure ikuspegitik. Denak kontent, denak huros, baldin eta, exiliatu horiek ez ezik, Iparraldean bizi diren herritar guztiek ere aukera balute EAEko hauteskundeetan bozkatzeko. Azken batean, boz horien emaitzek haiei ere eragiten diete Herri Urrats edo euskal irratientzako diru laguntzak erabakitzen direnean. Zentzuzkoena izan liteke, Madrilek arazorik ez izateko: Israelek Espainiako hauteskunde legea aldatzeko asmoen berri badu, kapaz da sefarditek Gaztela-Mantxako bozetan bozkatzeko eskatzeko. Aurreko belaunaldiak, Toledoko sinagoga eta Berlingo emakume sefardita gogoan.

# Vinicius Ipaneman

2012ko abuztuak 4

Hogeita bost urte zituenerako sexu harremanak 1.000 gizon-emakumerekin baino gehiagorekin izan zituen gizonak inoiz ez zuen ezer egin mutil-lagunarekin, hark aitortu zuenez. Gore Vidalek, New York Times-eko heriotza-artikuluak «idazle dotorea» deitu zutenak, bizitza mugitua izan zuen. Lan oparoa, ahots kritikoa eta pertsona probokatzaila. Horrela definitu liteke Vidal. Batzuek miretsi egiten zuten; beste batzuek, gorrotatu. Haren hitzek eta iritziek inor gutxi uzten zuten epel.

«Maitasuna ez dago nire zorroan», esan zuen behin, erromantizismoa baztertuta. Zorrotz bezain hotz deskribatu zuen bere burua: «Ni agertzen naizen bezalakoxea naiz. Nire barruan ez dago pertsona bero maitagarririk. Nire kanpoalde hotzaren atzean, behin izotza apurtu eta gero, ur hotza aurkituko duzu». Gizon bihotzez hotza. Itxuraz, bikotekide berarekin bizi izan zelako 53 urtean, Howard Austen publizistarekin. Maitasun platonikoa. Gore Vidalen ustez, mutil-lagunarekin hain denbora luzean baturik segitzeko arrazoi bakarra hauxe izan zen: «Inoiz oheratu ez izana elkarrekin».

Bikotekidearekin ez oheratzea ez zitzaion burutik pasatuko Vinicius de Moraesi. Poeta eta musikari brasildarrak ondo irabazia zuen seduzitzaile fama: bederatzi aldiz ezkondu zen eta hamar seme-alaba izan zituen. Halakoxea zen o branco mais preto do Brasil, Brasilgo zuri-beltzena. Aste honetan 50 urte bete dira Garota de Ipanema —Ipanemako neska — bossa novako kanta ospetsuena jende aurrean lehen aldiz jo zutenetik. Berak idatzi zituen hitzak, Tom Jobim konposatzaile eta lagunak eskatuta. Agerraldi historikoa Copacabanen egin zuten, Au Bon Gourmet izeneko klubean. Ez dago erabateko adostasunik zer egunetan izan zen zehazteko; Brasil eta Europaren arteko ordu diferentziak nahasmena sortzen du. Iturri askok abuztuaren 2an jartzen dute eguna; beste batzuek, egun bat lehenago. Abuztuaren bataren eta biaren bitarteko gauean izango zen. Vinicius eta Jobimekin batera, Joao Gilberto kantaria, Milton Banana bateria jotzailea eta Otavio Bailly kontrabaxua azaldu ziren, mundua Ipanemako hondartzarako bidean zihoan neska gazte baten aldaken «kulunka gozoaz» zorabiatzeko asmoz. Vinicius de Moraesek esan zuenez, bere asmoa neska haren edertasuna eta bizitzaren

jarioaren nostalgia lotzea izan zen: «Argiz eta graziaz betea da neska, baina hura ikustea tristea ere bada, itsasorako bidean igarotzen denaren sentimendua daramalako, gurea ez den edertasuna. Bizitzaren dohaina da, haren goranzko eta beheranzko fluxu polit malenkoniatsu etengabea».

Bizitzaren alde biak gogoratu zituen Viniciusek Ipaneman. Bizitzaren nostalgia tristea. Geure patuaren aurrean biluzik gaudenean, unibertsoaren esku apetatsuen menpe. Bizitzaren bizipoza. Egunsentia beste azal batean margotzen dugunean. Maskara erantzten dugunean, eta gure fatxada harroaren atzean ezkututzen den hauskortasun samurra agertzen denean. Pasioaren intziriak gauaren bakardadea urratzen duenean. Izter beltzaranen espasmoek denbora itotzen dutenean eta balio duen erloju bakarra bihotzen taupada denean.

Geroago jakin zenez, Ipanemako neska ez zihoan benetan hondartzara, enkarguak egitera baizik, baina badakigu irudimenak zenbateraino ematen duen aldaken kulunka gozoa sumatzen duenean mugimendu liluragarrian. Bizitza etengabeko jarioa baita, fluxu askoren fluxua. Batzuek, Vinicius kasu, oso esperma erromantikoa dute. Gore Vidal bezalakoek, ordea, ez.

Vidal asteartean zendu zen, 86 urterekin. Haren bizitzako lehen amodioa, Jimmy Trimble, 12 urte zituenean ezagutu zuen Washingtonen, Saint Albans eskola-barnetegian. Trimble 1945ean hil zen, Iwo Jimako batailan japoniarren kontra borrokatzen. Vinicius de Moraes 1980ko uztailaren 9ko goizean itzali zen. Bezperan elkarrizketa bat egin zioten. «Heriotzaren beldur zara?, galdetu zion kazetariak. «Ez, seme, ez», erantzun zuen, «ni ez naiz heriotzaren beldur; nik bizitzaren nostalgia daukat».



# Zapotecak

2012ko abuztuak 11

Munduan barrena saltoka dabilen erreportari bidaiariaren joan-etorrien berri ematen du telebistako programak: leku exotikoak, hango jendearen bizimodua eta kultura, hemengo bisitarien iritziak... Kazetaria Mexikon dago, Riviera Mayako hondartza gardenetan. Handik beste leku batera egin du salto: oraingoan, kaleko merkatu bateko saltoki xumearen aurrean dugu. Saltzaileak edadeko emakumeak dira. Erreportariak zerbait galdetu dio bati, baina andreak ez du hitzik egin. Irribarrea izan da erantzun bakarra. Aldameneko batek zerbait esan dio orduan neska kazetariari. «A, ez daki espainolez hitz egiten?», galdetu du horrek, harrituta. Eta gero, kamerari begira: «Emakume honek zapoteces hitz egiten du. Zapoteca eskualde honetako dialekto bat da. Ez daki espainolez. Oso jende itxia da».

Zergatik deitu dio mintzaira horri dialektoa? Zeren dialektoa? Kazetaria ez ezik, hizkuntzalaria ere bada neska? Hizkuntzalaria izanez gero, bazuen azaltzea Kolon Ameriketara iritsi aurretiko zer hizkuntzaren dialektoa den zapoteca. Alta, beste arrazoi bat izan liteke tartean zapotecari dialektoa deitzeko: inkontzienteak traizionatu egin du kazetaria, eta zenbait espainiarren espiritu kolonizatzailea azaleratu zaio. Francoren garaian katalanari eta galegoari ere dialektoak deitzen zieten mespretxuz. Zuzen zeuden, dialektoak dira katalana eta galegoa, espainola bezalakoak, latinetik eratorriak baitira. Baina zer ardura dio, dialektoa izan edo ez. Babelgo dorre mitikoan dialektoak hitz egiten ziren ala gero sortu ziren horiek, hango hizkuntza bakarretik? Era batera edo bestera, dialektoak dira egungo hizkuntza gehienak. Ingelesari eta espainolari ez, zapotecari deitu dio dialekto, mintzaira horri hizkuntza osoaren kategoria kentzeko, prestigioa. Kolonialismo kulturala. Maltzurkeria. Kolonialismo hori salatu zuen ostegunean Victor de la Cruz poeta eta itzultzaile zapotecak Hizkuntzaren Akademia Mexikarreko kidea aukeratu zuten ekitaldian —Hizkuntzaren Errege Akademia da erakunde horren parekoa Espainian—. «Onartu behar dugu kultura eta hizkuntza aniztuneko herri batean bizi garela. Batez ere, espainoldunek onartu behar dute hori, herrialdea Mendebaldeko kulturaren kanonen arabera uniformatu nahi dutelako».

Kazetariak itxia deitu dio saltokiko andreari, espainolez ez dakielako. Emakume indigena zahar

horri ez zioten, seguruenik, aukera txikiena ere eman eskolara joateko, are gutxiago espainola ikasteko. Inork ez zion galdetu espainola ikasi nahi zuen edo ez. Kazetari espainiarra ez dadila harritu, haren logika berari segituz, AEBetako metropoliko turistak itxiak deitzen badie Andaluziako zaharrei, horiekin hitz egiten hasi eta ingelesez ez dakitela ohartzen denean. Zer deituko die kazetariak Euskal Herrian jaio eta bizi arren euskara ikasteko batere gogorik ez duten herritar moderno unibertsalei? Itxiak? Ezjakinak? Okupazio kulturalaren armadako kideak, nahi gabekoak edo gogotsuak?

Guztira, 800.000 lagun inguruk dute zapoteca lehen hizkuntzatzat. Gehienak Oaxaca aldean bizi dira. Euskaldun adina zapotec hitzun dago munduan, ia-ia. Zapotec guztiak mintzo dira zapotecez; horietako asko elebidunak dira; beste batzuk, elebakarrak. Hemen ez gara hain itxiak; hemen ia den-denok gara elebidunak. Irekiak gara euskaldunok, irekiegiak. Geure buruko eta bihotzeko irekitasuna hizkuntzarekiko hain da handia, ezen tontotasunaren mugaraino iristen den: Donostia erdiko saltoki guneko jatetxean kartelak dituzte jarriak, menuak ingelesez eta frantsesez badituztela jakinarazteko. Euskarazko menurik, ez; euskaraz egin eta ulertu, ez. Hala ere, beteta egoten da asteburuetan. Bezero euskaldun gehiago ditu bezero ingeles edo frantses baino. Halakoxeak gara, ba, hizkuntzaren arloan: zapotec bat baino irekiagoak; zipote bat zipoteka baino baldarragoak.

# Joanen hitz bakarra

2012ko irailak 15

Azken turistak eta inguruko herritarrak eguzkitan daude. Irratia dance musika hedatzen ari da, tartekako publizitate etenekin: «Katalunia, Europako estatu berria», «independentzia askatasuna da». Dena prest dago Kataluniako Festa Nazionaleko manifestaziorako. Hondartzaren ondoko hotel bateko bozgorailuak ezkontza zibil baten zeharkako lekuko bihurtu ditu udatiarrak. Emaztegiaren lagun batek hartu du hitza, ohiko hitzalditxoan bikotearen harremana deskribatzeko: «Eta Joanek, bai, hitz bakar batekin maitemindu zuen...».

Kataluniako Asanblea Nazionalaren ekitaldiak arrakasta izugarria izan du eta politika mundua astindu du, bertan eta Espainian. Asteartean Bartzelonan Kataluniaren independentziaren alde egindako manifestazioak marka guztiak hautsi ditu. Milioi eta erdi edo bi milioi lagun, berdindio: gizarte katalanak borondate garbia erakutsi du burujabetza politikoaren alde egiteko. Hamaika arrazoi argudiatu ahal dira katalanen erantzuna azaltzeko. Denetarik egongo da, baina hau ukazina dugu: milioi bat lagunek baino gehiagok parte hartu dutela Kataluniaren independentziaren alde antolatutako manifestazioan. Horri garrantzia kentzen saiatzea eta manifestazioa independentista ez zela esatea itsukeria da. Edo oportunismoz jokatzea. Horixe egin du Josep Antoni Duran i Lleidak, Unio Democratica de Catalunya buruak. Independentista ez denez eta, azkenean, gurdira igotzea erabaki duenez, izaera independentista kendu nahi izan dio martxari: «Manifestazioa jadanik ez da independentista». Bere presentzia hutsak manifestazioaren helburua eta leloak aldarazteko balio balu bezala. Duran i Lleida, nonbait, leku eta une zuzenetan egon zen asteartean. Harekin batera Bartzelonako kaleetan ibilitako milioitik gora lagunak, aldiz, oker zeuden; ez zekiten non zeuden ere. Tontoak dira, antza. Hara zer gerta daitekeen politikako patrizio batek Madrilgo Ritz hotela izaten duenean ostatu: errealitatearen zentzua galtzen du, eta besteen gainetik dagoela pentsatu.

PSCkoak, aldiz, Duran i Lleida baino umilago eta zuhurrago aritu dira. PSCko lehen idazkari Pere Navarrok alderdiko sektore katalanistaren aurka egindako barne aldaketek ez dute eragotzi sozialista batzuek manifestazioarekin bat egitea. Mobilizazioa «soilik independentista» ez zela

esan dute parte hartzea defendatzeko. Joaquim Nadalek independentziarako arrazoiak badaudela adierazi du El Punt-Avui egunkariari eskainitako elkarrizketan, nahiz bide orria argi ikusten ez duen. PSCko talde parlamentarioko buru berri Xavier Sabatek —teorian sektore ez katalanistakoa, oposizioko buruaren postuan Nadal katalanista ordezkatu duena— Kataluniaren independentziari buruzko erreferenduma egiteko eskatu du. Sabate federalista da, eta ez dirudi independentziaren alde egingo lukeenik, baina bozkatzeko eskatzea nahikoa da Kataluniako sozialisten eta hemengoen arteko aldea nabarmentzeko.

Toni Batistak pasadizo esanguratsua kontatzen du PSE-EEko kideei buruz. 1999ko ekainaren 11n Donostiara etorri zen kazetari katalana, udal hauteskundearen kanpainaren bukaerari buruz idazteko. Egun hartan Odon Elorzaren aldeko afari batean izan zen, Maria Cristina hotelean. Pasqual Maragall zen kanpaina amaierako ekitaldiko izarra. Halako batean PSE-EEko orduko idazkari probintzialak —«ustez baskista», Batistaren hitzetan— hauxe galdetu zion Maragalli: «Aizu, eta erreferendum bat egiten badugu eta independentziak irabazten badu, zer egin beharko dugu?». Handik lau urtera Generalitateko presidentea izango zenak zirkinik egin gabe erantzun zion: «Ba, emaitza onartu».

Zeremonia amaitu da, baina bozgorailuak ez du misterioa argitu: inork ez du jakin Joanek zein hitz bakarrekin maitemindu zuen orduko neska, gaurko emaztegaia, oraingo emaztea. Ez gonbidatuek, ez udako azken eguzkiaren zaleek.

# Arnaldoren liburua

2012ko irailak 22

Euskal mendizaleak lehenengo aldiz Everestera igo zirenean, munduko mendi altuenaren konkistari buruzko liburua idatzi zuen Felipe Uriartek, espedizio hartako kideak. Liburuaren jatorrizko bertsioa espainolez sortua zen, baina mendizaleek Joxean Artzerekin hitz egin zuten lana euskaratu eta Euskal Herriko berezko hizkuntzan kaleratzeko lehendabizi. Esan eta egin. Artzeren itzulpena Buru ilhun lurruntsua: euskaldunak Everest mendian izenaz heldu zen liburu-dendetara, 1981. urtean. Euskaraz. Espainolezko bertsioa handik hiru hilabetera edo argitaratu zuten. Euskaldunok Himalaian bizitako epopeiaren berri izan nahi zuen jendea irakurtzeko irrikaz zegoen, eta liburua erosi zuen. Euskaraz ozta-ozta moldatzen zenik ere izan zen erosle horien artean. Ezin hiru hilabete itxaron erdaraz irakurtzeko.

Mendizaleen adibidea aipatu dit lagun batek Arnaldo Otegiarekin egindako elkarrizketa liburuaren harira. El tiempo de las luces liburua ostiralean, hilak 28, kaleratuko da. Euskarazko bertsioa azaroan argitaratuko dute. Bata, hauteskunderen aurretik; bestea, Durangoko Azokaren bezperan. Kasualitatea ote? Mendizaleek erabaki irmoa hartu zuten euskararen alde egiteko duela 31 urte. Modu eredugarrian jokatu zuten. Hiru hamarkada geroago gure politikariek badute norengandik ikasi.

Gipuzkoako herri euskaldun bateko Eroski Centerrera erostera joaten naizenean bozgorailuak errealitatearen berri ematen dit astero: «Señores clientes, aprovechen la oportunidad: hoy, comprando una botella de aceite de oliva, pueden llevarse otra a mitad de precio». Jarraian mezu bera euskaraz entzuten dudanean hauxe galdetzen diot neure buruari: zergatik ez dute lehenago euskaraz esaten eta gero erdaraz? Zergatik euskaldunok bigarren lekuan beti, atzean? Berdin sentitu dut Otegiaren liburuaren inguruan. Pena, amorrua. Gero besteak dira — espainolak edo frantsesak— euskara baztertzen dutenak. Gero kexatu egingo gara euskara ez dakit non ofiziala ez delako. Besteei eskatu, bai, guk geuk betetzen ez duguna.

Jakina da kartzelan egoteak ez duela errazten halako liburu bat ateratzea. Egoera zail horrek arazoak baino ez ditu ekartzen, baina horrek ez du justifikatzen lana erdaraz kaleratzea. Beste

arlo batzuetan hainbestetan aipatzen den benetako borondate politikoa euskararen arloan ere izan balitz, modua bilatuko zuten liburua hori euskaraz argitaratzeko lehenik. Edo, besterik ez bada ere, bi (edo hiru) hizkuntzatan, leku, egun eta ordu berean. Harrigarria da 2012an, Euskal Herrian ilusio politikoa hedatzen ari den aroan, ezker abertzaleak kasu honetan hizkuntza praxi politikoaren ardatzean jarri ez izana. Zertarako bultzatu gero Zatoz euskaltegira bezalako kanpainak, praktikan bigarren mailako komunikazio tresnatzat jotzen badugu euskara? Euskara «ohiko eta lehentasunezko hizkuntza» izatea du helburu EH Bildu koalizioak, baina ezker abertzaleak, Otegiren liburuaren kasuan, ez dio lehentasunik eman euskarari.

Ezker abertzaleak jakingo du zergatik behartu nahi gaituen Otegiren iritziak interesgarritzat jotzen ditugun euskaldunok erdaraz irakurtzera, zergatik jo gaituen bigarren mailako herritartzat. Euskaldunok bi hilabete pasatu beharko ditugu Otegiren hitzak euskaraz irakurtzeko ala orain erosi beharko dugu liburua, bizitzen ari garen momentu politikoaren gakoak erdaraz ulertzeko? Durangon ere erosi beharko dugu liburua, euskararen aldeko militantziaren izenean? Ezker abertzaleak jakingo du zergatik argitaratuko duen liburua erdaraz; Otegik jakingo du, espetxeko egoerak ezertan ere laguntzen ez duela aitortuta ere, zergatik onartu duen hori hala izatea. El tiempo de las luces liburuak datorren astean ikusiko du argia. Argien garaia, baina, oraindik ez zaio iritsi euskarari. Euskarak ilunpetan segitzen du. Hura maite eta urteetan lan eskerga egin dutenek halako kasuetan bazterrean uzten badute, zer espero dezakegu besteengandik?

# Oprah Alderdi Egunean

2012ko irailak 29

Espainiarekin ezkondata segitu? Bai ala ez? Gaur ez, bihar bai; gaur bai, bihar ez. Halaxe dabil EAJk urriaren 21eko bozetarako aurkeztutako lehendakariagaia: egun batean, «más estado vasco en Europa» agintzen du, hau da, euskal estatuak Europan leku handiagoa izatea; biharamunean, ordea, ez du Espainiatik dibortziatu nahi.

Aste honetan, bi helburu kontrajarri horiek aipatu ditu Iñigo Urkulluk. Euskal estatuak Europan leku eta eragin handiagoa izan beharra aldarrikatu du. Euskal estatua? Urkulluk jauzi itzela egin du trapezioan, logikaren oinarri eta ekuazio guztien gainetik. Nola izango du «euskal estatuak» leku handiagoa Europan, oraindik euskal estaturik ez bada? Lehenengo eta behin, euskal estatu hori lortu beharko litzateke, eta gero gerokoak: estatu horren boterea —gero eta txikiagoa, egia da— Europako beste botere gero eta txikiagoekin eguneroko jardunean berdintasunean kudeatu. Baina Urkulluk gerokoak aipatzen ditu, geroa oraindik egin gabe dugun arren.

Joan etxe dekoratzaile batengana eta esaiozu zeure etxea dotore apaindu nahi duzula, albokoaren etxea bezain dirdiratsua eta erakargarria izan dadin. Etxea erakusteko eskatuko dizu, baina zuk etxerik ez duzula erantzutean, denbora ez galarazteko esango dizu; etxea ez dela teilatutik egiten. Dekoratzaileak berdin esango lioke Urkulluri: «Lehenik etxea egin, eta gero etorri. Bitartean, ideiak nahi badituzu, hementxe dituzu aldizkari batzuk etxe barruko diseinu modernoak aukeratzeko: Marie Claire, Vogue, Better Homes & Gardens Magazine, Cosmopolitan, O The Oprah Magazine...». Eta aldizkariak prestatuko lizkioke, etxea izan arte amesteko.

Euskal estatuarena igandean bota zuen Urkulluk. Handik bi egunera dibortzioa baztertu zuen EAJko buruak: Espainiarekin ezkondata segitu nahi du. Badirudi jeltzaleak Jainkoaren legerari segitu nahi diola, Euskal Herria elizaz ezkondata dagoela Espainiarekin, eta beldur dela, dibortziaz gero, eskumikatuko ote gaituzten. Edo aldizkariari begiratu eta ez duela gustuko ideiarik aurkitu. Urkulluk ez du dibortziatu nahi; bizikidetzak eskatzen dio Espainiari. Hark badaki zer-nolako errespetua, begirunea eta bizikidetzak eskaintzen dizkien Espainiak, behin eta

berrero, bere ezkontideei, haien askatasun nahiei eta aldarrikapen nazionalei. Hala ere, ez du etsi nahi. Ematen du tratu txarrak jasaten dituzten zenbait emakumeren moduan jokatzeko ari dela Urkullu. Jipoiak, burlak, mehatxuak jasan eta jasan, baina ez dute gizona utzi nahi, hamaika arrazoiengatik: «ezin» direlako hura gabe bizi; noizbait gizona aldatuko den esperantza hutsalari eusten diotelako; haren erreakzioaren beldur direlako; baliabide ekonomikorik ez dutelako bakarrean aurrera egiteko... Erabakia hartzea ez da batere erraza harremanean ustez ahulena denarentzat, baina momentu bat heltzen da, zirt edo zart egitea beharrezkoa izaten dena. Badirudi momentu hori ez zaiola oraindik iritsi EAJri. Bizikidetzaren berdintasunean lortzeko hamaikagarren saioa egin nahi du, baina horrek hamaikagarrenez porrot egin eta gero, zer proposatuko du? Lehen, ETA zen; orain, krisi ekonomikoa. Inoiz ez da une egokia dibortziatzeko, kolpeak eta kolpeak jaso arren. Krisiarena amaitzen denean, zer aitzakia bilatuko du EAJk?

Euskal estatua izateko edo Espainiatik ez dibortziatzeko arrazoiak zeintzuk diren argitu beharko lieke Urkulluk herritarrei. Baina lehenago bata ala bestea aukeratu, ez baitago dibortziorik gabeko euskal estaturik. «Euskal estatuak Europan leku handiagoa izatea» nahi badu, EAJ garaiz dago bide orria egiteko, 2015ean, estatutu berria barik, estatu berriaren lehen oinarriak ezartzeko. Hori erabakitzen badu, hiru urte barru Oprah Winfrey gonbida dezala Alderdi Egunera, etxe berriaren diseinu eta dekorazioa aukeratzen laguntzeko. Ez da bide hoberik izango nazioartearen onarpenera lortzen hasteko: Oprah, txapela jantzita, marmitakoa jaten Forondan.



# Inkestak

2012ko urriak 6

Eskuko telefonoak artean fantasia zirenean telefono finko batera deitu nuen etxetik. Beste aldetik arnasestuka erantzun zidaten. Hizketan hasi eta ahotsa lasaitzen ez zela ohartuta, zer gertatzen zitzaion galdetu nion emakumeari. «Ñaka-ñakan ari ginen deitu diguzunean», erantzun zuen. Aitorpenetik ateratako bi ondorio. Lehena: hark gustukoa zuela siestan sexu harremanak izatea. Bigarrena: telefonoak jotzen bazuen, kapaza zela pertsonen artean denik eta kontaktu pertsonal eta estuena hausteko.

Hiru hamarkada geroago, joera horiek ez dira aldatu. Vodafonek Erresuma Batuan egindako inkestaren emaitzek horixe frogatu dute. Telefono konpainiaren datuen arabera, hiru gizonetik batek (%36k) sakelakoaren deia erantzuten du larrutan egiten duen bitartean. Telefono kontuan britainiarrek ez omen dute atsedetik hartzen jarduten dutenean. Komunean deiak erantzuten dituztenen portzentajea handiagoa da: bertan egonez gero, %62k telefonoari erantzungo lieke inolako erreparorik gabe.

Komuneko telefono hizketaldien kasua ederki islatzen da Jet Lag filmean. Juliette Binochek hartu behar duen hegazkinaren irteera atzeratu egin da, eta emakumea zain dago aireportuan. Komunera joan da, eta dei bat jaso du. Tronuan eserita dago, eta hortxe hasi da kontu kontari. Jaiki, eta hizketan segitu du, telefonoa sandwich bat eginda lepoaren eta belarriaren artean, kuleroak igotzen ari den bitartean. Baina Binoche ez da malabarista ona, eta sakelakoa komun barrura erori zaio. Ondorioz, telefonoa eskatu behar izan dio Jean Reno gizon ezezagunari, deiak egiteko. Reno ere hegazkinaren zain dago...

Komunetik kanpo ez ezik, barrutik ere SMSak bidaltzearen arrazoia azaldu zuen uztailean The New York Times egunkariak. Adituek artikuluan esan zutenenez, teknologia berriak erabiltzeak plazerra sortzen du. Dopamina nahi dugu, ongizatearen sententzioa. Horrek menpekotasuna dakar, edozein drogak bezala. Izan ere, sariaren ibilbidea sortzen du dopaminak, eta guk sari hori nahi dugu.

Sakelako telefonoek geure buruari eragiten diotela uste du Jean-Philippe Lachaux neurozientzietako ikertzaileak. Le Figaro egunkarian idatzi duenez, smartphone-ek orain arte ezagutu ez dituen egoeretan jartzen dute garuna. Lachauxen arabera, hainbat euskarri eta modutan heldutako informazio jarioa handia da oso eta, azkenean, smartphone-ek arreta defizita sortzen dute: gure batez besteko arreta denbora 12 minututik 5 segundora jaitsi da azken hamar urteotan.

Arreta eskasa; errespetua eskasagoa. Nola definitu, bestela, eskuko telefonoaren soinuari kasu egitea erlazio sexualak ditugun bitartean? Joera areagotu egin da eskuko telefonoekin, baina ez da oraingoa. Ezaguna da txiste zaharra: senar-emazteak ohean, gauaren erdian. Telefonoak jo du. Andrea kolpetik altxatu da. «Ez hartu, ez hartu», esan du gizonak. Baietz emazteak. «Baina niretzat bada, esan ez nagoela hemen», eskatu dio senarrak, etsita. Emakumeak telefonoa erantzun du. «Bai, hemen dago». «Nola...? Hemen nagoela esan diozu, tuntun horrek?», gizonak, bere onetik aterata. «Niretzat zen», erantzun du emakumeak.

Ohean, hobe telefonoa ahaztea. Zer esanik ez, konpainian egonez gero. Komunetik SMSak bidaltzea edo ez, higiene kontua da. Baina kontuz ibiliz gero, ez da larrutaldian telefonoa erantzutea bezain arriskutsua. Nahikoa da besteari ez esatea mezuak nondik bidaltzen dizkiozun. Gainera, sorpresatxoren bat izan daiteke. Binochek telefonoa komunean behera galdu ondoren ezagutu du Reno, filmean zortzi hilabete haragi freskoa dastatu gabe dagoena. Horixe erantzun du gizonak emakumeak galdetu dionean atzamarrak telefonoko teklak baino leku samurragorik ukitzeko erabili ote dituen azkenaldian. Binochek gizonaren telefonoari begiratu dio, baina ez da ausartu galdetzera ohean deirik erantzuten duen. Reno ez da britainiarra, eta zalantzaren onura eman dio.

# Cuenca espainiartzen

2012ko urriak 13

Ondorengotza gerra irabazi eta gero, Filipe V.a Borboikoak Decretos de Nueva Planta izeneko legeak ezarri zituen. Lege horien artean Katalunian espainiera inposatzeko araua zegoen. Horren ondorioz, katalanak administrazio publikoko hizkuntza izateari utzi zion. Geroztik, gaztelera derrigorrezkoa izango zen eskoletan eta epaitegietan. Katalana leku publikoetatik ezabatzeko, Vivancoko abadeak, Gaztelako Kontseiluko idazkariak, isileko argibideak eman zizkien Kataluniako korrejidoreei: «Ahalegin handienak egingo dira Gaztelako hizkuntza sartzeko, erabaki eztitu eta disimulatuen bidez, helburua lortzeko ahaleginak nabaritu gabe». Gomendioa argia zen: gaztelera, aukeran, modu gozoan inposatzea, inor ez konturatzeko moduan.

Katalanak espainiaritu nahi zituen Vivancoko abadeak, eta espainiera inposatu zuen horretarako. Hala ere, badirudi ez zuela helburua lortu. Kataluniako umeak espainiaritu beharra omen dago oraindik. Espainiako gobernuak ikasle katalanak «espainiaritu» egin nahi dituela adierazi du Espainiako Hezkuntza ministro Jose Ignacio Wertek, horrela Kataluniako ume eta gazteak «harro» egon daitezen katalanak eta espainolak izateaz. Espizitoki soilik Kataluniako ikasleak aipatu baditu ere, Euskal Herriko eta Galiziako ikasleak ere izango zituen gogoan Wertek. Ministroak, ordea, ez du azaldu Cuencako edo Toledoko umeak espainiartzeko asmorik ote duen. Halakorik ez du esango,ez horixe. Izan ere, Espainiak ez ditu ume horiek espainiaritu behar. Umeak espainiarrak dira.

Francoren garaiko espirtu nazionalaren kutsua darie Werten adierazpenei. Eta inpotentzia: Kataluniari buruz esan duenak argi uzten du Espainiaren porrota, Espainiaren inpotentzia, bere mugen barruko lurraldean bizi diren nazioak eta herritarrak espainiartzeko. Madrilgo, Kataluniako eta Euskal Herriko unionistek behin eta berriro aipatzen dute «nazionalismoen porrota», katalanek edo euskaldunek eraikuntza nazionalaren alde egiten dituzten saio guztiak arbuiaitzeko. Porrota, ordea, haien nazionalismoarena da. Ministroak, gobernuak eta Espainia handi hartaz amets egiten duten guztiak hauxe galdetu beharko liokete euren buruari:

zer egin duten txarto ikasle katalan eta euskaldun askok euren burua espainiarizat ez jotzeko, edo espainiarrak ez sentitzeko beraiek nahi luketen moduan?

Porrot handiena nazionalista katalanak —edo euskaldunak— ez diren nazionalisten porrota dugu. Nazionalismoaren porrot handiena Espainiarena izan da: mendeak pasatu dira batasuna ezpataz eta odolez inposatu zuenetik eta Espainiak ez du lortu bere menpeko herritar guztiak proiektu espainiarrarekin identifikatzea. Espainiak lurralde batasuna lortu du, baina ezin izan du denbora luze horretan batasun afektiboa lortu. Espainiak neurri guztiak izan ditu eskura: legea, inposizioa, indarra, politika sozial eta ekonomikoak, hezkuntza sistema ... baina ez du lortu periferiako herritarrak guztiz espainiaritzea. Norena da porrota? Legea eta indarra eskuetan izan arren, espainiaritze hori ezartzea lortu ez dutenena ala azken mendeetan — Euskal Herrian 1512tik— ahal izan duten moduan oraindik bizirik irautea lortu dutenena?

Vivancoko abadearen garaietatik 300 urte pasatu dira, baina Madrilek ez ditu Katalunia eta Euskal Herria guztiz espainiaritu. Felipe V.a Espainiakoak agindu eta hiru mendera Borboikoak ez dira oso maitatuak erresumako paraje guztietan. Espainiak, badaezpada ere, kode penala aldatu du eta biziarteko kartzela zigorra ezarri du magnizidio kasuetan. Disuasio-neurri honek fruituak eman ditu, antza: katalan batzuek Espainiako erregearen karikatura bati tiro egitearekin konformatu beharko dute. Horretan agertu dira aste honetan Kataluniako telebista publikoko programa batean. Beraz, Felipe VI.a Borboikoa izango da hurrengo Espainiako erregea. Ezusterik ez badago, noski.

# Emmanuelle

2012ko urriak 20

Erresuma Batua Europako Ekonomia Erkidegoan sartu zenean, Francoren diktadurako 34. urtean zegoen Espainia. Urte hartan, petrolioaren salmenta eten zieten estatu arabiarrek AEBei eta Europa Mendebaldeko estatuei, haiek Yom Kippur Gerran Israelen alde egiteagatik. Lehen petrolio krisia ekarri zuen erabakiak eta, horrekin batera, Mendebaldeko ongizate gizartearen gainbehera. Urte hartan, hilabete batzuk geroago, ETAk Luis Carrero Blanco hil zuen, diktadorearen oinordekoa.

Espainia artean diktadura zen urte hartatik izan da Eskozia Europako erakundeetan. Eskozia, baina, independentea izan liteke bi urte barru. Aste honetan Edinburgok eta Londresek akordioa sinatu dute bertako herritarrek independentziari buruz erabakitzeko aukera izan dezaten. David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroak asteartean esan zuenez, hark ez du nahi Erresuma Batua zatitu: «Erresuma Batuari eutsi zion lehen ministroa izan nahi dut». Espainiar askori kontraesankorra irudituko zaie Cameronen jarrera: ezin ulertu Erresuma Batuari eutsi nahi eta eskoziarrei bereizteko aukera ematea. Batasunaren dogma dute ikur, Erdi Aroko gerretan errota. Trueno kapitainaren komikietan segitzen dute, Santiago y cierra España leloa ahoan. Ez dakite herrien nahiak errespetatuz gero errazago lor daitezkeela denen arteko akordioak. Politikaren cromagnonak dira.

Erresuma Batuan subiranotasuna herri britainiarrean datza, eta soilik Londresek du erreferendumak egiteko eskubidea. Hala ere, Cameronek Eskoziaren esku utzi du ahalmen hori behin-behinekoan, eskoziarrek erabakitzeko eskubidea izan dezaten. Ez du mehatxurik egin haien aurka. Bestalde, Londresko herritar askok Erresuma Batuko zatitzat sentitzen dute Eskozia, baina ez dira kalera atera bandera britainiarrak eskuan. Ez dute Eskoziako gizartea bahitu nahi. Espainian bestelakoa da kontua. Madrilgo egunkari batek argitaratu duenez, hamar espainiarretik bat baino ez dago autodeterminazio eskubidearen alde. Espainiako herritar guztiak autodeterminazioaren aldekoak izan arte zain egon beharko dugu geure nahia mehatxurik gabe gauzatu ahal izateko?

Eskoziako erreferenduma egiten denean, nekez argudiatuko du Espainiak European halako bozketek ez dutela lekurik. Are zailago izango du independentzia nagusituz gero. Eskoziako gobernuburu Alex Salmondek esan du ez duela onartuko Eskozia independentea EBtik kanpo geratzea, bertan 40 urte egon eta gero. Teorian hala dela badirudi ere, ez dago guztiz argi EBko estatu kide batetik sortutako estatu berri bat automatikoki Batasunetik kanpo geratzen ote den. Bestela, Espainiak ez zion Bruselari eskatuko hori berehala argitzeko, Kataluniaren erronka gogoan. Esanguratsua da borroka armatua izan den bitartean Madrilek ez diola inoiz eskatu EBri halakorik azaltzeko. Nahikoa izan du edozein asmo independentistari terrorista deitzearekin. Gizarte oso bat mugitzen hasi denean, ordea, argibideak eskatzen hasi da, kezkatuta.

Eskozian independentzia nagusituko balitz, Espainiak ez luke irtenbide errazik izango. Kosovoren independentzia ez onartzea gauza bat da, baina Europa demokratikoaren muinean egindako bozketa baten emaitza arbuiatzea, beste bat. Nazioarteko komunitateak ez luke ulertuko, eta Espainia ipurdia agerian geratuko litzateke. Eta behin independentzia onartuta, zer esango luke Madrilek Eskozia EBn berriro sartzearen aurka? Espainia zuzenean aipatu ez bazuen ere, Salmondek mezua bidali zuen duela gutxi. Hark adierazi zuenez, ez du onartuko EBren barruan Eskoziak baino denbora laburragoa daramatenek baldintzatzea bere herrialdearen etorkizuna. Eskozia, Salmondek esana, 1973tik dagoelako EBn. 1973a: Espainian artean diktadura politikoa zegoen urtea. 1973a: petrolioaren krisia piztu zen urtea. 1973a: Sylvia Kristelek, 21 urteko holandarrak, Miss TV Europa saria irabazi zuen urtea.

## Barcinaren aitona

2012ko urriak 27

Yo ya no soy vasca, pero mi abuelo sí que era vasco. ¡Hablaban un vasco más cantarín!». Hitz horiekin, eta penaz, mintzatu zitzaigun behin, Eugin, lagun nafar baten ama, euskaraz ez zekiela azaltzean. Andreak Esteribarko Ibarrekoak zituen arbaso guztiak; abizenak ere euskaldunak eta, hala ere, no vasca-tzat jotzen zuen bere burua. Ez zekien euskaraz, ez zen euskalduna, ergo ez zen vasca.

Emakume hura ez zen bereziki abertzalea, baina modu naturalean eusten zion antzinako euskaldunen hizkuntz komunitatearen kontzeptuari: argi zuen euskararik gabe ez zela vasca. Haren ustez, vasco izatea euskalduna izatea zen, hizkuntzaren jabe izatea. Gutako askoren ustez, guztiz ilogikoa da hori: haren aitona-amonak vascos baldin baziren, eta gurasoak ere Esteribarkoak bazituen, zergatik ez zen izango bera, ba, vasca? Jadanik euskalduna ez zelako. Haren ustez, ilogikoa gurea izango zen: batek bere buruari vasco deitzea, euskaraz jakin gabe, hau, da euskalduna izan gabe.

Euskaradunak eta beste neologismo horiek geroko belaunaldiek asmatuko genituen, gizabanakoaren arloan euskalduna eta vasco hitzak berdindu genituenean, hizkuntzaren eremuan. Galdera honi erantzun beharrean izan ginenean: orduan denak bagara euskaldunak —baita euskal herritar erdaldunak ere—, nola deituko diegu, ba, euskaraz dakitenei? Eta baten bati zorioneko hitza bururatu zitzaion: euskaradunak. Ez zuen ezer berririk aurkitu, euskaradunak euskara dutenak baitira. Euskaldunak, azken batean. Ez zuen ezer berririk aurkitu, baina egungo joera egiten lagundu zuen: gaur euskaraz ez dakien euskal herritar batek «yo soy euskaldún» esan dezake lasai asko. Mutur batetik beste batera pasatu gara. Emakume nafar haren arabera, euskaraz ez zekiena ez zen vasco. Orain, gero eta lagun gehiagoren ustez, pertsona bat euskaraz jakin gabe ere da euskalduna.

Nafarroan, onerako edo txarrerako, inon baino hobeto lotu zaio euskalduntasunaren kontzeptua hizkuntzaren ezagutzari. Eugiko andre hura dugu adibide. Gure EAE euskotarrean beste era batera estali izan ditugu geure gabeziak: «Yo no, pero mi aitite sí que sabía euskera,

lo que pasa es que lo perdió cuando vino del baserri a Bilbao, con tanto maketo al lao». Nafarroan inon baino argiago ikusi da hizkuntza desagertzeak herri baten nortasunari egiten dion kaltea, eta hori erabili dute espainiaritzeko. Ekuazioa argia da: euskara ezabatu eta euskaldun edo vasco-en komunitateko kidea izatearen sentimendua ere joango da. Mendeetako politika izan da Nafarroan. Egun bere horretan dirau politika horrek.

Aste honetan euskara, lingua navarrorum hura, sustatu egin behar duela gogorarazi behar izan diote Nafarroako Gobernuari Europatik. Berriro. Nafarroako euskaldunen eskubideak errespetatu, eguneroko bizitzaren arlo guztietan. Zenbait nafar espainol eskuindarrek, hala ere, kasurik ez. Haientzat, jasan beharreko anomalia da euskara, eta euskaldunak, herritar negarti nekagarriak, beti kexatzen ari direnak: «Ya no les clavamos el compás en la lengua cuando hablan vascuence en la escuela, y encima se quejan...». Bai, beste garai batean bizi gara: ez gaude 70eko hamarkadan eta Urdiaingo umeak hobeto moldatzen dira orain erdaraz. Eta ez EITBri esker, prezisamente...

Europari erantzunez, Barcina andereak atzo bertan esan zuen Euskal Telebista Nafarroan ikusi ahal izateak dakarren kostua Eusko Jaurlaritzak ordaindu behar duela. Eta Euskalerrria irratia lizentziarik gabe egotea ez dela ilegala. Zer da legezkoa? Zugarramurdiko kobazuloetako azken bazterretan Radio Maria Euskalerrria irratia baino hobeto entzutea legezkoa izango da, haien ustez. Morala ere badela pentsatuko du batek baino gehiagok: hobe antzinako akelarretan lizunkerian jarduten zuten basapiztien ondorengoek belarriak moral katoliko estuenaren dotrinaz zapaltzea, haien arbasoen mintzairaren soinuaz gozatzea baino.

Zer hizkuntzatan kantatzen zuen Barcinaren aitonak?



# Obama zuria balitz

2012ko azaroak 3

Aulkian eserita dago gaztea; haren ondoan, zutik, aurkezlea. Aitorrek neska-laguna, haren koinata eta anaia ditu aurrean. Telebistako lehiaketako galderak inozoak dira hasieran, baina, denbora aurrera joan ahala, gero eta kontu intimoagoak azaleratzen dituzte. Aitorren erantzunek lagun eta senideen arteko harremanei kalte egin diezaiekete, baina horrek ez dio ardura. Saria dago tartean, dirua. Horixe da garrantzitsuen.

Galderak eta erantzunak Aitorren soslai psikologikoa marrazten hasi dira: gaztea oraindik mintzen da eskolan esaten zizkioten ezizenak gogoratzen dituenean; lotsatu egiten da preserbatiboak eroatera doanean... Galderak gero eta zorrotzagoak dira, eta parte hartzailearen barrena biluzten dute. Esaterako: zure neska-lagunari buruz duzun iritzia txartu egingo litzateke jakingo bazenu hark beste maitale edo ohaiderik izan duela? Bai, Aitorrek txarto hartuko luke hori.

Betiko kontua: gizona hamaika emakumerekin oheratzen da eta Giacomo Casanova da. Emakumeak beste horrenbeste egin, eta akabo koplak. Estigmatizatuta. Gizon horrek ezin du onartu orain berarekin dagoen emakumeak hark adina maitale izan dituela. Beste gizon batekin berarekin baino gehiago gozatu duela pentsatzeak berak sumindu egiten du. Manzanitari jeloskorra ote zen galdetu zioten behin. Kantautore flamenkoaren erantzuna: «Batzuetan amets egiten dut andreak engainatu egiten nauela; gauaren erdian esnatzen naiz, sutan, eta ohean bertan jipoitzen dut». Verde, que te quiero verde ...

Ez da hor amaitu galdera sorta. Aitor ondo erantzuten ari da, eta lehiaketako bigarren fasera pasatu da. Uste duzu emakume zuriak emakume beltzak baino azkarragoak, buruargiagoak direla? Gazteak apur bat pentsatu du, isilik, eta serio erantzun: bai. Erantzuna iraingarria da emakume beltzentzat. Galdera are iraingarriagoa da, emakume guztiak jotzen dituelako; arrazista eta matxista delako —bi termino horiek gehienetan lotuta datoz, ezinbestean—. Aurkezleak ez dio galdetu zuriak —orokorrean, gizon zein emakume— beltzak baino argiagoak diren. Duda hori gizonezkoen arloan egiteak ez luke oinarririk. Emakumeei buruz,

ordea, badago galdetzea. Emakume zuriak emakume beltzak baino argiagoak dira? Zer uste du Aitorrek? Baietz.

Ikusteko dago gazteak zer erantzungo zion gizon zuriak gizon beltzak baino argiagoak ote diren galderari. Edo emakume zuriak gizon beltzak baino azkarragoak ote diren. Zurien nagusitasuna soilik emakumeen artean gertatzen dela uste du Aitorrek ala gizon zuriak gizon beltzak baino argiagoak direla ere pentsatzen du? XXI. mendean halako pentsaera arrazista izango du parte hartzaileak? Ku Klux Klanen posterra du etxean, zuri supremazisten aldeko apologia egiteko?

Sexurako gizon beltzak beste arraza batekoak baino «hobeto hornituta» dauden galdetu diote Aitorri. Bai. Eta emakume beltzak zuriak baino «hobeto hornituta» daude? Ez diote halakorik galdetu. Nolakoa da emakume beltzen fisiologia? Emakume zuriek baino klitori askoz handiagoa dute? Gai dira plazer handiagoa hartzeko eta emateko? Asko hitz egiten da beltzen zakil erraldoiei buruz, baina beltzen klitori erraldoiei buruz? Ein? Zerbait esan zuen horretaz Hitek? Eta Kinseyk? Ez dakigu ezer emakume beltzez. Gizon beltzek, behintzat, larrutan egiteko balio dute; emakumeek, ezta horretarako ere.

Aitor estatubatuarra balitz, agian botoa emango lioke Obama gizon beltzari, baina ez Michelle LaVaughn Robinson Obama emakume beltzari. Hura zuria balitz, agian bai; baina beltza da. Eta emakumea. AEBetan milioika emakume daude, hura baino askoz azkarragoak, denak zuriak. Eta beltzen artean, baliteke Obama anderea azkarrena ez izatea. Baina Aitor ez da estatubatuarra, eta ezin izango du asteartean AEBetako bozetan parte hartu. Aitor Euskal Herrian jaio zen, baina orain Bartzelonan bizi da. Beltza da.

# Patuak

2012ko azaroak 10

Duela hogei urte, AEBetako lehendakaria aukeratzeko hauteskundeetan, Arkansasko gobernadorea izandako politikari bat izan zuen aurrez aurre George Bush presidenteak, Azoreetako argazkiaren bultzatzaile nagusiaren aitak. Kanpaina bitartean, Bush aitak aurkariaren kontra erabilitako argudioetako bat hauxe izan zen: aurkaria familia desegituratu batean hazitakoa zen eta, horren ondorioz, ez zen gai AEBetako presidentea izateko. «Zer espero daiteke halako pertsona batengandik?», iradoki zuen. Bozak, baina, hautagai demokratik irabazi zituen. Presidente hark zortzi urte eman zituen agintean. Egun, Bill Clinton dugu maitatuena bizirik dauden AEBetako lehendakari ohien artean. Familia desegituratutako bateko semea Bush aita-semeak baino gogokoagoa dute estatubatuarrek.

Clinton, berez, William Jefferson Blythe izenaz jaio zen. Aita bera jaio baino hiru hilabete lehenago hil zen auto istripuz. Amak aitona-amonen eskuetan utzi zuen umea, Arkansasen, eta erizaintza ikastera joan zen New Orleansera. Handik bost urtera herrira itzuli eta Roger Clintonekin ezkondu zen. Harekin seme bat izan zuen, Bill Clintonen haurriderdia. Clintonek aitaordearen abizena hartu zuen 15 urte zituenean. Aitaordea alkoholikoa zen, jokalaria, eta ama eta anaierdia jotzen zituen. Bill gazteak aitaordea mehatxatu behar izan zuen behin baino gehiagotan, ama eta umea defendatzeko.

Familia desegituratu batean jaio zen Clinton, eta hori arma moduan erabili zuen Bush aitak 1992ko hauteskunde kanpaina, hura gutxietsi nahian. Errepublikano atzerakoienek larrutu egin zuten politikari demokrata, haren haurtzaroaren berri izan eta gero. Aitaordea alkoholikoa zen eta etxeakoak jipoitzen zituen. Hori nahikoa zen gazte umezurtza aldeztu aurretik kondenatzeko. Ez zen familia, etxe eredu garri batean hazia. Nolaz izango zen gai, ba, horri guztiari buelta emateko eta, gainera, AEBetako presidentea izateko?

Hogei urte pasatu dira geroztik, eta errepublikanoek familiaren irudi idiliko kontserbadoreari eutsi diote hauteskunde kanpaina. Familia tradizionalaren balioak aldarrikatu dituzte Mitt Romney goratzeko. «Bost seme-alaba aurrera ateratzeko gai izan den gizona gai da

Ameriketako Estatu Batuak aurrera ateratzeko», adierazi dute kanpainan. Ez dute esan hautagaiak eta emazteak inoiz antisorgailurik erabili ez dutenik, ez dira hain urrun joan, baina... Bost seme-alaba izan dituen gai da presidentea izateko, horixe! Ondo egituratutako familia batean jaio eta hazi bada eta gizartean ondo txertatutako persona badugu, noski. Bestela, hautsitako familia baten semea edo alaba bada, moralista hipokriten aurreiritzien biktima izango da.

Ez da erraza bost-seme alaba aurrera ateratzea, ez; erantzukizun handia da arlo guztietatik. Bi alaba aurrera ateratzea ez da askoz errazagoa, baina. Batez ere, bi neska horien erroak familia desegituratu batean eta gutxiengo etniko baztertu batean daudenean. 1850. urtean Hego Carolinako jauntxo zahar batek testamentua utzi zuen hil baino lehen. Banatutako ondasunen artean 6 urteko neskato beltz bat zegoen. Neskato horrek, Melvinia beltzak, 475 dolarreko balioa zuen. Jabea hil eta gero, umea hara eta hona ibili zen, eta Georgiara joan zen. Han, artean nerabea zela, haurdun utzi zuen gizon zuri batek, AEBetako gerra zibilaren garaian. Handik mende batera jaio zen Michelle Obama.

Zenbait kristau integristaren arabera, basati baten bortxaketaren ondorioz jaiotako ume bat maitagarria da, jainkoaren nahiaren fruitua baita. Familia desegituratu baten semea edo alaba, berriz, ez da maitagarria, ez fidagarria. Are gutxiago AEBetako presidentea izateko.

## Londres, 1812

2012ko azaroak 17

Anthony Burgessen ipuin bat irakurriz jakin nuen, oker ez banago, etxerik gabekoentzako aterpe berezi baten berri. Industri iraultzaren osteko Ingalaterran, XIX. mende hasierako Londres lainotsu hartan, negozioa egiten zuten gaua non pasatu ez zuten txiroekin. Penike bat edo horren erdia pagatuta epeletan lo egiteko aukera zuen jende hark, gela edo soto batean. Hantxe, eserleku batzuetan jarrita edo zutik, besterik gabe. Horretarako, soka lodia jartzen zuten etxearen jabeak gelako alde batetik bestera, ondo tenkatuta. Txiroak besoak tolestatu eta sokaren gainean jartzen zituen, gero burua jaitsi, makurtu eta hantxe paratzeko, hezur-haragizko burkoaren gainean. Sokari eutsita, ia itsatsita egiten zuten lo. Jabeak goizean goiz esnatzen zituen apopiloak, iratzargailu krudel baten soinu sikuaz: soka kolpetik askatu eta lo gozoan zegoen jendea airean geratu eta plaut! erortzen zen lurrera. Londres pobre hartan gauero puskatutako ametsak puskatzen zitzaizkion goizero etxe gabekoari, baita muturrak ere, deskuidatuz gero.

Bi mende geroago, eta besterik ezean, sotoko sokaren sistema baliagarria izan liteke etxe kaleratzeen ondorioz aterperik gabe geratzen direnak babesteko. Ingalaterrako garai kapitalista gordinenetan bezala babestu ere. Batez ere orain, negu gorriaren atarian gauden honetan. Lehman Brothers Holdings erakundearen finantza terrorismoak eragindako krisiaren ondorioei aurre egiteko zenbait neurri onartu ditu Espainiak. Madrilek ez du aldatu abusuak ahalbidetzen dituen legea; gehienez ere horren aplikazioa etetea onartu du, kaleratzeak kasu larrienenetan saiheste aldera. Hala ere, hain zuhur eta zikoitz jokatu du, non benetan kaltetutako jende asko eta asko eremu horretatik kanpo geratuko den.

Esaterako: seme-alaba txikiak dituzten familiak zaindu nahi omen dituzte arau berriek, bestek beste. Hiru urtez beherako umea duten familiak ez dituzte, printzipioz, etxetik kanporatuko. Ez da oso logikoa umeen babesgabetasuna baloratzeko modua. Haurrak hiru urte baino gutxiago baditu, gurasoak etxean geratuko dira; hiru urte baino gehiago izanez gero, aldiz, ez. Kale gorrira. Zer alde dago hiru urteko eta lau urteko umeen artean? Hamabi hilabeteko tartea — edo, denbora errealean, sei aste edo hiru eguneko aldea, batek daki— erabakigarria izan

daiteke familia osoa kalera botatzeko ala ez. Arau horri segituta, lau urteko ume bat kalean egongo da, gurasoak hipoteka ordaindu ezinean egonez gero. Haren bizilagun edo lehengusuak, hiru urte betetzear dituenak, aldiz, etxean segituko du puska batean. Neurria ez da justua, ez da logikoa. Edo bai, logika krudela du: hiru urte baino gehiagoko umeek badakite oinez ibiltzen. Kanporatzea homologarria da, beraz. Bestela, ez: oso irudi eskas eta gupidagabea da argazki edo bideo grabazio batean etxe kanporatze bat islatzea, kontzientzia eragozpenik egiten ez duen polizia aita edo ama bat kolpatzen, hark umea besoetan duen bitartean. Hiru urte baino gehiagoko umea, ostera, gai da zutik egoteko eta, behar izanez gero, satora joan eta sokaren gainean lo egiteko. Industri iraultzaren osteko Londres lainotsuko garai kapitalista gordinenetan bezala.

Lagun bat dut, Bizkaiko herri handi batean udaltzaina. Duela urte asko, polizia lanetan hasi berria zela, eta artean halako etxe kaleratzeak pil-pilean ez zeuden garaian, etxe batera joan behar izan zuen. Zertara eta bertakoak kanpora botatzera. Etxekoek irten nahi ez, eta nagusiak borrak erabiltzeko esan zion. «Ni ez nintzen udaltzain sartu hau egiteko», esan zion lagunak, xalo-xalo, sarjentuari. «Zuk hemen neuk agintzen dudana egin beharko duzu, bestela badakizu...», erantzun zion besteak. Laguna ezkondu berria zen, hipotekaren zama hartua. Andrea haurdun zegoen. Egun udaltzain segitzen du.

# Merezitako tiroak

2012ko azaroak 24

Merezi zuen Francok tiroz hiltzea? Hala hil balute, terrorismoaren biktimen artean egongo zen gaur? Biktimen gaia hizpide izan da aste honetan. Batetik, Eusko Legebiltzarreko batzordeak estatuaren indarkeriaren lehen biktimak aitortu ditu. Bestetik, Fernando Barrena Ernest Lluch en alaba Rosarekin izan da Bartzelonan, ETAk hildako politikari katalana omentzeko eratu duten hitzaldi sortan. Biktimen mina handitzeko asmorik ez zutela adierazi du Barrenak ekitaldian. «Sentitzen dugu», esan dio Lluch en alabari.

Fernando Barrena eta Rosa Lluch elkarrekin agertu dira egunkarietako argazkietan. Irudiak garrantzi handia dauka, eta sinbolismotik haratago doa: Lluch en alabak aurrera begiratu beharra aipatu du, eta elkarrizketaren bidea nabarmendu. Beste aldetik, egindako mina aitortu du Barrenak. Pauso garrantzitsua normalizaziorantzko bide luze eta latzean.

Bestalde, Sufrimendu Bidegabeen Biktimen Balorazio Batzordeak zortzi kasu onartu ditu estatuaren indarkeriaren biktima gisa. Horien artean Txiki eta Otaegi daude. AVT Terrorismoaren Biktimen Elkarteak neurri hori baliogabetzeko eskatu dio Espainiako Gobernuari. Jaurlaritzaren saioak garai jakin bat hartu du lehendabizi, 1960tik 1978ra artekoa. Hurrengoan, 1978tik aurrerako kasuak aztertuko ditu batzordeak.

Nabarmentzekoa da indarkeria kasuak bereizteko ezarritako terminologia. Kasu batean eta bestean erabilitako hitzak ez dira berdinak. ETAk frankismoan edo geroago inor hil duenean hilketa deitu izan zaio ekintza horri. Beste kasuetan indarkeria politikoa da; areago, «poliziaren gehiegikeriak». Pertsona bat tiroz hiltzeari hilketa deitzen zaio. Nola deitu beharko zaio lehertu arte hamar egunean sadikoki torturatu eta hil dutenen ekintzari? «Poliziaren gehiegikeriak»? Ildo horretan, nola deitu urteetan torturatuzaileen zigorgabetasuna babestu duen sistemari?

Jose Mujica, Uruguaiako egungo presidentea, argi mintzatu zen horren harira Jesus Quinterok duela urte batzuk egin zion elkarrizketan. Kazetari espainiarrak galdetu zion ea zer iruditzen

zitzaion nazioarteko justizia Augusto Pinocheti jazarri izana. Mujicak argi esan zuen: «Hobe Pinochet tirokatuta hil balitz». Arrazoia argudiatu zuen: «Filosofikoki heriotza zigorraren kontra nago, baina agian dozena erdi kasu egongo dira ondo merezi dutenak. Horixe da horietako bat». Quinterok Garzoni buruz zer pentsatzen zuen galdetu zion orduan Mujicari. Politikariak ironia zorrotzez erantzun zuen: «Epaile bikaina da. Bere begien aurrean torturatu ilara pasatzen uzten du eta ez ditu torturatuak ikusten, eta ez du ikusten zenbat hiltzaile dagoen libre Espainian. Eta beste leku batzuetan dauden hiltzaileak bilatzen hasten da».

Ikusi nahi ez duenak ez du ezer ikusiko. Bere sufrimendua besterik kontuan hartzen ez duenak ez du enpatiarik sentituko besteeikiko. Halakoxea da zenbait biktimaren jarrera. Gerardo Iglesiasek, 80ko urteetan PCE Espainiako Alderdi Komunistako idazkari nagusia izan zenak, horien kontraesana nabarmendu du Bartzelonako egunkari batean argitaratutako elkarrizketan: «Paradoxikoa da ETAREN kasuan zenbait biktimaren jarrera. Horietako askok ETAREN indarkeria ez ahazteko esaten dute, baina frankismoaren krimenak ikertzeko esaten dietenean, orduan, bai, ahaztea komeni da, etorkizunera begiratu behar dugu».

Denok dugu oroitzeko eskubidea. Oroimen horri nola atxiki da kontua eta, batez ere, zertarako. Biktima batzuei mina, haserrea eta gorrotoa publikoki adierazteko eskubidea onartzen zaie. Alta, zer gertatuko litzateke Espainiako edo Hego Euskal Herriko politikari batek esango balu Francok ohean barik ondo merezitako tiroak jasota hil beharko zuela? Areago: zenbat politikari ausartuko litzateke gaur, ustezko zuzentasun politikoa baztertuta, hori kazetari baten aurrean esatera? Uruguaiako presidentea izan behar da horretarako?



# Enkantea Parisen

2012ko abenduak 1

«Hilaren 22an, goizeko hiruretan, Kremlin lehertuko dut». Napoleonek Errusiako kanpaina bukatzeko asmoaren berri eman zien gutun zifratu batean Parisko agintariei. Azkenean ez zuen garaipena lortu, baina. Errusiako hondamendia haren gainbeheraren hasiera izan zen. Korsikarrak, frantsesez ondo moldatzen ez zenak, Hexagonoko populazioaren hamarrena sakrifikatu zuen bere gerra jokoetan: hogei milioi lagun bizi ziren orduan Frantziako mugen barruan eta bi milioi hil ziren horien ondorioz. Hala ere, Napoleon ohorezko lekuan gordetzen du Frantziako historia ofizialak.

Gerra, nazioaren handitasuna eta dirdira pizteko. Joan Daniel Bezonoff idazle katalanak esan zuen elkarrizketa batean XIX. eta XX. mendeetan Alemaniaren kontra izandako hiru gerrek hezkuntza sistemak baino eragin handiagoa izan dutela Hexagonoko herritarrak batzeko. Frantziaren barruko nazioetako herritarrek Errepublikaren defentsan jarduten zuten bakoitzean pauso bat gehiago ematen zen haien batasun afektiboaren prozesuan. Eskolak oinarri horiek erabili zituen gero sentimenduak errotzeko.

Les amnésies de Déu (Jainkoaren amnesiak) liburuaren egilearen arabera, prusiarren kontrako gerran eta, batez ere, Lehen Mundu Gerrako lubakietan mamitu zen oraingo Frantzia, hainbat herritarren gogo batua, haien asimilazioa: Sedango edo Verdungo batailetan elkartutako gizonek apenas zuten ezer komunean: euren herriak urrun zeuden, euren bizimodua eta kultura ere bai. Guztiek ez zekiten frantsesez, eta lehen aldiz ateratzen ziren herritik: katalanak, bretoiak, euskaldunak... bandera beraren atzean zeuden, sufrimenduan elkarturik. Ezin zuten elkarrekin behar bezala komunikatu; batzuetan, hitzen ordeztuak, oihuak, negarrak eta barreak ziren haien komunikazio zeinuak. Begirada kedartsuetan lohitutako isilaldiak. Gero, gerra bukatu eta etxera itzultzean, oroitzapen haiekin biziko ziren hil artean. Halaxe sortu zuen Frantziak herritar horientzako aberria. Gizon haiek bazekiten euren herrietatik harago bazeudela beste gizon batzuk, beraiek bezain xumeak, haiek bezala ideal baten alde borrokatutakoak. Elkar ezagutu zuten gerran. Horrexek batzen zituen denak.

Perpinyan jaioa da Bezsonoff, Ipar Katalunian. Aitona errusiarra zuen. Aste honetan ekimen bat aurkeztu du Ipar Kataluniako hainbat eragilerekin batera, Katalunia bizitzen ari den egoera politiko berezia Frantzian ezagutarazteko. Independentismoaren berri eman eta hedabideak, herritarrak eta agintariak nolabait sentzibilizatzeko. Ekimena Oliba kolektiboak bultzatu du. Frantziarrak apur bat ezagututa, ez da lan erraza izango haiek limurtzea. Baliteke kanpoko errealitate bat aitortzea —Katalunia— barrukoa aitortu barik —Ipar Katalunia edo Ipar Euskal Herria kasu—. Edo, baikorrak izanez gero, hauxe gertatuko dela irudikatzea: kanpoko aitortzeak barrukoa ere aitortzea ekar lezakeela. Hala ere, bada arrazoirik errealistak izateko. Erreparatu, bestela, Parisek nola begiratzen dion Euskal Herrian hasitako prozesuari eta hark administratutako Euskal Herrian daraman politikari. Napoleonen garaietatik gaur arte, Frantziak ez du aise onartzen 1789ko iraultzaren ondoren sortutako egituraketa administratiboa aldatzeko proposamenik.

Katalanak, euskaldunok eta besteak gerrak batu gintuen Frantzian. Asimilazioa eskolan areagotu zen. Baina lubakietako anaitasuna izan zen lehen tresna. Gero, herri bakoitzean gerran hildakoen aldeko oroitarria jarri zuten, haien izen-abizenak dotore-dotore, garai latzen lekuko. Ea nor ausartzen den aitonaren edo berraitonaren izena duen harria lehertzen, herriko plazan. Errazago lehertuko da Kremlin.

Napoleonen gutunak 1812ko urriaren 20a zuen data. Parisko Barne Ministerioan hiru egun geroago jaso zuten. Ordurako tropa frantsesak erretiratzen hasiak ziren. Gutuna bihar jarriko dute enkantean Paristik gertu, Fontainebleaun.

## Messi, zubi

2012ko abenduak 8

Barka nazatela Bartzelona zaleek —hau da, gipuzkoarren erdiek—, baina lehengoan, Messi lesionatu zenean, sentsazio gazi-gozoa izan nuen. Bizipen arraroa. Bartzelonaren futbol zelaiko ikusleek arnasari eutsi ziotenean isiltasun ezin luzeagoan, ni ere han izan nintzen, larri-larri eginda, ezusteak harrapatuta. Alta, zilegi bekit esatea tristatu egin nintzela baina, aldi berean, beste zerbait ere sentitu nuela barrenean, ia kontrolatu ezina. Nola esan... ezaxola, hoztasuna... poza? Nire alde arrazionalak Messiren lesioa madarikatu zuen, baina alde irrazionalak, inkontzienteak, sentimendu iluna piztu zidan. Hura lasaitua! Messi lesionatu arte aitortzera ausartu ez zena aitortu zidan gogoak: «Ez duzu nahi Messik Mullerren gol marka hausterik. Lesionatu bada, ez du lortuko». Eta arnasa hartu nuen.

Ez daukat ezer Messiren kontra. Alderantziz: nire ustez, haren abileziak eta maisutasunak ez dute parekorik. Barkatu oraingoan CR7ren lagunek, baina ederra —mutil guapoa esan beharko nuke, oraingo jarrera modelnoari segituta? — eta aberatsa izateak ez dio portugaldarrari txuloputa izateko eskubide betierekoa ematen. Hala ere, poztu egin nintzen Messiri Gerd Muellerren marka hausteko aukera ia zapuztu zitzaionean. Orain, badirudi lesioa ez dela hain larria eta helburua lor lezakeela. Batek daki.

Markak hausteko daude. Zer egingo diogu, ba. Halako eboluziorik gabe, onerako denean, ez ginateke inora helduko; munduak, gizarteak, ez luke aurrera egingo... Gerd Muellerrek berak esan du poztu egingo dela Messik marka gainditzen badu. Mueller pozten bada, nor gara besteok, ba, ez pozteko? Muellerren markak barruko haur sentimentala azaleratu dit. Gizakiok, sarri, iraganaren esklaboak garela gogorarazi. Atzera begiratu eta torpedoaren garaiak bizi izan ditut. Umetako garaiak. Alemania-Herbehereak, 1974ko munduko txapelketako finala, Munichen. Eta Muellerren gola, lehen zatia bukatzear zegoela. Mundua Cruyffekin txoratzen, eta Muellerrek gola sartu. Helmut Schoenen hamaikakoaren garaipena. Estadio Olinpikoa noizbait ikusteko grina. Alemaniako Futbol Federazioari idatzitako gutuna eta bueltan bidalitako argazki-oroigarria, jokalaria guztien sinadurekin. Iraganaren nostalgia.

Messiren marka berriak irudi horren osotasuna apurtuko dit. Dena den, ezin uka argentinarraren meritua futboleant aritzeko eta zubi lana egiteko. Messi zubia baita orduko eta gaurko futbolaren artean: harengatik ez balitz, belaunaldi berriek ez zuten jakingo Mueller nor den. Pele ezaguna da adin guztietako gizon futbol zaleen artean, baina Mueller, ez. Alemaniarrak ez du inpotenziaren aurkako botika baten publizitaterik egin, nahiz garai batean produktua beharko zuen, seguruena: alkoholismoz desintoxikatzen egon zenean, oheari lotuta eduki zuten hainbat egunez. Orain ez du alkoholik hartzen, ezta likorezko bonboi bat bera ere.

Herbehereak gustatu arren, Alemaniako talde horrekin bat egin genuen. Zer nahi duzue esatea. Denok ditugu geure alde zuri-beltzak. Zubizarreta Espainiako selekzioan zegoenean Bizkaiko abertzale independentista ez gutxi ere eskizofrenian bizi ziren. Arerioa gure Zubirengana hurbiltzen zen bakoitzean, arnasari eutsi eta isil-isilik geratzen ziren, atezainak arriskua urrundu arte. Eta orduan bai, biriketetan gordetako aire guztia botatzen zuten kanpora... Hura lasaitua! Kasuak ezagutzen ditut, baina ez dut izenik esango. Ni, bitartean, kandela pizten, Zubiri dozena erdi caño sartuko zizkioten esperantzan.

Allianz Arena berria 2005ean eraiki baino lehen dozena bat aldiz izan nintzen Munichen. Behin baino gehiagotan Estadio Olinpikoa ikustera joatea proposatu zidaten, baina ez nintzen inoiz bertaratu. Ez nuen txikitako ametsen ganbaran sartu nahi izan, badaezpada ere. Hori baino jarduera interesgarri eta gozagarriagorik asmatzen nuen beti. Gizakiok. Hain gara xaloak, hain gara maitagarriak. Hain gara kontraesankorrak, non...

# 'Tofu' eta 'fufu'

2012ko abenduak 15

Ingelesak, nazioarteko hizkuntzak, botere publikoen babesa behar duela adierazi zuen atzo Ed Milibandek, Ingalaterrako Alderdi Laboristako buruak. Ingelesak, nazioarteko hizkuntzak, babesa behar duela. Non eta bertako gizartean. Zertarako eta gizarte hori kohesionatzeko. Milibanden arabera, herritarren aurrean funtzio publikoan lan egiten duten lagunek —hau da, soldata administratibotik jasotzen duten enplegatuek— ingelesez ondo hitz egiteko gai direla frogatu beharko dute, Erresuma Batuan laboristek aginduz gero.

Milibandek esan zuenez, ekimen horrekin kanpotarren integrazioa bermatu eta bultzatu nahi dute laboristek. Bestela, gizartea ez da kohesionatuta egongo. Laboristen proposamenak helburu jakin bat du: «nazio konektatu» bat lortzea, ez «nazio banandu bat». Milibanden ustez, banaketak «bakartzea» dakar, eta horrek aurreiritziak areagotzen ditu: «Erresuma Batuan ezin duzu arrakastarik izan, bakarturik baldin bazaude. Bakartzeak ezjakinduria areagotzen du, eta horrek, susmoak eta aurreiritziak».

Nazioarteko hizkuntza zainketa berezien gelan sartu behar bada bere herrian bertan, zer ez litzateke egin beharko euskara —edo katalana, galiziera...— babesteko? Kataluniak hezkuntza sisteman hizkuntzaren normalizazioaren alde eginiko bidea moztu nahi du orain Wert ministroak. Kataluniako gizartearen kohesioa urratu, kohesio hori espainiartasunean kokatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen sistema eredu garritzat jo du Wertek, eta horixe adierazi katalanei: gurasoen aukera errespetatzea. Horixe proposatzen ari zaio Kataluniari. Herritar guztiei hizkuntza hautatzeko aukera eskaintzea, eskolak ama hizkuntzan jasotzeko. Ama hizkuntza espainiera bada, noski. Txinakoek edo Ghanakoek ez dute eskubiderik eskolak euren ama hizkuntzan izateko.

Gure hezkuntza sistema defendatzen dutenak kezkatu egin beharko liriateke, Wertek laudorioak entzunda. Hautatzeko aukera nahi dutenek jakin beharko dute Wertek berak badakiena, hainbat ikerketak frogatu dutena: gure sistemak ez duela bermatzen hemengo haur guztiak euskaraz mintzatzeko gai izatea. Ez A, ez B erduetan, ezta D erduan ere, zenbait

kasutan. Gure sistemak erdara ezartzen eta indartzen duela, alegia. Euren gizartea katalanak kohesionatzea nahi dute katalanek. Gure gizartea erdarak kohesionatzen du. Horregatik Wertek txaloak. Hemen euskarari ez zaio balio handirik ematen. Ainhoako vascofrancés batek, Europako Batasuneko kidea izanik, eskubidea du Hegoaldeko administrazioan lan egiteko, diru publikoz ordaindua izateko, espainieraz primeran moldatuz gero. Euskaraz zipitzik jakin ez arren. Ezpeletako euskaldun batek, ordea, ezingo du Oiartzungo osasun zentro publikoan lan egin, gazteleraz ez badaki.

Duela hilabete batzuk lau neska gazte eseri ziren Bilboko jatetxe batean, Abando aldean. Bi afrikarrak ziren eta beste biak, txinatarrak. Haien artean hitz egiten hasi ziren, erdaraz. Nabari zen lauretako inork ez zuela gaztelera lehen hizkuntzatzat, baina polito moldatzen ziren espainolez. Zerbitzari txinatarrek txineraz hitz egiten zuten euren artean, baina espainolez bezeroekin, baita txinatarrekin ere.

Euskara ez da normalduko bi afrikarrek eta bi txinatarrek euren artean euskaraz egin arte. Bilboko jatetxe txinatar batean, ez Berriatuko kontserbera batean. Hori gertatu arte euskararen geroa ez da bermaturik egongo. Baina orduan ere, batek daki... Gerta liteke afrikarren eta txinatarren aldameneko mahaian Arrasate, Gernika, Donostia eta Berako lau euskaldun xinjiang arroz frijitua jaten egotea, gazteleraz barra-barra. Espainiarrek saria banatuko diete orduan: Wertek Isabel Katolikoaren idunekoa emango die lau euskal herritarrei. Eta Fernandez Diazek atzerritar legea ezarriko die lau euskaldunei.

# Eguzkia Mongolian

2012ko abenduak 29

Ulan Batorrera iritsi zen egunean guardiako eguraldi gizona fusilatu zuten, huts egiteagatik: bezperan eguraldi eguzkitsua iragarri zuen, baina biharamunean elurra ari zuen Mongoliako hiriburuan. Mongolski bedeker (Mongoliako gidaliburua) eleberriko pertsonaia nagusiaren arabera, epaileak ez zuen errukirik izan eta heriotza zigorra ezarri zion meteorologoari. Zigorra gehiegizkoa bada ere, hutsa ez da arina, Mongoliako eguraldia nolakoa den jabetzen bagara. World Weather Information webguneak dioenez, gaurko tenperatura baxuena 26 gradu zero azpitik izango da Ulan Batorren, eta altuena -20 gradukoa. Elurra mara-mara. Bihar, berriz, -25 eta -17ko tenperaturak izango dituzte. Elurrik ez, baina hodeiak nagusi. Ulertu egiten da Mongolian zer poza eragiten duen eguzkia izango dela jakiteak. Eta iragarpenetan kale egiteak zer ekar dezakeen.

Svetislav Basara idazle serbiarrak egoera guztiz kafkianoak islatzen ditu Mongoliako gidaliburua nobelan. Herrialde horretan absurdoa da nagusi: zauden lekuan zaudela, nonbaitera joateko bidaia egun batekoa izaten da beti. Gauza guztiek prezio bera dute: 1991ko bost marko alemaniar. Orratz bat, lokomotora bat edo BMW bat, edozer, bost markoren truke. Eta Charlotte Rampling Gengis Khan hotelean bizi da. Mongoliarrak burutik sano ez daudela pentsatuko dugu, baina Asiako herrialdea ez da zorrotasunaren erresuma bakarra munduan: Basararen arabera, Burkina Fason ortografia huts batengatik urkatzen zaituzte.

Mongolia baino hurbilagoko lurraldeetan ere egoera kafkianoak bizi ditugu. Hemen, BMW batek ez ditu bost marko balio, baina hilabeteak eta datak aurrerratu egiten ditugu. Neguan uda da, eta udan, negua. Urtaroak aldatzen ditugu eta, ondorioz, eguraldia. Hemen egutegia aurrerratu behar da, herritarrek ondo merezitako dirua jaso dezaten. Euskal Autonomia Erkidegoko langile publikoek 2013ko ekaineko aparteko ordainsaria kobratuko dute urtarrilaren hasieran. Horixe ebatzi zuen atzo Eusko Legebiltzarrak. Uztailean, aldiz, abendukoa emango zaie. Urte berria hastearekin batera ekainean, udan, izango dira Jaurilaritzako langileak, besteei aurrea hartuta. Otsailerako, denak beltzaran. Bruselak Raxoiren bidez —edo Raxoik Bruselaren bidez, batek daki— inposatutako mozketetako bati ihes egiteko formula

magikoaren ondorioa izango da. Modu legezko eta humanoa, patroï publikoaren eskuzabaltasunari esker. Eskerrak eman beharko, beraz. Horregatik eta udako lehen eguzki-printza kilikagarriak urtarrilera aurreratzeagatik, neguko hotz, haize eta elurrik gabe.

Mirari meteorologikoa ekonomiari esker gertatu da. Ekonomia, dirua mundua aldatzeko gai da, baita urtaroen ordena eta erritmoa ere, orain ikusi dugunez. Eta gure aldartea. Woody Allenek esana du diruak ez duela zoriontasuna ematen, baina oso antzeko sentrazioa ematen duela, hain antzekoa, non espezialista bat behar den diferentzia nabaritzeko. Dirua ez dela garrantzitsuena saldu nahi izan digute betidanik. Baina zergatik izango da hori esaten duten guztiak aberatsak direla? Eskarmentua dutelako: eurek baino ez dute sufritu diru asko izateak dakarren zorigaitza. Eurek baino ez dakite zein gaizki pasatzen den, zeinen txarra den gaixotuz gero itxaron zerrendarik gabe artatua izatea edo izen handieneko eskoletan ikastea. Ez aipatzeagatik bestelako sentrazioak eta atseginak. Hori guztia pairatzea eragotzi nahi diete herritar arruntei. Ez du merezi hala sufritzea.

2013ko aparteko ordainsariak aurreratzea erabaki dute Gasteizen. Datorren urteko abenduari dagokion ordaintze mota hori kobratzerik izango ote den beste kontu bat da. Baina nor kezkatzen da orain, hamabi hilabete lehenago eta gainean zer dugun ikusita, datorren urteko Eguberriez? Ez litzateke harritzekoa izango 2014ko urtarrilean ere udako eguzkia ateratzea. Mongoliako eguraldi gizonak zer iragarriko zain egongo gara. Badaezpada ere, abisatuta dago.



# 'Geisterfahrer'

2013ko urtarrilak 5

Jokatzea gustukoa dugu, nahiz alde aurretik badakigun partida galdu egingo dugula, eskuetan kartarik onenak izan arren. Heriotza hiltzeko ahalegina alferrekoa da, baina, horretaz jabetuta ere, gizakiok ez diogu uko egiten azken patua engainatu edo saihesteko saioari. Hugo Chavezen osasun egoerak eraginiko erreakzioak ditugu horren adibide. Venezuelako presidenteari buruzko albisteak une batetik bestera aldatu dira azken egunotan. Asteartean larri-larri zegoen Chavez; asteazkenean, larri; ostegunean, hobeto, laster etxera bueltatzeko moduan; atzo, aldiz, arnas gutxiegitasuna zuen agintariak. Gaur, batek daki...

Chavezen jarraitzaileek esna-aldiak eta otoitz publikoak antolatu dituzte haren alde. Habanan minbiziari aurre egiteko azken ebakuntza egin ziotenetik ugalduta dira ekitaldi horiek, Venezuelan bertan eta kanpoaldean. Hantxe ikusi ditugu Evo Morales Boliviako presidentea, baita Sean Penn aktorea ere, besteak beste. Batzuen ustez, bitxia da ikustea sentzibilitate ezkertiarra duten askok erritu horretan parte hartzea. Ez da guztiz kontraesankorra heriotza exorzitzatzeko zeremonia egitea. Erljioa herriaren opioa dela esan zuen Marxek, baina ezkerreko sentzibilitatea duten guztiak ez dira marxistak. Bestalde, izango da kontraesanak dituen marxistarik ere. Mundua kontraesanetan oinarritzen da, sarri, aurrera egiteko. Marxen teoriak ez daude hain desfasatuta. Ez behintzat Adam Smithenak baino areago. Biek ala biek nabarmendu zuten lanaren garrantzia, nahiz beste arlo askotan ez zetozen bat. Smithen ere pobreziaren kalteak nabarmendu zituen. Haren ustez, gizarte bat ezin da zoriontsua izan bertako kide gehienak pobreak baldin badira. Denbora pasa da, eta ekonomialari eskoziarraren hitzek ez dute indarririk galdu.

Chavez presidentea izan aurretik pobreak nola zeuden Venezuelan eta orain nola dauden. Hori jakitea nahikoa da ulertzeko zergatik otoitz egitera atera diren gehienak pobreak diren. Akatsak akats, kontraesanak kontraesan eta populismoa populismo —zer dira, ba, gure 400 euro horiek Hegoaldeko langabeentzat?—. Zergatik klase ertaineko kide askok ez duten kandelarik pizten haren alde —zer da klase ertaina Venezuelan?—; zergatik segitzen duten, dugun, kontrako norabidean, heriotza uxatu nahian, geure azken patua ezingo dugula saihesti aitortu arren.

Batzuetan denok joan nahi dugu kontrako norabidean bizitzaren autobidean. Bidesari garestiena ordainduta ere.

Areago, bidesaririk ez badago. Alemanian halaxe da, eta bertako irratietan etengabe aditzen duzu abisua: Berlin-Nurenberg bidean, ez dakit zenbatgarren kilometroan, Geisterfahrer bat badoala. Gidari suizida bat, alegia, kontrako norabidean. Eta esatariaren hitzak. «Mesedez, kontuz gidatu, arazoa konpondu bezain laster abisatuko zaituztegu». Eguneroko kontua da. Lehengoan, Ulmetik Municherainoko autopista zatian Geisterfahrer bat zihoala jakinarazi zuten irratitik. Handik ordu erdira arriskuak bere horretan segitzen zuen artean.

Tokio Hotel musika taldeak badu kanta bat, Geisterfahrer izena duena. Kantaren hasieran gasolina odolean daukala dio kantariak. «Geisterfahrer bat beti doa bakarrik / gaua hotza da / eta autoan noa bakarrik / Geisterfahrer bat bezala / azkenean zurekin egoteko...». 2010eko maiatzean, Geisterfahrer moduan ibili zen Tom Kaulitz taldeko kidea. Tokio Hotelekoak Taiwanen zeuden biran, eta 20 urteko musikariak viagra gaindosia nozitu zuen. Kaleko saltzaile batek pilula urdinak eskaini zizkion, eta berak erosi. Gasolina behar zuen odolean. Bat hartu zuen segituan, festa batera zihoalako, eta festatik irten eta hotelera bi neskarekin joan zenean, beste bi pilula hartu zituen. Tomek bi egun eman zituen jota burua altxatu ezinik. Burua. Eginbideak bete ote zituen... Geisterfahrer.

# 'Torap doktrina'

2013ko urtarrilak 12

Mafia errusiarreko kideak epaitu dituzte aste honetan Donostian. Akusatu nagusia «gerrako ume baten semea» izan da. Hedabideek ez dute zehaztu, baina, antza denez, Euskal Herritik Sobietar Batasunera joandako haur haietako baten ondorengoa da. Fiskalak hamasei urteko zigorra eskatua zuen haren kontra. Azkenean, lau urte. Pena jaisteko, gaizkile talde bateko kidea dela aitortu behar izan du akusatuak, eta delituak egin dituela. Besterik ez. Gaizkilea mafioso errusiartzat jo dute, haren beste jatorria gehiegi nabarmendu gabe. Munduari eginiko ekarpena txalogarria izan balitz, segituan ikertuko genuen ama edo aita nondarra duen edo zuen. Baina mafioso baten kasuan...

Gurean mafiosorik ez baitago, Espainiako Auzitegi Nazionalak zigortutako euskal herritarra ez bada. Antonio Basagoitik gogorarazi digu, euskal preso politikoen alde gaur Bilbon egingo den manifestazioaren harira. Basagoitiren arabera, euskal presoek bortxatzaileei eta mafiosoek ematen zaien tratu berdina jaso behar dute. Oker dago, baina. Donostian epaitutako mafiosoak gaizkile talde bateko kidea dela aitortu du. Ondorioz, hamasei urtetik lau urtera jaitsi diote zigorra. Horren erdia baino gehiago bete duenez, kalean izango da laster. Damutu barik. «Hau egin dut» esatea nahikoa izan da. «Eta harro nago» gehitzea besterik ez zuen falta. Oraintxe bertan sinatuko lukete hori euskal presoek. Epailaren aurrean «ETAko kidea naiz, hau eta hau egin dut», esan eta, damutu barik, zigorra leundu eta kalera. Parot doktrina, baina alderantziz. Torap doktrina, alegia. Ez dirudi Basagoiti hori proposatzen ari denik.

Basagoitik badaki euskal presoak ez daudela espetxean euren joera doilor eta makurrenak asebetetzeko eginiko delituengatik. Euskal gizarteak badaki hori. Baita presoen jarduerarekin edo pentsaerarekin bat ez datozen herritarrek ere. Basagoitiren konparaketak iraindu egin nahi du, mindu. Kemena izango luke PPkoak astero bi mila kilometro egin behar dituen edadeko emakumeari aurpegira esateko hori, alegia, semeak bortxatzaile batentzako moduko zigorra eta tratua merezi dituela? — —eta badakigu bortxatzaileei zer gertatzen zaien kartzelan—. Basagoitik delitu okerren eta arbuigarrienen egileen pare jarri ditu euskal presoak. Ez du inoiz esango, ordea, Diaz Ferrani edo Urdangarini, epaitu eta erruduntzat joz gero, mafioso edo

bortxatzaileentzako moduko zigorrak ezarri beharko litzaizkiekeela. Edo, susmagarri hutsak diren artean, euskal presoek ematen zaien tratu berdina jaso beharko luketela galdeketetan: jipoia, tortura edo eraso sexualak.

Urduri dago PP. Urduri dago Urkixo erregeordea, Eusko Legebiltzarrari esaten metropolira nor bidali behar duen senatari eta nor ez. Urduri dago EAJ ere, kartzela politikan izan zuen erantzukizuna ezkutatu nahian edo. Euskal presoen alde «gutxiago hitz egiteko eta lan gehiago egiteko» esan dio Josu Erkorekak ezker abertzaleari. Presoak sinetsi ezinik egongo dira, PSOerekin dispertsioa bultzatu zuen alderdia orain haien eskubideen defendatzailea dela ohartuta. Isilean lan egin beharra nabarmendu du Erkorekak. EAJk isilean itundu zuen dispertsioa eta ozenki defendatu. Ea oraingoan euskal presoak Euskal Herrira etortzea lortzen duen. Isilean edo ozenki, berdin dio. Baina protesta-gutunak bidali baino zerbait gehiago egin beharko du horretarako.

Ostegun eguerdia. «Gizajoak, presoak», esan du Espainiako irrati bateko esatariak. «Presoak defendatzen ari zara? Zerbait egingo zuten kartzelan egoteko», erantzun dio bigarren esatariak. «Nor defendatuko dut? Bankariak?», lehenak. Espainiako kazetari bat audientzia handiko irrati komertzial batean, presoen alde. Brasilgo presoen alde. Herrialde hartako poliziek katu bat atzeman dute Arapiracako kartzelan. Animaliak zerra orriak, zulagailuentzako ordeko piezak eta telefono mugikor bat zeramatzan gorputzean itsatsita, presoek pasatzeko. Lehen kazetaria presoek errukitu da. Bigarrena, aldiz, katuaz.

# 'Yogurin' bidaiak

2013ko urtarrilak 19

Cañete jatetxea. 2013ko abuztuak 13. Eguneko menua lehen poltsikoko herritarrentzat: barazki biologikoz osatutako entsalada freskoa, ortu ekologikotik hartuak mahaian jarri baino ordu erdi lehenago, egin berria den chandetroisaltsaz; Pirinioetako aire garbian hazitako bildots errea; goizean jetzitako behiaren esnegainez eta behar bezalako lau orduko pausatze aldiaz eginiko panna cotta: 30 euro.

Cañete jatetxea. 2013ko abuztuak 13. Eguneko menua bigarren poltsikoko herritarrentzat: supermerkatuko plastikozko poltsetan bildutako entsalada, oliba olioiz; abeltegi erraldoietan metatutako oilaskoa; duela astebete ekoizitako natillak: 12 euro.

Cañete jatetxea. 2013ko abuztuak 13. Eguneko menua hirugarren poltsikoko herritarrentzat: entsalada, saltzeko epea duela bost egun pasatu zitzaion letxuga hosto horitzen hasiekin, olio industrial ez hilgarriarekin jantzia; hormonaz jositako txahalki puztua; hamar egunez epez kanpo dagoen jogurta, zapore garratzagoz baina oraindik jangarri eta ez kaltegarria: 8 euro.

Bidaia denboran. Laster halakoak ikusteko aukera izango dugu, bi baldintza betez gero: batetik, Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen ministroak elikagaien iraungitze-data luzatzeko duen asmoak aurrera egitea; bestetik, jatetxeek euren menuan zer erabiltzen duten zehatz-mehatz argitzea eta bezeroek kalitatearen arabera ordaintzea.

Badirudi lehen baldintza bete egingo dela. Jangaien kontsumorako lehenesten den data luzatzeko asmoaren berri eman du ministroak aste honetan. Haren ustez, ez da onargarria hainbeste jaki zaborretara botatzea, jateko moduan daudenean. Ez da portaera, are gutxiago krisi garaietan, beharraren itzalak lehen munduaren neoizko poza iluntzen duen honetan. Kontsumitzeko gomendatzen den epez kanpoko jogurtak jaten ditu ministroak, eta ez zaio ezer gertatzen. Cañete jaunak jogurt zaharrak jaten baditu, zer dela-eta izan behar dugu izenik gabeko herritar xume arruntok hain mizkinak?

Batzuetan, baina, arazoa ez datza iraungitze-datan, ontziratze-datan baizik. Batzuetan — gertatu egin zait— bazoaz inguruko supermerkatu batera eta, maniatiko samarra zarenez, apalaren hondoko jogurtak edo atzekoak hartzen dituzu, iraungitze-denbora luzeagoa izango delakoan. Potea hartu eta: Kontsumitu hamabost eguneko epean. Eta ontziratze-datari begiratzen diozunean, konturatzen zara etzi ontziratutako jogurta erosten ari zarela, hau da, bi egun barru ontziratuko den produktua duzu... gaur! Eta pozik lehertzen zaude, denboran bidaiatzea, gizakiaren amets orain arte eskuraezina eskaintzen dizutelako Yogurin bidaiak.

Bigarren baldintza betetzea zailagoa izango da. Egoera ekonomikoa hobea zenean jakien kalitatea eskasa zen jatetxe batzuetan, baina ordaindu beharreko euroek kalitate berdina izan behar zuten beti. Xerrak gerrarteko Mauleko espartinak baino sikuagoak ziren. Eta entsaladetako letxugak Gurutze Gorriko boluntarioen ahoz ahokoa behar zuen kolore apur bat hartzeko. Kontuak atera orain. Eta zer esan mahaiz mahaikoari buruz, birziklatutako janei buruz, alegia? Hona zer gertatu zitzaidan Nurenbergeko gaststätte tipiko batean, zerbitzari nengoela. Jatetxeak izen ona zuen eta jendez lepo egoten zen, batez ere asteburuetan. Mahai batetik platera erretiratu eta soberakinak sukaldeko zaborretara botatzera joan naiz eta hara non datorren ugazaba, korrika batean larri: «Nein, Herr Pastor!». Haragi puska bat dago platerean, haginkatu gabea. «Hau osorik dago, eta ez da botatzen. Hau gorde egiten da eta hurrengoan eskatzen dutenean labean sartu, plater garbian ipini, saltsa beroa bota gainean, eta prest!». Hori Alemaniako lander aberatsenean egiten bazuten 90eko urteetako krisirik gabeko garaietan, zer ez dute orain egingo, han eta hemen.

Ahal izan nuen guztietan egin nuen kontzientzia eragozpena. Herr Schneider ondoan ez nuenean, noski.

# Selma, Beyonce eta Denzel

2013ko urtarrilak 26

Pucciren soineko beltz luzea, Christian Diorren berokia, Lorraine Schwartzen belarritakoak eta esmeraldazko eraztuna... Beyonce dotore asko joan zen Barack Obamak kargua hartzeko ekitaldira, bertan AEBetako himnoa kantatzeko. Haren itxurak eta AEBetako presidentearen emaztearen orrazkerak eta alaben arrokek agintariaren hitzaldiak beste iruzkin eragin dute kasik.

Obamak berdintasun mezua hedatu zuen Washingtonen. Hitzaldia historikoa izan zen. Lehen aldiz, AEBetako presidente batek homosexualen eskubideak aldarrikatu zituen halako ekitaldi batean. Ingurumena ere izan zuen gogoan, bakea... Eta berdintasuna. Berdintasunaren aldeko hitzak esan zituen. Baina nola garatu berdintasuna desberdintasuna han eta hemen sustraituta dagoenean? Obamak horixe aitortu baitzuen AEBetako egoera deskribatu zuenean: «Fidelak gatzazkio geure sinesbideari neskato txiki batek, pobreziarik latzenez jaio denak, badakienez beste edozeinek izango duen aukera berak izango dituela arrakasta izateko». Askotan ahazten dugun errealitatea erakutsi ziguten haren hitzek: munduko potentzia ekonomiko, politiko, militar eta zientifiko handienez badira umeak, pobrezia latzenez jaiotzen direnak. Horretaz ohartu ginen Beyonce kantatzen ari zen bitartean?

Unicefen datuen arabera, AEBetako haurren heriotza tasa Euskal Herrikoa baino handiagoa dugu. Hirugarren munduko Kubakoa baino handiagoa. Bestalde, AEBetako ume beltzen heriotza tasa ume zuriena halako bi da. Herritar guztiak berdinak omen dira, gara. Alta, Hollywoodeko aktore ospetsu baten alabak askoz aukera gehiago izango ditu bizitzan aurrera egiteko New Yorkeko Harlem pobreen jaiotako neskato beltz batek baino. Obamaren teorian horrek ez luke hala izan behar, baina AEBetako praktikan halaxe izaten da. Beste kontu bat izango litzateke aktore horrek emaztea Harlemera eramango balu haurdunaldiko azken egunetan, bere amaren gaztetako bizilekuan erditzeko, mediku onenen laguntza ederki ordainduaz baliatuta. Eta neskato beltza jaio bezain laster Beverly Hillsera bueltatuko balira hirurak.

Denzel Washingtonek hamalau urte zituen bere gurasoak bereizi zirenean. Amak, Harlemen haziak, New Yorkeko eskola militar batera bidali zuen mutila, haren bizitza okertzen hasia zuzentzeko asmoz. «Erabaki horrek nire bizitza aldatu zuen», adieraziko zuen aktoreak geroago, «ibiltzen nintzen bidetik ez nintzelako bizirik aterako». Urte haietan kalean gora eta behera harekin zebiltzan lagunak, guztira, «40 kartzela urte» eginak zituzten. Washingtonek, hainbat afroamerikarrek bezala, kalearen legea ezagutu zuen gaztetan. Washingtonek, hainbat afroamerikarrek bezala, Barack Obama sostengatu zuen iazko bozetan, hura AEBetako lehen presidente afroamerikarra izan zedin.

Obamak berdintasuna defendatu zuen astelehenean : «Guk, herriak, adierazten dugu gaur egiaz argiena —gu guztiok berdinak sortu ginela dioena— oraindik ere badela gidatzen gaituen izarra: gure arbasoak Seneca Fallsen, Selman eta Stonewall-en zehar gidatu zituen bezalaxe». Hitz horiekin hiru gertakari garrantzitsu aipatu zituen Obamak, hiru mugarri AEBetako giza eskubideen aldeko borrokan: Seneca Fallsen (New York) emakumeen eskubideen aldeko lehen batzarra egin zuten 1848an. AEBetako mugimendu feministaren hasieratzat jotzen da bilera hori. Selman (Alabama) hasitako protesta martxak abiapuntua izan ziren arrazakeriaren aurkako eta eskubide zibilen aldeko borrokan, 1965ean. Lau urte geroago, 1969an, gay, lesbiana eta haien alde egin zuten herritarrak polizien aurka borrokatu ziren Greenwich Village auzoan, New Yorken. Stonewall Inn taberna izan zen haien ikurra. Obamak hiru gertakari horiek hartu zituen iraganetik, eta haien izpiritua goratu zuen etorkizunean benetako berdintasunerantz joateko. Teorian erraza da hori. Praktikan?

Beyoncek ondo jarduten du beti. Live edo playback-en.



# Burusoilen kalea

2013ko otsailak 2

Barcenasek ordaindutako sosek bazterrak nahasi dituzte. PP susmopean dagoela esan du Alfonso Alonsok, alderdiaren bozeramaileak, Espainiako kongresuan. Dena argitu beharra omen dago. Lehenbailehen. Alonso zuzen dago. Eta oker: PP susmopean dago, baina ez soilik ustelkeria kasuengatik. Alderdia sorreratik bertatik egon da susmopean herri honetan, frankismoarekin izandako loturengatik. 1976. urtetik, hain zuzen. Askok eta askok PP nondik sortu zen ahanztarazi nahi digute. Alferrik da, baina.

Francoren diktadura ofizialki bukatu eta gero, Espainiak Mendebaldeko Europako araberako sistema politikoa eratu nahi izan zuen, Pirinioetatik gora onar zezaten. Espainiako eskuinak eta ezkerrek alderdi politiko indartsu bana behar zuten, erreforma politikoaren prozesua bultzatuko zutenak, hura inolaz ere auzitan edo arriskuan jarri barik. Bi mutur ideologikoetatik urrun, alegia.

Ezkerra Franco hil baino lehen hasi zen lanean. Sozialistek Suresnesko kongresua egin zuten, diktaturaren ondorengo garaiak prestatu eta Alderdi Komunista orduan indartsuari aurrea hartzeko. Isidoro and company-k sozialdemokraziarako bideari ekin zioten, Willy Brandtek eta François Mitterrandek lagunduta. Eskuinaren garaia 1976an heldu zen. Franco hil eta hilabete batzuetara Alianza Popular (AP) sortu zuten zenbait ministro frankista ohik: Licinio de la Fuente —Francorekin 1969-1975eko tartean Lan ministroa izan zen—; Laureano Lopez Rodok —Francoren Atzerri ministroa, erregimenaren ordezkaria munduan barrena—; Federico Silva Muñoz eta Gonzalo Fernandez de la Mora Lan Publikoen ministro frankista ohiek eta Manuel Fraga Iribarnek, 1962-1969. urteak bitartean Informazio eta Turismo ministroa izan zenak. Batzuentzat, Fraga gorrotagarria; beste batzuentzat Don Manuel maitagarria.

Don Manuel PPrent sortzaile eta presidentea izan zen, Galiziako presidentea, senataria... Fragak, Euskal Herrian ondo ezagunak, Julian Grimau komunistaren exekuzioaren alde egin zuten 1963an, ministroa zenean. Aurten beteko dira 50 urte gerra zibileko azken hildakoa deitu zutena exekutatu zutenetik. Kennedyk, Joan XXIII.ak eta hainbatek gupida eskatu zuten, baina

ezer ere ez. Francok Grimauren exekuzioa bozkatzeko eskatu zuen ministro kontseiluan. Hilketa aho batez adostu zuten denek. Jorge Semprunek ezin argiago esan zuen urte batzuk geroago: «Grimau fusilatu zuten ministroetako bat izan zen Fraga».

Fragak bizitzaren ia azken unea arte jardun zuen politikan. Espainiako demokrazia bitxiaren ikurretako bat izan zen. Bitxia, zeren... zer demokraziak eskatzen du Txiki eta Otaegi frankismoaren kontra jardundako borrokalarien omenezko kale-izenak ezabatzeko eta busto bat jartzen du senatuan, diktadurako ministroa izan zena gogoratzeko? McCarthy senatariak, sorgin ehiza bultzatu zuenak, ba al du estatuarik AEBetako Senatuan? Ez. Fragak, 25 años de paz lelo frankista hura gure kaleetan ezarri zuenak, ordea, badu Espainiakoan.

Don Manuelek inoiz ez zuen frankismoa gaitzetsi. Behin, Galiziako Legebiltzarrean, Argentinako eta Txileko diktadurak arbuiatzeko eskatu zioten. Fragak erantzun zuen soilik jainkoari eta konfessoreari eskatzen ziela barkatzeko. Halakoak esan zituena presidente izan zuen alderdiak zer dela-eta eskatu behar dio orain inori ezer gaitzesteko edo barkamena eskatzeko?

Horregatik guztiagatik egon da beti PP susmopean. Genesisia, sustraiak, frankismoan dituelako. Ez soilik ustelkeriagatik. Duela urte batzuk, Santa Cruz de Tenerifen paseatzen nembilela, Rambla del General Franco aurkitu nuen. Diktadorea hil eta 30 urtera PPK ez zuen haren izena kendu kale nagusi hartatik. Haurtzarora itzultzearen sentsazioa izan nuen: Cola Cao, mortadela, igande goizeko zinema... Izan ere, umetan Calvo Sotelo zeritzon kalean zegoen gure etxea. Non bizi nintzen galdetzen zidatenean, «kalboen kalean» erantzuten nuen txantxetan. Ilea nuen artean, baina banuen neure patuaren berri, antza.

# Gillotina

2013ko otsailak 9

Arturo Perez Reverte idazle espainiarrak esan zuen, luze ez dela, Espainiako sistema politiko eta sozialaren gainbehera morala arrazoi historiko batengatik gertatu dela: behar zen garaian, Madrilgo Puerta del Solen gillotina bat jarri ez zutelako, monarkiari eta kleroari lepoa mozteko. Haren ustez, gauzak hobeto egongo lirateke gaur, halakorik izan balitz.

Ez da seguru errepublika batean, edonon dela ere, ustelkeria monarkia batean baino txikiagoa denik: areago, historiak frogatu du ez dela horrela. Hala ere, errepublika demokratiko batean herritarrek badute aukerarik presidentea kargutik kentzeko. Presidenteak kargua utzi eta gero, hura epaitzeko bideak ere badaude, nahiz praktikan badakigun hori gertatzea ez dela hain erraza. Jacques Chirac Frantziako presidentea, esaterako, auzipetu egin zuten kargua utzi ostean. Azkenean, Chiracek ez zuen prozesuan parte hartu bere osasun egoera zela eta. Hego Euskal Herria administratzen duen monarkian ez dago estatuburua epaitzeko modurik. Herritarrek ezin dute erregea botoen bidez kendu. Errege hori, kargua utzita ere, ezin da auzipetu. Espainiako konstituzioak bortxaezintasuna eta arduragabetasuna bermatzen dizkio erregeari, 56.3 artikuluan: «Erregearen pertsona bortxaezina da, eta ez dago ardurari lotua». Honek aforismo britainiar bat du oinarrian: The king can do not wrong. Alegia, erregeak ezin du gaizki jokatu, ezin du kalterik egin. Erregea humanoa ez dela esaten ari zaigu horrela, nolabait iradokiz jainkoari lotuta dagoela. Erregea perfektua da; inoiz ez du hutsik egiten. Beraz, hari ez eskatu konturik.

Erregea ezin da epaitu. Ez dirudi harekin zuzeneko odolkidetasuna dutenak epaitzerik dagoenik. Haren odolkideeekin oheratzen direnak, aldiz, epai ditzake justiziak. Horra hor zer gertatzen ari zaion Zumarragan jaiotako euskal herritar bati. Ustez egindako lapurreta galantak direla eta, zortzi milioi euro pasatxo eskatu dizkiete fidantza moduan hari eta haren negozio lagunari. Bietako inork ez du ezer ordaindu orain arte. Hori ez egiteko, Urdangarinek ez du argudiatu dirurik ez duela, baizik eta sos horiek emateak «modu bidegabean pobretzea» eragingo liokeela berari, eta «modu bidegabean aberastea» dirua jasoko luketenei.

Ez dago guztiz frogatuta dirutza izugarri baten atzean beti egoten denik lapurreta handi bat. Atzeman gabeko lapurreta izugarri handi baten atzean, ordea, dirutza handia egoten da beti. Urdangarinek modu justuan aberastu ote zen galdetu beharko lioke bere buruari, hain modu justuan, non orain itzelezko bidegabekeria izango litzatekeen pilatutako sosak kentzea. Agian, patente bat aurkitu eta garatu zuen, merkatuan arrakasta paregabea lortu zuena: pixoihal lehor zoragarria, sistema magiko bati esker inoiz bustitzen edo zikintzen ez dena, ume jaioberriari mundura sortzen den unean jarri eta esfinterrak kontrolatzen dituen egunera arte erabiltzen dena. Pixoihal bakar bat haur bakoitzeko. Pentsatu egunean zenbat ume jaiotzen diren munduan. Pentsatu zenbat diru aurreztuko luketen familiek, ume horiei pixoihal magiko bana erosita. Pentsatu zenbat irabaziko zuen duke empalmado batek, halakorik garatu balu. Alta, Urdangarinek bestela egin du dirua, antza. Beraz, ez da «modu bidegabean» pobretuko.

Herritarrek, aldiz, pobretzen segitzen eta segituko dute. Modu bidegabean. Haserrea gero eta handiagoa da gizartean. Haserrea, sumina eta, areago, gorrotoa hedatzen ari dira, pobrezia bidea eraiki dutenak aberastasun iraingarrienean bizi direla ikusita. Duela astebate Madrilgo kaleetan ustelkeriaren kontra egindako kontzentrazioetan «gillotina, gillotina» oihuak entzun ziren. Herenegun, bi iruzkin hauek irakur zitezkeen El País egunkariaren edizio digitalean, Barcenasi eta gainerakoei buruz argitaratutako albiste baten ondoan: «ETA, vuelve!», «ETA mata a los corruptos».

## Anaïs, Anaïs

2013ko otsailak 16

Jean de la Bruyerek esan zuen hiru gertakari garrantzitsu baino ez daudela gizakiarentzat: jaiotzea, bizitzea eta hiltzea. Jaiotzeaz ez gara ohartzen; hiltzean sufritu egiten dugu eta bizitzeaz ahazten gara. Bizitzeaz ahazten gara, baita maitatzeaz ere... San Valentin egunean izan ezik.

Opariak, musuak, poza... San Valentin egunean urteroko marketina azaltzen da. Aurten ere, amodioaren merkatuaren apologia egiten duten ideiak azaldu dira, horietako bat kulturari lotuta: Bartzelonako Poliorama antzokian eskaintza erakargarria egin dute. Bertara joan eta maitasun keinua edo ekintza egin duten bikote guztiei 2x1 bat oparitu diete antzezlan bat ikusteko: T'estimo, ets perfecte... ja et canviaré. Elkarri musu eman eta biak sartu, baten prezioan. Promozioan ez dute argitu txartel saltzaileak nola neurtu behar zuen bikotearen erakustaldia, besarkada bat nahikoa izango zen edo torloju-musua eskatuko zuen. Eta horrek nola eragingo zion bikoteari? Hara, musu zalea ez den pertsona bat, lehor eta gainera xuhurra, egunean musu bat besterik ematen ez duena: «Gaurko musua antzerkiko atean emango dizut, maitea. Ondo inbertitua izango da».

Maite zaitut, perfektua zara ... aldatu egingo zaitut izeneko musikalak arrakasta handia izan du Broadwayn, eta horren adaptazioa Katalunian dago orain. Joe di Pietroren eta Jimmy Robertsen obrak bikoteen harremanetan izaten diren aroak taularatzen ditu, ironia finez jantziak: lehen hitzordua eta lehen txinpartak, ezkontza, umeen etorrera, ohikeria, zahartzarora, ikuspuntu umoretsuz beti. Lanaren izena esanguratsua bezain anbigua eta kontraesankorra da: maite zaitut, perfektua zara... aldatu egingo zaitut. Norbaitek maite zaitu, zerbait duzu, zuregana erakartzen duena. Baina, beste alde batetik, perfektua zara, perfektua aurrean duzuna nazkatzeraino. Eta aldatu egin nahi zaitu. Zure izaera aldatu edo... beste maitale edo bikotekide baten truke aldatu, zu baino inperfektuagoa izango dena. Humanoagoa, alegia.

Kontsumozko maitasuna saltzen digute, urtero, San Valentín egunean. Eguberrietan turroizko onberatasuna eta derrigorrezko eskuzabaltasun fariseua bezalaxe. Maitasunari buruzko aholkuek eta amets erromantikoek zulatzen dizkigute belarriak. Zaila da horren atzaparretatik ihes egitea. She jartzen dute irratietan —ahaztu Notting Hill, Julia Roberts eta Hugh Grant, baita Elvis Costello ere, eta gozatu Charles Aznavourren ahotsaz—, baina hori ez da nahikoa izaten San Valentín eguneroko beste egun bat bezalakoa dela ahazteko: maitasunaren egunean ere hiltzen du maitasunak, urteko beste egunetan bezala. Pistoriusek lau tiro egin dizkio neskalagunari. Eta munduan barrena milaka eta milaka emakume irten dira kalera, I'm rising kanpainaren barruan, dantza eta aldarrikapenak lotuz beren aurkako indarkeria salatzeke.

Joan den mendean pertsona gutxi izan zen maitasun harremanetan Anaïs Nin baino joera apurtzaile handiagoekin. Haren pentsamolde feministan, baita zentzu humanoan ere, bizimodu burges eta kontraesankorrean izan arren. «Amodioa da guztia urre bihur dezakeen alkimista bakarra; amodioa da heriotzaren, zahartzearen eta ohikeriazko bizitzaren aurkako sorgintasun bakarra», azaldu zuen Henry Millerren eta beste zenbaiten amoranteak. «Haragiak haragiaren kontra perfume bat sortzen du, baina hitzen talkak sufrimendua eta banaketa besterik ez du ekartzen», deskribatu zuen idazleak. Anaïs Nin 1977an hil zen, obarioetako minbiziak jota. Handik urtebetera, confettizko maitasunaren merkatariek haren izena jarri zioten lurrin bati. Anaïs Anaïs is a ultra-feminine fresh, rich and romantic bouquet of flowers, dio Cacharelen webguneak. Perfume erromantiko ultra-femeninoak 35 San Valentín bete ditugure artean. Bitartean, Anaïsen haragizko perfumeak lehen bezain fresko segitzen du, maitasun kitsch-aren kiratsetik urrun: «Kulpak, beldurrak, inpotentziak bihurtzen ditu gizonak krudel». Anaïs, Anaïs.

## Portugal, Kuba eta...

2013ko otsailak 23

Lagun bat daukat, euskaldun-alemaniarra. Estatukidetasun alemaniarra hartu zuenean, uko egin behar izan zion espainiarrari, eta pasaporte bueltatzera joan zen Espainiak München duen kontsulatura. Kontsulak berak hartu zuen, eta hantxe ibili zitzaion, atzera egitekokontzitu nahian, ba ote zekien «espainiarra izatearen ohorea» zer zen eta abar. Lagunak kasurik ez. Alemaniarra da pasaportez. Eta euskalduna, hizkuntzaz eta bihotzez.

Espainiarrak nazionalistak ez direla entzuten dudan bakoitzean Municheko kontsula datorkit burura. Baita beste euskaldun-alemaniar baten esana ere. Andre alemaniar batekin ezkondata dago, eta pasaporte espainiarrari uko egina da hura ere: «Espainiarrak ez dira nazionalistak, ez horixe! Ahal izanez gero, flamenkoa dantzatzen jarriko lukete Bundestag osoa».

Espainiarra izatearen ohorea ematen digute eta guk ezetz erantzun. Logikoa da hainbat espainiar gurekin haserretzea. Edo ez ulertzea zergatik agertu duen Oriol Junquerasek bereizteko asmoa, Madrilgo egunkari batean: «Espainiak Katalunia galduko du, Kuba, Portugal eta Herbehereak galdu zituen bezalaxe». ERCko buruak argi utzi du Espainiak erreferendumik onartzen ez badu, bozak izango direla: «CiU eta ERC puntu bakar batekin aurkez gitezke: independentzia».

Horixe erronka. Asteon ere datu hauek azaldu dira: katalanen %54k independentziaren alde egingo lukete, orain erreferendum bat egingo balitz. Inkestak kontu handiz irakurri behar dira, baina egia da gizartearen termometroa izaten direla sarri. Eta Kataluniako errealitatea hau da: azken inkestetan ez dela nagusitu independentziaren kontrako boto-asmoa. 2014an bozak izan eta ERC-CiUk independentzia eskatuz irabaziko balu, zer egingo luke demokrazia espainiarrak? SNP Eskozian nagusitu zenean, hauke azaldu zuen David Cameron lehen ministro britainiarrak: ez zegoela independentziaren alde, baina, erreferendumaren aldeko mezuak irabazi zuenez, gizarte eskoziarrak erabakitakoa errespetatuko zuela. Eta erreferenduma egin egingo zela. Horixe British eta Spanish demokrazien arteko desberdintasuna.

Katalan txepel zuhurrak, independentziantz. Euskaldun gogor artezak, berriz... Felipe Gonzalezek adierazi zuen behin Euskal Herriko egoera «ordena publikoaren kontu bat» baizik ez dela. Kasualitatea izan edo ez, 1984an egin zituen adierazpenak, GAL sortu berria zela. «Benetako arriskua», Gonzalezen ustez, «el hecho diferencial catalán» da. Beste presidente demokrata batek, Leopoldo Calvo Sotelok, ondo ulertu zuen hori: «Bultzatu egin behar da gazteleraz egiten duen jendeak Kataluniara eta Valentziara emigratzea, bermatzeko horrek berez dakarren sentimendu espainiarrak bizirik segituko duela». Hizkuntza, nortasunaren oinarri. 2001ean Juan Carlos Borboikoak esan zuen Espainiak inoiz ez zuela inor behartu espainieraz mintzatzera. Lotsatuko ote zen? Hala izan bazen, ez ginen konturatu: masailak gorri-gorri ditu normalean.

Espainiaren politika suntsizaile asimilazionista ez da soilik Kataluniara mugatu, baina argi dago hantxe lortu dituela emaitza eskasena. Gizarte katalana gero eta kohesionatuago dago. Katalan subiranistak bozetara elkarrekin joateko prest daude, gehiengo sozial argia dutela frogatzeko. Euskal Herriko zati populatuenerako gizartea ordezkatzeko duen ganberan ere gehiengo argia dute subiranistek baina subiranista teoriko-pasiboek nahiago dute unionista praktiko-aktiboekin hitzarmena sinatu. Horrela, ditzosozko 2015ean, gure nazioa haziago egongo omen da Europan.

Hala segituz gero, Katalunian Euskal Herrian baino arinago ikusiko ditugu Juan Carlos I.a, Felipe VI.a edo Espainiako hirugarren errepublikako presidentea, inperioaren politikak historian zehar eragindako mina sentitzen dutela esateko. Ez dute zertan barkatzeko eskatu, eskertuko balitzaie ere. Sentitzen dutela aitortzearekin nahikoa izango da.



# Yolanda

2013ko martxoak 2

Yolanda Gonzalezen hiltzaileak Espainiako Segurtasun Indarrentzat eta Ertzaintzarentzat egin du lan. Militante faxistak «oso eskola interesgarriak» eman zizkion Ertzaintzari 2008an. Horixe adierazi zuen atzo Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak. Emilio Hellin Moro inolako penarik erakutsi gabe atera zen kartzelatik. Zigor gogorra jaso zuen: 43 urte. Irteteko baimenak izan zituen eta horietako batean Paraguaira alde egin zuen. Guztira hamalau urte egin zituen barruan. Libre utzi zutenean izena aldatu zuen, eta listo. Azken urteetan gu guztion dirua eman diote Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak. Gu guztiona: Rubalcabak, Fernandez Diazek edo Balzak ez dute diru hori euren poltsikotik ordaindu.

Hogeita hamahiru urte igaro dira Hellinek Yolanda hil zuenetik, baina garai haiek ez dira erraz ahazten. Dena egiteko zegoen; dena aldatuko genuela pentsatzen genuen. Ilusioa, idealismoa... Sentsazio eta ideia bizigarriak, baita arriskutsuak ere, nondik ikusten den. Mikel, Benito, Errobi eta Itoizen abestiak kantatzen genituen. Eta tartean Silvio eta Pablorenak ikasten genituen. Debo partirme en dos, Ojalá, Yo no te pido... Eta Yolanda. Eternamente Yolanda.

Eta kolpetik beste Yolanda bat agertu zen. Eta errealtatea ez zela soilik bertsoa gogorarazi zigun. 1980ko otsaileko lehen eguna zen. ETak sei guardia zibil hil zituen Ispasterren (Bizkaia). Bi ETako kide ere hil ziren atentatuaren ondorioz: Goio Olabarria eta Xabier Gorrotxategi. Eskuin-muturrak mendeku hartu zuen Euskal Herrian eta Espainian. Handik ordu batzuetara, BVE Batallón Vasco-Español taldeak Jesus Mari Zubikarai Jhisa ondarrutarra hil zuen Eibarren (Gipuzkoa) eta Yolanda Gonzalez bilbotarra Madrilén. Hellinek eta bere taldekideek bahitu zuten hemeretzi urteko gaztea. Yolanda PST Langileen Alderdi Sozialistakoa zen. Alderdi trotskista eta espainolista bateko kidea, gure orduko terminologian. Hala ere, faxistek euskal herritarra zelako hil zuten. Buruan bi tiro egin eta hor utzi zuten, eremu hotzean botata: jertse eta praka ilunak soinean; lauburua lepoan.

Ez da oso harrigarria izan zenbait alderdi politikoren erreakzioa Hellinen aferaren berri izan bezain laster. Ez PSOEk ez PPk ez dute oso ozen hitz egin. Ez dute dimisiorik edo garbiketarik

eskatu. Ulertzekoa da: batak ezin du auzia erabili bestearen kontra egiteko. Biak dira horren arduradunak. Hellinen zerbitzuak Estatuak kontratatu zituen. Inork ere ez zekien haren nortasunaren berririk? Sinesgaitza, benetan. Baina hala izan balitz ere, erantzukizun politikoa ekarri beharko luke horrek.

Egunotan ez dira entzun terrorismoaren biktimen zenbait elkarteren ohiko oihuak. Ez kexarik, ez protestarik. Talde horietako inork ez du Hellin kasua auzitara eramateko asmorik agertu. Erakunde publikoek Hellin kontratatzea ez al da biktimei iraina, burla egitea? Ez. Yolanda ez zen terrorismoaren biktima izan. AVTren webgunean sartu, eta jo 1980ko otsaileko datuetara: ez Jhisa, ez Yolanda ez dira existitu ere egiten. Bi familia, bi etxeren saminaren arrastorik ez.

Terrorismoaren biktimak berdinak direla esan izan dute behin eta berriro. Gezurra. Denok dakigu mina, pena, etsipena, galera, bai, berdinak direla. Baina biolentziaren erabilera, ez. Duela gutxi irakurle-korrespontsal batek hauxe idatzi zuen La Vanguardia egunkarian Atenastik, Greziako krisia eta istiluak hizpide: «Biolentzia biolentzia izango da beti, baina hura erabiltzeko arrazoiak ez dira etikoki berdinak. Abusatu eta erasotzeko erabiltzen den biolentzia eta abusuari eta erasoari aurre egiteko erabiltzen dena ez dira berdinak».

Biolentzia guztiak ez dira berdinak. Lehen ere bagenekien hori, baina orain are argiago utzi digute beste aldetik. Biktima guztiak ez dira berdinak. Yolanda gogorarazi digu hori, hogeita hamahiru urte geroago. Yolanda. Jertse eta praka ilunak soinean; lauburua lepoan. Yolanda, eternamente Yolanda.

# Ahaztuen komandantea

2013ko martxoak 9

Populista, pailazoa, diktadorea... Munduko eskuinak ezin izan du Hugo Chavezen kontrako gorrotoa ezkutatu, ezta hura hil eta gero ere. Munduko progresiak ere bere egin ditu, askotan, hitz horiek. Hedabide independente gehienak saiatu egin dira Venezuelako presidentearen lan sozialaren emaitzak ezkutatzeko eta alde ilunak agerrarazten. Alta, haien irainek ezin engainatuko dituzte bertako herritar pobreenak: kritikak kritika eta hutsak huts, Chavezen agintaldiak argia eman dio euren bizimodu ilunari. Nazio Batuen Erakundearen datuei begiratzea besterik ez dago.

Politika soziala bozetan lortutako garaipenari esker garatu zuen Chavezek, Carter Center erakundeak laudatu dituen hauteskunde gardenetan. Presidenteak behartsueneren aldeko lana egin zuen, baina hori ez digute sarri azaldu hemen. Albistegietan Venezuelako presidentearen irudiak ikusi ditugu. Rancherakkantatzen ari da, con dinero o sin dinero, hago siempre lo que quiero, y mi palabra es la ley. Ez digute kantaldiaren ondoko benetako ekitaldiaren berririk eman: txiroentzat eraikitako eskolak irekitzea, osasun zentroak, etxebizitzak... Eta geure mendebaldeko paternalismo laidogarriaz begiratu diogu indio populistari. Zer bitxia den morroia, papagai bat dirudi txandal koloretsu horrekin.

Ez zaizkit rancherak gustatzen; ez dut gustukoa bularrean gurutzea zintzilikatu eta hari musu ematea agerraldi publikoetan, baina horrek ez dit Venezuelako presidentea izandakoaren lana ahantzaraziko. Presidenteak herri xumearekin konektatzen jakin zuen. Populista? Eta zer? Nor gara gu hori epaitzeko geure talaiatik? Ez zaigu gustatzen nola egiten zuen politika. Gure modu hotz aseptikoan egin behar zuen politika Chavezek, venezuelar batek, venezuelarrei bere mezua helarazteko? Venezuelar askok ez dute ulertuko zergatik doazen hemengo politikariak bizikletan hauteskunde kanpainan, ez baitute jakin behar Euskal Herrian txirrindularitzak zernolako zaletasuna duen; ez dute ulertuko zergatik gure politikari zintzoak dabilzan hain jator marmitakoa eta paellak prestatzen. Eta zer?

Ez dugu ulertzen zergatik irten diren milioika herritar kalera, negarrez. Zeinen teatrero eta zuriak diren panchito eta morenito hauek. Euskaldunok oso gogorrek gara; inoiz ez dugu negarrik egiten jende aurrean, eutsi egiten diogu, bihotza hamaikagarren katxi-katxian ito arte. Orduan andreak utzi egin gaituela aitortzen diogu, negar-zotinka, tabernako zerbitzariari, geure goibeltasunaren zaindariari. Ez dugu ulertzen zergatik mestizo morocho horiek dauden kalean aieneka, Chavezen erretratuak eskuetan. Zer egin du haien idolo bihurtzeko? Izena eman die izenik gabekoei; izena eman die izenik ez zuten herritar pobreei; izena eman die haien esperantzei; duintasuna, ordura arte handi-mandi zurien gorrotoa edo mespretxua besterik jaso ez zutenei. Chavez pobreen komandantea izan zen, Maria Toledano kazetariak idatzi duenez. Ahaztuen komandantea. Non zeuden Chavez kritikatzeko dutenak eta milioika herritarren dolimina ulertzen ez dutenak komandantearen aurreko garai latzenetan? Non geunden?

Ez dugu ulertzen, eta barre egiten dugu. Gu beste galaxia batean bizi gara —noiz arte?—. Geure mundu oparo baina tristean funtsezko giza eskubideen mailara igo dugu Internet dohainik izatea. Beste herrialde batzuetan, aldiz, ez dute zuntz optikoarekin amets egiten. Ez dituzte 100 mega nahi, 100 gramo ogi baizik. Ahaztu egiten dugu munduko hainbat lekutan milioika eta milioika izenik gabeko daudela. Ahaztu egiten ditugu ahaztuak.

Chavez, ordea, ahaztuekin gogoratu zen, bera ere horietako bat izan baitzen umetan: palmazko etxe batean bizi zen, lurrezko horma eta zoruarekin. Etxola moduko aterpea zen, euri asko egiten zuenean urak hartzen zuena. No tengo trono, ni reina, ni nadie que me comprenda, pero sigo siendo el rey... Populista? Eta zer?

# Stasi Zarautzen

2013ko martxoak 16

Das Leben der Anderen —Besteen bizitza— filmak Ekialdeko Alemanian zegoen erabateko kontrolaren berri ematen du: jendea atxilotu eta galdekatzeko erak, baita etxekoen artean salaketak bultzatzeko moduak ere. Protagonista Stasiko kidea da, eta Berlingo herritarrak zelatatzen ditu. Errepresioa jaun eta jabe zen orduan. Alemanian ez ezik, kanpoan ere bazeuden espioiak eta kolaboratzaileak. Atzerrikoen burua Markus Wolf izan zen, 1953-1986ko tartean. Haren taldekoei Romeo espioiak deitzen zieten, Mendebaldeko erakundeetan lan egiten zuten emakume idazkariak seduzitzen baitzituzten informazioa lortzeko. Wolfek horren guztiaren berri eman zuen gero, bere oroitzapen-liburuan.

Filmean alderdi bakarraren inguruan eraikitako gizartearen alde errepresioa baino ez da ageri. Beste aldean, alderdi anitzen sistemako gizartean zer gertatzen zen, arrastorik ez. Hor demokrazia liluragarria zegoen, antza. Ezer gutxi esan zaigu orain arte Adenauerren garaietatik Alemaniako Errepublika Federalean eraikitako inteligentzia sistemaren errepresio leun baina eraginkorrari buruz, batez ere Alderdi Komunista debekatuta egon zen garaietan —1956tik 1968ra—.

Stasi hitza deabruaren sinonimo bihurtu digute. Hori dela eta, konnotazio jakin batzuk ditu egun, mingarriak, iraingarriak. Hara Joseba Egibarrek duela aste pare bat zer esan zuen, Gipuzkoako Diputazioak Bidegiren zenbait dokumentu eskatu zizkienean EAJren agintaldian erakunde publiko horretako arduradunak izan zirenei: «Bildu Stasi alemaniarra bezala jokatzeko ari da». Jakin egin behar Bilduk informazioa eskatzeko bidalitako faxak zer zioen: mehatxu egiten ote zien Bidegiko lehenagoko arduradunei, haien senideak lanetik botatzeko mehatxua, seme-alabei unibertsitatean sartzen ez uzteko edo lanik gabe uzteko. Badirudi ezetz, bestela fax hori egunkari guztietako azaletan agertuko zen, eta Amnesty International eta Human Rights Watch erakundeek persona non grata izendatuko zituzten Martin Garitano eta Larraitz Ugarte, besteak beste.

Aste honetan EAJrekin lotutako ustezko espioitza kasu bat epaitu dute Araban. Telleria auziak bai gogoraraz ditzakeela Stasiren zelatatze metodoak. Errugabetasun-presuntzioari

entsuta ere, zenbait lagun ez daude egoerarik onenean orain aurkari politikoari Stasiko kidea izatea leporatzeko. Egia da herri kafkar honetan Stasiren itzala edonon aurki dezakezula, nahi izanez gero. Denbora luze ez dela, Donostian manifestazioa deitua zen leku batera joan nintzen. Han lagun batekin topo egin, eta harekin aritu nintzen hizketan. Handik egun batzuetara berriz elkar ikusi, eta haxe esan zidan: «Eskerrak lehengoan nirekin hizketan ikusi zintuzten. Gero, emakume batzuk etorri zitzaizkidan nor ote zinen galdezka, zera esanez, estaziotik segitu zizutela, manifestazio lekura jaka jantzita zentozelako, zu bakarrik». Urte batzuk lehenago, beste manifestazio baten inguruan geundela lagun bat eta biok, eta hara non hasi diren andre batzuk oihuka, gure aldera begira. Guk burua bueltatu dugu, «nor izango ote da, ba», eta haiek: «No disimuléis, txakurras, que ya os llegará la hora». Stasikoak ote emakume haiek? Eta gu? Gestapokoak?

Stasi Gipuzkoan? Ez dakit, ba. Markus Wolf 1986 arte izan zen informazio zerbitzuetako erakundearen atzerri arduraduna. Doi-doi, baina denbora izango zuen, nahi izanez gero, Zarautzera Romeo espioi batzuk bidaltzeko Karlos Garaikoetxearen idazkariren bat liluratzeko, edo Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohiaren etxean entzuketak prestatzeko. Izan ere, entzuketa horiek 1986an egin zituzten. Wolfen azken lantxoia izango zen, baina hark ez zuen horren berririk eman bere oroitzapenetan. Beraz, nork zelatatu zuen Garaikoetxea? Stasi alemaniarrek ala euskal Stasik? Ez Egibarrek salatzen duen ezker abertzalearen Stasik, Alderdiak urte haietan kudeatzen zuen poliziaren Stasik baizik. Alderdiak, bai. A larriz, noski.

# 'Malaka'

2013ko martxoak 23

Dirua ateratzeko bankura joan dira Zipreko herritarrak, baina ezin izan dute nahi zuten moduan eskuratu. Haien bizitzaren esparru ekonomikoari buruz erabakitzeko eskubidea ukatzen die, nahi izanez gero, kapitalak. Dirua koltxoipean gordetzen zuten garaiaz gogoratu dira Zipreko birraitona-amonak. Eta haietako batzuek ezin izan diote irribarre maltzurri eutsi birbiloba handiustekoa biraoka ikusi dutenean, bankuak dirua blokeatu diolako. Malaka...

Europak tabu bat hausteko keinua egin du: 100.000 eurotik beherako kontuak sakratuak omen ziren, baina Zipreko krisiak abisua eman digu. Edozein momentutan, gauzak okertuz gero, denoi ken diezagukete dirua. Sosak burtsan sartzen dituenak badaki zertara doan: diru asko irabazi gura du, baina galtzeko arriskua ere badago. Dirua bankuan gordetzen duenak, berriz, leku seguru batean izan nahi du, etorkizunean komeni denean eskura izateko. Besterik ez. Baina...

Gure aurrekoek ez zuten bankuen beharrik. Egunean bizi ziren; ez zuten gehiegi, eta ez zuten gehiegi eskatzen. Garai batean soldata gutun-azal batean eramaten zuten langileek etxera. Baina bankuek beraiekin seguruago egongo ginela esan ziguten. Banku bidez kobratzen hasi ginen, gero txartelak eman zizkiguten... Zer boteretsu sentitzen ginen txartelak erakusten: Amex, Mastercard, Barclays... aukeran kanpoko bankuak, globalizazioa bai, ez hemengo artaburuak.

Orain gero eta jende gehiago dabil aurrezki-libretaz dirua ateratzen; gero eta gehiagok utzi diote txartel bat baino gehiago izateari, kuota gehiago ez ordaintzeko. Gelditu egin gara, eta gero eta premia gutxiago sentitu, halabeharrez. Eta une batez begiak itxi ditugu, eta geure burua askatzen hasi gara, atzeranzko martxan. Internet zer den ahaztu dugu; geure munduaren kezka nagusia jadanik ez da WhatssAp-ek urtean 85 zentimo kobratu nahi dizkigula, eskuko telefonoa zer den ere ez dakigulako. Eta gaztetuz joan gara, baina geure jaiotzerantz, Benjamin Button ez bezala. Teknologia berririk gabeko garaietara itzuli gara; etxean paperezko egunkari

bat dago, bakarra; praka motzak jantzi ditugu, geure pubisean lehen aldaketak sumatu bezain laster praka luzeak janzten genituelako udan eta neguan; mortadela eta txokolatea txandakatu ditugu meriendan; tintaz zikindu dugu eskolako bata; etxera heldu eta telebista ikusten hasi gara, zuri-beltzean, bi kate baino ez. Tximino aurpegia duen albistegiko aurkezlea dago pantailan, eta eguraldi gizon antiojodun, antigoaleko aurpegi baina benetako meteorologoa, ez etengabe poseak egiten dituzten emakume lirain ez-meteorologoak.

Eta bizilagunak txirrina jo du, etxean guretzako telefono dei bat jaso duela esateko. Eta amonari dirua eskatu diogu kilo bat gerezi erosteko eta ezetz, berak ez duela dirua koltxoitik aterako, dendara joateko, fidantzan emango digute eta. Eta azken gerezia jan dugunean mundua behetik gora ikusi dugu, handia oso, lau hankatan gabiltzalako, gero eta mantsoago, denak erraldoiak dira inguruan, apenas ezagutzen ditugun, gero inor ez, eta konturatu orduko zulo batean sartu gara. Zulo epel, gozo, eroso da, laztantasunaren bizi-arnasaz elikatzen gaituena, gorroto edo gaiztakeriarik ez dagoena. Han galdu gara neurtu ezinezko iluntasun bero hezean, jadanik ez baitakigu denbora zer den, eta ez-mundu baterantz abiatu gara. Eta geure ez-mundu horretan mutil gazte bat ikusi dugu, gure ez-sudurra duena eta neska bat, gure ez-begiak dituena, eskutik helduta. Parkean eseri dira eta musu garbi bat eman diote elkarri, zaindari dabilen guardia inguruan ez dagoela aprobetxatuta. Eta mutilak etxeko atariraino lagundu dio neskari, eta galdetu dio zer izango litzatekeen moduren bat egongo balitz, biek, nor bere etxean dela, aldi berean elkar ikusi eta elkarrekin hitz egiteko aukera izango balute, urruntasunean hurbil sentitzeko, biharamunera iristea eternitatea delako. Malaka...



# 'Elanchove'

2013ko martxoak 31

Munduko eskola guztietan dago mapa bat, ikasleek txikitatik identifika dezaten euren estatua. Mapek herri baten eraikuntza sinbolikoa osatzeko balio dute. Psikologikoki kolonizatze eta kultura edo hizkuntza nagusia inposatzeko tresnak ere badira. Caja de Ahorros Vizcaína aurrezki kutxak frankismoan ateratako mapako toponimia ikusi besterik ez dago: Valmaseda, Vedia, Galdácano, Guernica... Errealitate geografikoa distorsionatzen da, batzuetan, mapetan: Kanaria uharteak Andaluziaren ondoan jartzen ditu telebista espainiarreko mapak. Espainiaz kanpoko atzerritar batek esan zidan behin munduko mapari begiratu arte uste zuela Kanaria uharteak Cadiz ondoan zeudela, «ez Afrikan».

Aste honetatik aurrera Euskal Herria inoiz baino berdeago dago gure etxeetan. Eguraldiaren mapa aldatu du Euskal Telebistak: bertsio berrian zazpi probintziak ageri dira, intentsitate desberdineko kolore berdexka nabar samarrekin. Kolore aldaketa bakoitzak banaketa administratiboa bereizteko balio du. Batetik, Espainiak administratutako Euskal Herria dugu: Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa. Bestetik, Frantziak administratutakoa, ezagutza ofizialik gabekoa: Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Mingarria izan daiteke administratutako hitza Aberri Egunean irakurtzea. Gaur independentzia askoren ahotan egongo den arren —batzuen kasuan bihotz-bihotzez; besterenean, aho handiz baina gogo txikiz— errealitateak hauxe dio: gure herria Espainiak eta Frantziak administratzen dutela. Modu desberdinez, noski, baina azken hitza Madrilek eta Parisek dute. Eta komeni denean gogorarazten digute, sobera oldar ez gaitezen. Dagoena dago; ez dagoena balego ...

Ibarretxeren garaian ETBko albistegian zegoen mapa guztiz irrealia omen zen. Izan ere, Euskal Herria osorik genuen, barruko mugarik eta Frantziaren eta Espainiaren arrastorik gabe. Beste herri batzuetako hedabideek ere halaxe aurkezten dute euren lurraldea, ondoko estatuen erreferentziarik gabe. Estatu bat dute atzean; guztiz legitimaturik daude hori egiteko. Beste estatuak ez dira kexatzen. Lehengo mapa hura berriz jartzearen aldeko apustua egin du EH Bilduk. Ibarretxeren gobernuan zerbait egin zuten ondo, ba —garai hartaz ari garela: inork al daki non dauden Anjeles Iztueta larrutzen zuten Bertendonako irakasle ingelesdun,

frantsesdun, ez-euskaldun haiek?—.

Txikieria omen da eguraldiaren maparen auzia. Orduan, zergatik eragiten du ageriko lehen aldaketa telebistan, zuzendaritza aldatzen duten bakoitzean? Azken mapa honi buruzko erabakiari ezin zaio kutsu salomonikoa ukatu: argi bereizten ditu zazpi probintziak —Patxi Lopezen agintaldian Espainia iparraldeko eta Frantzia hegoaldeko mapa fisikoa zen gurea—; beste alde batetik, egungo muga administratiboak agertzen dituzten koloreak ditu, desberdinak, argi gera dadin hau ondo zatitu eta zedarritutako herrialdea dela. Oraingo mapak Euskal Herri Handia islatzen duela esan dute batzuek. Gusturago ikusiko lukete Espainia Handia, autonomiekin edo horiek gabe. España una y no cincuenta y una. Guztiz berdindurik, bereizketa txikiena gabe, frankismoaren mapa horietan legez: Elanchove, Lequeitio, Marquina...

Mapak herrien argazkiak dira. Argazki horietan agertzen ez dena ez da ezer, zulo beltz bat baizik. Horixe gertatzen da munduan. Lurralde handia izango zara, baina geografia ofizialean ez bazaude, akabo. Hortik mapen garrantzia. Quim Monzok kontatzen duen pasadizoak argitzen digu hori. 1980ko urteen hasieran New Yorken bizi izan zen idazle katalana. Nongoa zen galdetzen ziotenean «Kataluniakoa» esaten zuen. Herria kokatzeko eskatzen zioten orduan, eta berak Frantziaren eta Espainiaren artean zegoela. Geografiaz ezer ez zekitenak isildu egiten ziren. Ustez asko zekitenek, aldiz, azkar erantzuten zuten: «Between France and Spain? Andorra!».

# Zirkunzisiao

2013ko apirilak 6

Judua izan daiteke zirkunzidatua izan gabe? Zalantza hori argitu nahi du, beste hainbaten artean, Berlinen juduei buruz ireki duten erakusketak. Egia osoa, juduei buruz beti jakin nahi zenuena deritzon ekimena juduei buruzko galderak erantzuten saiatzen ari da. Judu guztiek sudur luzea dute eta negozioetarako iaioak dira? Juduek herri aukeratua osatzen dute? Bromarik egiten dute holokaustoari buruz? Horiexek dira aretoan hedatu diren beste kezka batzuk, zirkunzisiaoari buruzkoarekin batera.

Guretzat ezohikoa dena ohikoa da besteentzat. Eta alderantziz. Bi aldeek, guk eta haiek, elkar hobeto ezagutzeko eta ulertzeko ahalegin berezia egin behar dugu. Arriskatzea da kontua, geure erosotasuna erosokeria bihur ez dadin. Horixe egiten ari dira Berlingo Museo Juduak antolatutako erakusketan. Alemaniako herritar ez juduak eta juduak — azken horiek 100.000 baino gehiago dira gaur— elkarrengana hurbildu nahi dituzte. Naziek juduekin egindako genozidioak pisu itzela dauka oraindik hango gizartean. Berlingo ekimenak modu bitxia proposatu du zama historiko hori gainditzen laguntzeko.

Museoko aretoan kutxa handi batzuk jarri dituzte, erakusleihen moduan edo, eta bertan juduak paratu dira, benetako pertsonak, bisitarien galderak erantzuteko. Live. Bizi bizian. Irudikatu antzeko erakusketa bat Louvre edo Prado museoetan. Euskaldunei buruzko hainbat galdera kutxetan idatziak. Kutxa bakoitzean euskaldun bat, ikusleen zalantzak argitzeko prest. Airean dauden galderak errealitateari lotuak dira, edo klixe zaharren ondorioak: «Basapiztiak zarete euskaldunak? Gehiegi janez eta edanez beste gizakiek baino gehiago sublimatzen duzue sexua? Egia da ikastoletan Espainiaren eta Frantziaren kontrako gorrotoa bultzatzen duzuela? Euskaldun fededun klixeak zenbateraino eragiten dizue oraindik? Haren orde euskaldun mendidun klixeak garatu duzue ala elkarrekin doaz? Euskalduntzat jo dezakezue zuen burua euskaraz jakin gabe?». Horiexek galderetako batzuk. Beste alde batetik, zer ez genuke galdetuko euskaldunok, Guggenheim museoan edo Baionako Euskal Museoan erakusketa bat egingo balute, eta espainiarrak eta frantsesak jarriko balituzte bertan!

Topikoak, askotan, errealtatearen pertzepzio jakin batetik sortuak dira, baina arriskutsua izan daiteke horiek herri bateko kide guztientzat erabiltzea. Aurreiritziek eta klixeeek ez dute laguntzen bestea hobeto ezagutzen. Batzuetan, iritziek oso errotuta daude eta nahasmena sor dezakete. Esaterako: Alemanian ez da ohikoa arropak etxeen kanpo aldean zintzilikatzea. Turkiako edo Hego Europako etorkinen ohituratzat jotzen da. Atzerritarren kontua. Gurean, aldiz, oraindik erabiltzen da arropa lehortzeko modu hori, gero eta gutxiago bada ere. Duela urte batzuk edadeko alemaniar bat etorri zen Euskal Herrira. Gipuzkoako barnealdeko herri bateko alde zaharrean zebilela, arropak eskegita ikusi zituen balkoietan. «Nabari da hemen atzerritar asko bizi direla», esan zuen. Etxe horietan ez ziren etorkinak bizi, euskal herritarrak baizik. Hala ere, haren begietan Alemaniako atzerritarren moduan jokatzeko zuten. Beraz, kanpotarrak ziren. Bera zen atzerritarra, baina bere iritzia hain zuen barneratua, non ikusmolde hori kanpoan ere ezartzen zuen: Alemaniako atzerritarren moduan jokatzeko zutenak atzerritar ikusten zituen euren jaioterrian eta etxeetan bertan.

Geure betaurreko berezietan ikusten dugu munduaren kolorea. Horretaz ohartzeko, Philip Roth idazle estatubatuarrak esanikoa gogoratu dute Berlingo erakusketaren harira. Roth judua da jatorriz, baina atea. «Mundu osoak jainkoan sinesten ez duenean, leku bikaina izango da», esan zion CBS telebista kateari elkarrizketa batean. Hala ere, Rothek normaltzat jotzen du zirkunzisia; ez du erlijioarekin lotzen: «Hipnotizatuta erreazionatzen dut, oraindik ere, igerilekuetako aldageletan zirkundizatu gabeko gizonak ikusten ditudanean». Guretzat ohikoa dena ezohikoa da besteentzat.

# Sarita Azkoitian

2013ko apirilak 13

Espainiako hedabideek ez dute Joxan Lizarribarren heriotzaren berri eman. Ez dute Euskal Herria erreferentzia moduan; Espainia da haien ardatza. Joxanek defendatu eta amesten zuen Euskal Herri euskaldun, aske eta batua ez dator bat haien proiektuarekin; histu egiten ditu iparraldeko kolonietako postaletako kolore berdeak. Euskal Herriko hedabide espainolistek errealitateari ezin uko egin, eta berri txarra aipatu dute. Lizarribar euskal kulturaren aldeko ekintzaile sutsua izan zela esan dute, gehienez ere. Horixe baitzen Joxan. Haren pentsaera, ordea, harantzago zihoan. Argi zuen, beste hainbatek bezala, euskal estatuak ez duela bermatzen euskara salbatzea, baina euskal estaturik gabe euskararenak egin duela. Ausardia behar dela. Independentzia. Ez hainbeste plan lausotu, ez hainbeste kontsulta zehaztugabe, ez hainbeste koplak. Independentziaren bidea zehaztuko duen aditu taldea osatu du Kataluniako Gobernuak. Hemen, bitartean, 2015eko data etereoak darabilte batzuek, ezer argi proposatu barik. Hango gobernuak independentista da. Hemengoa, berriz, zer? Independentista? Soberanista? Planista? Kontsultista? Lehen mailako autonomista? Hirugarren graduako erregionalista?

Jose Luis Sampedroren heriotzaren berri eman dute Espainiako eta Madrilen agindupeko euskal lurraldeetako hedabideek. Sampedro ez zen iraultzaile tradizionala. Kapitalismoak hasiera batean eragindako aurrerapena onartzen zuen. Hala ere, merkatu askatasunaren garapena salatzen zuen, gogor salatu ere. «Joan dirurik gabe merkatura, eta igarriko diozu, bai, zertan datzan merkatu askatasuna», esan zuen elkarrizketa batean. Berdin beste askatasunekin. Joan zaitez, bai, eliteko unibertsitate edo ospitale pribatu batera dirurik gabe, eta igarriko diozu zertan dautzan irakaskuntza askatasuna eta osasunerako eskubidea. Merkatuaren erreinuan, ordaintzeko dirua duenari baino ez dio balio askatasunak.

Sampedroren pentsamenduaren antipodetan zegoen burdinazko dama. «Bada Margaret Thatcherren heriotzaz poztu denik», esan dute telebistan, harrিতuta-edo. Negar egin behar zen, ala? Galde diezaietela Bobby Sands-en eta gose greban hildako IRAko beste preso senideei eta abertzale irlandarrei; galde diezaietela Txileko diktaduran krimenak pairatu zituztenei —

Thatcherrek sostengua eman zion Pinocheti, hura Londresen zegoenean estradizio prozesuan— ; galde diezaietela haren erreforma ekonomikoaren ondorioak oraindik pairatzen ari diren herritar pobreei; galde diezaietela hegoafrikarrei —Thatcherrek inoiz ez zuen apartheid-a gaitzetsi nahi izan—. Eta, bide batez, galde diezaietela haren heriotzagatik negar egin duten demokrata garbiei, ea zergatik ez zioten eskatu erregimen arrazista eta kriminal hura arbuiatzeko, harekin mahaian eseri baino lehen. Eta zergatik, beste kasu batzuetan, giza eskubideak urratzea gaitzetsi beharra dagoen haien solaskidea izateko.

Sara Montielen heriotzaren berri eman du Euskal Telebistak. Adin jakin bateko hegoeuskaldunen gogoan dago Montiel. Espainia baitugu erreferentzia. Espainolez ez dakien Donapaleuko euskaldun batek ez du hain erraz ezagutuko. Garai batean sex symbol-a izan zen Sara Montiel. 50eko urteetan txistua botatzen zioten Madrilgo Gran Via kalean, prakak jantzita ibiltzen zenean. «Orduan puta deitzen zidaten, baina orain santa izango nintzateke», esan zuen elkarrizketa batean. Espainia sakona Espainiako hiriburuan. Zer ez zioten egingo, aukera izanez gero, katolizismoaren talibanek. Lagun bati entzuna diot bere herrian, 60eko hamarkadan, erdaraz ozta-ozta zekiten gizonak haren film guztiak ikusten zituztela. Askotan, andrea gabe joaten ziren zinemara, lasaiago gozatzeko bekatuan. Pelikula aurrera joan ahala, itzalen mugimendua hasten zen aretoan: Saritaren presentziak eraginda, gizonezkoak komunera joaten hasten ziren, iluntasuna lagun. Gehienek etxetik eramaten zuten paper higienikoa. Badaezpada ere.

# Bakean herdoil bedi

2013ko apirilak 20

Krisia kontsumo gosea hiltzen ari da, eta jan gosea berpizten. Euskal Herrian, batez ere Hegoaldean, gero eta lagun gehiago jotzen ari dira jangela sozialetara, Caritasek emaniko datuen arabera. Hegoalderago are makurragoa da egoera. Andaluziako Juntak umeei egunean hiru otordu emateko plana onartu du; Grezian, umeen %10ek ez dute bermatua janaria.

Krisiaren ondorioei aurre egiteko neurriak hartzen ari dira han eta hemen. Batzuek kritikatu egin dute horien egokitasuna, baina nola egin ezikusiarena halako premia gorriei? Espainiako prentsa eskuindarrak «Chavezen plana» kopiatu izana egotzi dio Andaluziako Gobernuari. Halako neurriak populistak direla diote demokraziaren patrizioek, inguruan gosearen arrastorik ez dutenek. Gu guztion diruaz ordaindutako neurri populistak. Sozialismoa. Horixe kritikatzan zuen Margaret Thatcherrek. Erresuma Batuko lehen ministroa zenaren ustez, sozialismoa lapurretan oinarritutako sistema zen, nolabait: «Sozialismoaren arazoa hauxe da: segituan bukatzen zaio besteen dirua».

Richard Wolff ekonomialariak buelta eman zien argudio horiei joan den astean, New Yorkeko Brecht Forumean eginiko hitzaldian, burdinazko dama hil berria zela. Andreu Barnils kazetariak eman du ekitaldiaren berri Vilaweb katalanezko agerkari digitalean. Wolffek ustez, argi dago zein den krisi honen arrazoa: bankuei segituan bukatu zaie besteen dirua. «Oraintxe azalduko dizuet nola funtzionatzen duten Thatcherrek defendatzen zituen banku kapitalistek. Banku pribatuek besteen diruaz funtzionatzen dute», esan zuen ekonomialariak. Eta sistema azaldu zuen, bai, erraz ulertzeko moduan. Bankuek hiru sarrera mota dituzte: batetik, inbertitzaileen dirua lortzen dute, inbertitzaile horiek irabazien portzentaje bat jasotzearen truke; bestetik, maileguak eskatzen dituzte, interesekin bueltatzeko; azkenik, herritarrek haien eskuetan uzten duten dirua dago. Behin hiru iturri horietatik besteen dirua lortuta, bigarren faseari ekiten diote. Dirua uzten diete herritarrei, enpresei eta gobernuei. Dirua utzi dirua irabazteko, noski. Bankuak modu bakar batez egiten baitu negozioa: dirua uztearen truke jasoko dituen interesak altuagoak direnean hark ordaindu behar dituen interesak baino.

Bankuek besteen dirua galdu dute. Negozio hondagarrietan inbertitu dute, edo bueltatzeko bermerik ez zuten enpresa edo herritarrei utzi diete dirua, kutxa gero eta handiagoa egiteko irrikaz. Enpresa pribatu batek porrot egiten duenean, itxi egiten du. Merkatuaren legea. Bankuen kasuan, ordea, ez. Bankuek gobernuetara jotzen dute diru eske. Bankuak eroriz gero, enpresak ixten dira. Ondorioz, langabe gehiago dago, pobrezia, miseria. Gobernuak ere erortzen dira. Domino efektua da. Wolffek lelo honekin laburtu du bankuek gobernuei egiten dieten eskaera edo mehatxua: «Erreskata nazazu edo bestela zu ere eroriko zara».

Horixe historia. Erraza ulertzeko. Thatcherrek bedeinkatzen zituen bankuek eta sistemak segituan gastatu dute besteen dirua. Politikariaren hiletan 12 milioi euro erabili ditu estatu britainiarrak. Ken Loach zinemagileak esan duenez, Thatcherren hiletak pribatizatu egin behar ziren, hildakoaren pentsaerarekin koherentea izateko. Thatcherrek demanda egingo zien Londresko zeremonian halako dirutza gastatu dutenei.

Belfasten, Falls Road errepublikanoan, pintaketa bat egin zuten Thatcher zendu eta berehala, heriotzak independentisten artean eragindako sentimenduak azaltzeko. Rest in peace (Bakean bego) esamoldetik abiatuta beste mezu bat osatu zuten. Iron lady? Rust in peace (Burdinazko Dama? Bakean herdoil bedi). Matthew Oakeshottek hitz jokoa txalotu du Twitterren: «Nire epitafio pintaketa gustukoena da Thatcherrentzat. Umorez egina dago, ez gorrotoz». Oakeshott ez da Sinn Feineko politikaria, Erresuma Batuko Alderdi Liberal Demokratako buruzagia baizik.



# Erregimenak eta kazetariak

2013ko apirilak 27

Boterea eta etika. Kazetarien lana inoiz ez da erraza izan. Batez ere, boterearen aurrean makurtzen ez diren kazetariena. Jazarpenak, mehatxuak, kolpeak. Han eta hemen. Erregimen guztietan. Argia-ko kazetari Lander Arbelaitzi gertatua dugu adibide. Bere burua kazetari gisa identifikatu arren, Ertzaintzak jo eta mehatxatu egin zuen Donostian. Poliziek lurrera bota zuten, Aske Gunearen kontra egiten ari ziren bitartean. Denok ikusi ahal izan dugu eraso. Hala ere, gure segurtasunaren erantzule arduratsu ofizialek ez dute kazetariarekin hitz egin, ezta barkatzeko eskatu ere. Areago, gertatutakoaren errua kazetariarena berarena izan dela esan dute, ez hura jo zuten uniformedunena. Zergatik? Ez ziolako segitu Ertzaintzaren aginduari. Poliziak zehaztutako leku jakin batetik informatu behar zuten kazetariak, antza. Ertzaintzak ondo zedarritutako gune batean nahi zituen kazetariak, ondo kontrolatuta, berak finkatutako atakaren atzean eta hesiaren barruan. Kazetariak zenbat eta urrunago, orduan eta hobeto. Boterearentzat susmagarriak dira. Arriskutsuak.

Argia-ko kazetariari eginiko eraso Donostian barik Caracasen izan balitz, egunkari eta telebista guztietan agertuko zen. Hemengoa izanda, aldiz, ez. «Zer gaiztoa den erregimen chavista», esango zuten. Halaxe deitzen baitiote Venezuelako sistemari hemengo hedabide askok, mespretxuz. The New York Times egunkariaren estilo liburuak erregimen hitza ez erabiltzea aholkatzen du: «Gobernuaren edo lidergoaren alternatiba moduan erabiltzen denean, gutxienez gaitzespen txikia dakar berekin. Kontuz erabili». Berdin dio. Erregimenak. Gure lehen munduko sistemak lehen mailako demokraziak dira. Hemen ez dago erregimenik. Hemen demokrazia garbiak ditugu, nonbait: kazetaria jotzen dute eta errua kazetariari botatzen diote. Edo herri kontsultak bultzatzen dituzte, soilik gustukoak dituztenean. Iñaki Petxarromanek gogorarazi digu orri hauetan: «2005ean, errauste plantari buruzko galdeketa bat egiteko baimena ukatu zion Hondarribiko alkate jeltzale Borja Jauregik Txingudi Bizirik plataformari. Hautestontziak jarritz gero Ertzaintza edo udaltzaingoa bidaltzeko mehatxua egin zien. Markel Olanok uko egin zion Gipuzkoan errauste plantari buruzko herri galdeketa bat antolatzeari, ahaldun nagusi izan zen garaian (2007-2011). 'Ez diot zentzurik ikusten errausketaz kontsulta egiteari', esan zion kazeta honi 2007an». Venezuelan erregimen chavista badute,

EAEen erregimen peneuvista dugu.

Kazetaria eta etika. Alde bateko kontuak ozen salatu, bestekoak lotsagabe isildu. Kazetariak, ezin uka, gero eta gehiago makurtzen dira boterearen aurrean. Besteen erregimenak kritikatzeko dituzte. Beren ideologia duten erregimenak, aldiz, ez. Fernando Ravsberg BBCren berriemailea da Kuban. Kazetari uruguaiarrak hogeit hamar urte baino gehiago eman ditu Habanan. Atzerriko oso kazetari gutxi dago, hango errealitatea berak baino hobeto ezagutzen duenik. Kritiko baina zuzena, uharterko sistemako alde onak eta txarrak azaltzen ditu. 2009ko udan kazetaritza kongresu batean egon zen, Santanderren. Giza eskubideei buruz hitz egiten hasi zirenean, irizpideak zehazteko neurri bera erabiltzeko eskatu zien Ravsberg kideei. Kuban heriotza zigorra noiz aplikatu zuten azken aldiz galdetu zien. Denek zuten dataren berri: 2003. urtea. Hark haxe esan zien orduan. «Sei urte pasatu dira geroztik. Orain, esan: sei urte hauetan zenbat lagun hil dituzte heriotza zigorraz Txina, Pakistan, Saudi Arabia edo AEBetan?». Ez zekiten. «Eta ez zaizue bitxia iruditzen duela sei urte Kuban gertatu zenaz argi eta garbi oroitzea eta ez jakitea munduko beste lekuetan gertatzen ari dena». Ravsberg oraindik gogoratzen du lagun horietako baten erreakzioa: «El País-eko kazetari bat jaiki zen, Miguel Angel Basternier, eta haxe esan zuen, ozenki: 'Kubatar baten biziak ehun beltzenak baino gehiago kezkatzen nau'».

# Ama kamisetan

2013ko maiatzak 4

Athleticeko jokalariek amaren abizena jarri zuten atzo kamisetetan, Celtaren kontra jokatutako partidari. Biharko amaren eguna gogoan, omenaldi moduan hartutako erabakia onetsi zuen, salbuespen gisa, Espainiako Futbol Liga Profesionalak. Onartu behar da gauza txalogarria izan zela atzokoa, guztion sentimenduak islatzen zituena. Azken batean, nork ez du ama maite?

Alta, halako keinuek ezer gutxi balio dute gero gizona amak —besteen amak, noski— eta amagai diren edo izan diren guztiak errespetatzen ez baditugu. Emakume guztiak, alegia. Hitz gozoetatik harago errespetatu, atzokoa bezalako detaile horiek huskeriak izan ez daitezten. Amarenganako maitasun itsu, ukaezin, primario eta ulergarri horretatik amodio edo, besterik ez bada, begirune aseptikoago batera pasatzea da kontua. Izan ere, gizon askoren barrenbarrenean, oraindik ere, ama da baldintzarik gabe errespetatu beharreko emakume bakarra. Ez dut esan maitatu, errespetatu baizik. Ama maitatu; andrea eta alaba ere bai. Ez dituzu zertan beste emakume guztiak horiek adina maite, baina errespetatu, bai. Ez duzu dalai-lama izan behar horretarako.

Gero eta ohikoagoa da futbolariak gola sartu, kamiseta erantzi eta azpian, barruko elastikoan, mezuren bat agertzea: gola seme edo alaba jaio berriari dedikatzea, edo hil berria den senideari. Ama bihotzean daramagu. Inork ez du horretaz dudarik egiten. Aitzitik, ez du balio bihar kamisetan Mertxe, Nekane, Maria, Olatz, Edurne, Kontxi, Asun eta abarrenganako maitasuna erakustea, etzi ezer egiten ez badugu. Bide batez, galdera maltzur bat, freudiano samarra: zergatik izango ote da amaren aldeko ekinbideak normalean zakildun umeengandik ateratzen direla? Hain esker txarrekoak al dira aludun umeak? Seguru?

Amaren abizenaren harira: gero eta joera handiagoa dago gurean lehen eta bigarren deiturak jartzeko. Aurrerapausoa da. Horrekin ez da patriarkatuaren botere sinbolikoa deuseztatzen, baina bai leku bat egin amari: inon ez agertzetik bigarren lekuan agertzera pasatzen da. Oraindik atzean, baina nonbait, bederen. Ohituraz-edo bigarren abizena agiri ofizialetan baizik jartzen ez dugunok ama gutxiago maite dugula esan nahi du horrek? Ez dut uste. Amaren

abizena ezinbestean agertzeko konponbidea hauxe izan daiteke: haren deitura jartzea umeari. Arlo horretan ez gaude oso aurreratuta. Zenbat gizonezko uzten dute machito ohorea bazterrean eta emaztearen edo neska-lagunaren abizena jartzen diote umeari, lehen deitura moduan? Logika hutsagatik bestegatik ez bada ere. Izan ere, hauxe da kontu argi bakarra: ume horrek ama zein duen. Gizonen kasuan, aldiz, badakizu: Pello Joxepe tabernan dela, haurra jaio da Larraulen. Baina Pello Joxepetik DNA proba egin arte, ez da jakingo haur horrek aita zein duen. Amaren abizena hobetsi duten gizon batzuk ezagutzen ditut, baina gutxi dira. Zenbaitetan, zuzena ez ezik, mesedegarria ere izango litzateke hori egitea. Kirolarien kasuan, esaterako. Zelako zama psikologikoa izan daitekeen futbolaria izan nahi duen haurrarentzat jokalaria bikaina den aitaren abizena eramatea. Amaren abizenaz, berriz, presio txikiagoa sentituko du.

Hala ere, errealistak izanda —eta inor mindu nahi izan gabe— nago atzo Athleticetako futbolzale askorentzat taldeak irabaztea zela garrantzitsuena. Hautatu beharrean egonez gero, gauzak nola dauden ikusita, nahiago zuten taldeak aiten abizenekin irabaztea amenekin galtzea baino. Alegia, amak omentzeak ezer gutxirako balioko zuela, Morenori bost gol sartuz gero, haietako bi Sagarnaren eta Borderen botetatik, eta Goñik eta Zubeldiak hamaika huts eginez gero aurkariaren ate hutsaren aurrean. Irabaztea eta datorren denboraldirako bidea egiten hastea zen funtsezkoena haientzat. Berdin dio Calderak entrenatzaile segituko duen. Edo Telleria presidentek Lakuntza jarriko duen haren ordez.

A! Amaren abizena Gonzalez dut.

# Nazilandia

2013ko maiatzak 11

Faxismoa eta ezjakintasuna batera joaten dira, batez ere eskuin itxuraz zibilizatu oso errotuta ez dagoen lekuetan. Espainian, esaterako. Horrek erraztu egiten ditu lengoaiaren perbertsioa eta emozioen manipulazioa. Gauzak horrela, ez da harritzekoa Kataluniako komunitate juduak aste honetan agiri bat atera izana nazismo hitzaz egiten den erabilera arina arbuizatzeko. Haren ustez, edonori arrazoi hutsalenengatik nazia deitzeko dagoen joerak holokaustoa erlatibizatzen du, eta hori zigortu egin beharko litzateke.

Paradoxikoa haxe da: jokaera hori eskuinak hedatu du gehienbat, nazismoarekin beste inor baino gehiago identifikatzen den joera politikoak. Eskuinaren ustez, lanpostuaren alde trafikoa mozten dutenak naziak dira; escrache izeneko protesten bidez etxe kanporatzeak salatzen dituztenak ere naziak dira; azpiegitura erraldoien kontra ekintza ikusgarriak egiten dituztenak, berdin. Botoen bidez adierazitakoaren kontra indarrez egiten duten naziak dira horiek guztiak, PPren arabera. Botoen bidez azaldutako «herri borondate» horri beste batzuek erasotzen diotenean, ordea, ez dago nazirik inguruan: agintariak kanpainan agindutakoaren guztiz kontrakoa egiten dute, baina ez dira naziak; botoen legitimitatea izan gabe gobernuen politikak aldarazten dituzten erakunde politiko eta ekonomikoak ere ez dira naziak, euren erabakiak indarrez eta mehatxuz inposatzen dituzten arren. Bitxia da oso: naziak soilik eskuinaren interesen kontra doazenak dira orain.

Beste jokaera maltzur bat: aurkari politikoa Hitlerrekin konparatzea: «Hitlerrek ere bozak irabazi zituen, baina horrek ez du esan nahi demokrata zenik». Alegia, bozak irabazteak ez zaitu demokrata egiten. Ez, ba. Zergatik ez zen demokrata Hitler? Bozak irabazi zituelako? Ez. Haren ideiak demokraziaren oinarritzat jotzen diren ideien guztiz kontrakoak zirelako. PPk eta PSOEk bozak irabazten dituzte. Naziak dira horregatik? Ez. Demokratik? Ezta ere. Demokratik izateko beste arrazoi bat izan beharko dute: euren ideiak demokratikoak izatea, Hitlerrenak ez bezalakoak. Edozein mugimendu politiko nazismoarekin konparatzeko ez du balio bozak irabazi izana erabiltzeak, pentsaera, ideologia eta portaerak konparatzeak baizik.

Nazia deitzeko ohitura dute batzuek. Zenbaitetan erraztu egiten zaie lana, gainera: kartzelazain bat —barkatu, espetxeetako funtzionario bat— bahitu eta hezurretan uzten dutenean. Edo Donostiako liburu denda bati erasotzen diotenean. Biharamunean, egunkari unionista batek askatu berriaren argazkiak argitaratuko ditu, eta aldamenean Auschwitzeko preso baten argazkia jarriko du. Edo SS alemaniarrek Berlinen txikitutako liburu denden irudiak. Aldiz, estatu bateko segurtasun indarrek inor bahitu, torturatu eta kare bizian lurperatzen dutenean edo presidente batek nazioarteko erakundeen gomendioei barre egin eta tortura ukatzen duenean, ez da ezer gertatuko. Ez dute paralelismorik egingo nazismoarekin.

Behin Berlingo kale merkatu batera joan nintzen lagun batekin, fruta erosteko asmoz. Meloi bat hartu nuen esku artean. Erdaraz ari ginela ohartu ahala, saltzailea guregana bueltatu zen, eta meloia kendu zidan. «Alde hemendik, gure familia kanporatu baitzenuen Espainiatik», esan zuen, Erdi Aroko kutsua zuen espainolean. Judua zen, espainiarren intolerantzia erlijiosoak mende batzuk lehenago kanporatutako sefardien ondorengoa. Emakume hark ez zidan nazia deitu, nahiz juduen kontrako jazarpen haiek nazien geroko genozidioa oinarritzeko ere balioko zuten. Baina Alemanian, beste hainbat lekutan bezala, garesti ateratzen da inori besterik gabe nazia deitzea. Hala jokatzeari ez baita zuzena. Horregatik, hemen ere kontuz ibili beharko genuke hitzak aukeratzeko garaian. Cospedal, Aguirre edo Basagoitiri naziak deitu? Inoiz ez, euren alderdi politikoaren genesian nazismoarekin loturak izan zituen erregimenaren ordezkari politikoak egon ziren arren.

# Ricardoren gerra

2013ko maiatzak 18

Gure herrian bazen gizon bat, Ricardo zeritzona. Ricardo handia zen, umoretsua, sudur-luze eta masail-gorria. Begi bizi maltzurak zituen. Futbola gustatzen zitzaion. Eta txistek kontatzea. Txistek berdeak ziren batzuetan, eta auzoko mutikoek gustura entzuten genituen, bekatuaren suan erretzeko beldurrik gabe. Noizean behin, txistek ahaztu eta gerrari buruz hitz egiten zuen. Begiak piztu egiten zitzaizkion orduan.

Gerra gogoratu dute PPK eta Guardia Zibilak, horiek ere begiak piztuta, azken egunotan. Izan ere, Espainiako Gobernuak Katalunian duen ordezkariak, Maria de los Llanos de Lunak, diploma bat eman zion joan den larunbatean Division Azuleko Borrokalarien Ermandadeari. Diploma, nolabaiteko esker ona, Guardia Zibilak Sant Andreu de la Barca herrian duen kuartelean entregatu zioten alkandora urdindunen elkarteari. Ekitaldian, Benemerita-ren sorreraren 169. urteurrena ospatu zen.

Bartzelonako egintzak Alderdi Popularraren jokoak agertu du. Batetik, nazi hitza erabiltzen du bere politiken kontra egiten duten mugimendu sozialak iraintzeko; bestetik, omendu egiten ditu naziekin batera borrokatu zirenak, benetako faxistak, benetako naziak. Division Azul-eko kideak, alegia. Frankismoaren heroiak, Hitlerren defendatzaile sutuak. Division Azul hori 45.000 inguru boluntariok osatutako unitate militar espainiarra zen. Francok Hitlerri emandako oparia, Kondor Legioak gerran eskainitako laguntza eskertzeko —Kondor Legioak bonbardatu zuen Gernika, eta hori ere eskertu behar zen—. Unitate horretako buruak falangistak ziren. Alemaniara heltzean, Hitlerri leialtasuna izateko zin egiten zuten —hietetako batzuek, gutxi, führer-ari eskua emateko ohorea izaten zuten—. Zeremonian esaldi hau errepikatzen zen beti: Jainkoaren aurrean eta zuen ohore espainiarraren izenean, zin egiten duzue erabateko obedientzia izango diozuela Alemaniako Armadako buru Adolf Hitlerri...? Gero, ekialdeko frontera joaten ziren, Wehrmacht naziaren aginduetara deabru komunistaren kontra borrokatzeko lurralde errusiarretan.

PPK eta Ciudadansek ez beste alderdi guztiek De los Llanos anderea kritikatu dute. Guardia

Zibilak normaltzat jo du ekitaldia, baina. Espainiako Errepublikako hegazkinlariak ere omendu dituztela gogorarazi du, lasai asko. Eta hortxe dago koska. Zenbait kasutan, biktima guztiak ez direla berdinak esaten ari zaigu, biktimak eta borreroak ez elkartzeko, eta abar. Baina Guardia Zibilak berdintzat jotzen ditu nazismoaren munstroa sortu zuenaren alde hiltzeko prest egon zirenak eta Espainiako legalitate errepublikanoa defendatu zutenak.

Orain hobeto ulertzen da zergatik nahi duten naziak omentzen dituzten horiek ETA behin betiko desagertzea, armak entregatzeaz gain. IRAk borrokalari ohien elkarte moduan iraun lezake, nonbait, Irlandan. ETAk berdin egitea saihesti nahi dute hemen. Agian beldur dira etorkizunean Euskal Herriko agintari batek diploma bat emango ote dion ETako borrokalari ohien elkarteari Ertzaintzaren komisaria batean, euskal poliziaren sorreraren ez dakit zenbatgarren urtemugan. Ez dute zertan kezkatu. Halakorik gertatu eta inor kexatuko balitz, Ertzaintzak beti esan ahal izango luke Guardia Zibileko kideak ere omendu zituztela, noizbait, komisarian. Banako berdinketa, beraz.

Ricardok 50 urte inguru zituen. Dotore janzten zen, eta asteburuetan Bilbora joaten zen. Mihi-gaiztoek esaten zuten putetxeak bisitatzen zituela. Beste batzuek, gizonak gustatzen zitzaizkiola. Gurekin oso atsegina izaten zen beti. Behin, gerrari buruz ari zela, zerbait erakutsiko zigula esan zigun. Etxera joan, eta eskuan gutun-azal bat zuela itzuli zen. Barrutik zuri-beltzezko argazki bat atera zuen. Argazkian soldadu ilara bat ageri zen. Bera nor zen seinalatu zuen atzamarraz. Begiak piztu zitzaizkion. «Munichen da. Führer-ak eskua eman zidan egunean».



# Komuneko papera

2013ko maiatzak 25

Colhogar, Suavel, Maypro, Scottex... Gipuzkoako dendetan komuneko papera dago. Oraindik ez da bete Bizkaiko diputatu nagusiaren abisua —edo desio edo begizkoa, auskalo—, baina batek daki. Hala ere, iradokitze hutsak antzinako urteetara eraman du bat baino gehiago: El elefante markaren ukitu latza gure atzealde samurrean; egunkariak larrialdi egoeran komunetan betetzen zuten funtzio soziala; arboletako hostoen freskotasuna...

Jose Luis Bilbaoren iruzkin eskatologikoa gustu txarrekoa da, eta mespretxua adierazten du. EH Bildu Gipuzkoan egiten ari den lana gutxietsi nahi du. Higadura politikoa eragitea du helburu. Azken batean, boterea dago jokoan, botere hori kudeatuz erakundeetatik sustatuko den gizarte eredia. Krisiari aurre egiteko modua. Horretarako ari dira hizketan EAEko hiru diputazioak, Jaurlaritza eta alderdi politikoak. Bakoitzak bere ikuspuntua defendatzen du arlo horretan. Politika fiskalak ezadostasun handiak sortu ditu. Esaterako, iruzurrari nola egin aurre. Garitanok, ez soilik berak, eredia aldatu nahi du. Izan ere, XXI. mendean gaude eta Euskal Herritik kanpo ia gertaezina dena egingarria da hemen, iruzurraren kontrako borroka bateraturik ez baitago, ez irizpidez ez baliabidez: Ermuko herritar bat, helbide fiskala Bizkaian duena, hiru pisu duplexen jabe izatea Eibarren, eta alokatzea... bildutako diru hori Bizkaian aitortu gabe. Hala da, salbuespenezko kasu bakanak alde batera utzita. Aholkulari fiskal bat ezagutzen dut Bilbon, hauxe esaten diena Gipuzkoan edo Araban ondasunak dituzten bezeroei: «Ez aitortu, datuak ez dira gurutzatzen eta». Zergatik? Orain arte ez delako benetako borondaterik izan hori gerta dadin.

Gipuzkoan gizarte eredu venezuelarra bultzatzen ari dira, EAJren ustez. Noski, jeltzaleek eredu horren hutsak edo gabeziak dituzte gogoan Bilduren jardura kritikatzeko. Pobreziaren aurka egiten den lana, Venezuelan edo Gipuzkoan, ez dute aipatzen. Errealitatea puze segituz gero, hauxe galde liteke: Gipuzkoan arlo sozialean Venezuelako eredia ezartzen ari badira, zer politika bultzatzen ari dira Bizkaian eta Araban, zerga gardentasunaren arloan, kanpoan lortutako diruarekin? Paradisu fiskaletako tax free eredia ahalbidetzearena? Garitanori Permach komandanteak ematen badizkio ordenak, nork ematen dizkio ordenak Bilbaori?

Kaiman uharteetako lehen ministroak, Juliana O'Connor-Connolly andereak?

De Andres jaunak galdetu du zertarako nahi dituen Garitanok Arabako herritarren datu fiskalak. Erantzun erraza du Arabako diputatu nagusiak: hark berak Gipuzkoako herritarren datu fiskalak eskuratzeko izan beharko lukeen arrazoi beragatik: gardentasun handiagoa izateko eta iruzurrari hobeto aurre egiteko. Aste honetan Europako Batasunak adierazi du saiatu egingo dela urte amaierarako estatu guztiek aukera izan dezaten datu fiskalak trukatzeko. Beharbada errazagoa izango da Finlandiak eta Portugalek elkarri datuak pasatzea Bizkaiak eta Gipuzkoak horiek trukatzeko baino. Bitxia gero.

Lege zaharretan oinarritutako egiturak, eskuduntzak eta funtzionamenduak ondo egongo ziren Erdi Aroko errealitatea kudeatzeko, baina globalizazioaren garaian egokiak ez badira, aldatu egin behar dira. EAeko hiru ogasunak denbora errealean elkarrekin konektatzeko aukeraz hitz egiten ari da orain. Lorpen itzela! Lehenago ezin zen ala? Kriaren presioa sentitu behar izan dute gure agintariek beste edozein herrialdetan normala dena egiteko?

Gipuzkoan komuneko paperik ez. Krisia. Bertako agintari chavistek kontsumoa murriztuko dute: hilean komuneko papereko ale bat pertsona bakoitzeko. Hondamendia. Bizkaian baten batek negozioa izango du buruan: Ondarroatik Mutrikura edo Elorriotik Arrasatera merkantzia eramatea, merkatu beltzean saltzeko. Estraperloan. Gero, Gipuzkoa bolivartarrean lortutako dirua Bizkai kaimandarrera eramateko. Tax free.

# Gere eta Isabella

2013ko ekainak 1

Euskal emakumeek asko hitz egiten dute, baina zentzuz. Halaxe azaldu zuen Marcelo Bielsak herenegun, prentsaurreko batean: «Egun batean andreak esan zidan euskalduna izan nahiko zuela, euskal emakumeek ez baitute ezer esaten behar ez bezala. Asko hitz egiten dute, baina beharrezkoa esaten dute». Athleticeko entrenatzaileak askoren iritzia berretsi zuen: euskaldunok neurritz hitz egiten dute, ez dute behar baino gehiago esaten.

Euskaldunok urriak omen gara hitzetan. Horixe da gure estereotipoaren ezaugarrietako bat. Emakumeek, gainera, ez dute behar baino hitz gehiagorik egiten. Ez dira aho handiak, alegia. Ahokadak, normalean, gizonezkoen kontuak dira. Euskaldunon irudiaren inguruan hainbat klixek bildu dira historian zehar. Beste klixek bat hauxe da: izaera abenturazalea, menderakaitza, erreboltarako prest dagoena. Idealista. Literaturan Pio Baroja edo Marc Legasseren pertsonaiak ditugu. Zineman ere ez da adibiderik falta. Euskaldunak legearen ertzetan daude sarri. Erreboltariak dira, outsider-ak ia-ia.

Adibide bat *Vamos a matar, compañeros* filmean ageri da —italiarra izan arren, pelikulak izen hori du jatorrizko bertsioan—. XX. mendearen hasieran gaude. Mexikoko Iraultzaren garaian el vasco izeneko gerrillaria gailentzen da —Tomas Milian aktorea—. El vasco-k erreboltari ekiten dio eta armadako koronel bat hiltzen du. Protagonistak txapela janzten du beti, eta harro dago bere jatorriaz: «Soy Modesto Servando Iruretagoyena, llamado el vasco». El vasco aho handia da, xelebre xamarra, baina bihotz onekoa. Erromantikoa. Filmaren bukaeran hauxe diotso harekin batera borrokatu den lagunari, iraultzarekin bat egin dezan: «Gera zaitetz hemen, lagun! Ohartuko zara idealak badituzu, irabaz daitekeela». Basatia eta idealista.

Hogeita hamar urte geroago, beste pertsonaia bat azaltzen da European. *The Passage* filma Frantzia girotua da, nazien okupazioa bitartean. Anthony Quinn euskal artzain baten rola jokatzen du. Artzain horrek erresistentzia frantsesarekin lan egiten du, eta zientzialari bat —James Mason— eraman behar du beste aldera —Hegoaldera, alegia—. Halako batean, emakume gazte batek halaxe esan dio Quinn artzainari: «Gauza izugarriak esaten dituzte

euskaldunei buruz. Egiazkoak dira?». «Bai». Neskak galdezka segitu du, begiak zabal-zabalik: «Baina esaten duten bezain gaiztoak dira». «Are okerragoak», erantzun dio Quinnek, zirkinik egin gabe. Filmak Iparraldeko euskaldun bat du protagonista, eta 40eko hamarkadaren hasieran garatzen da. Pelikula ikusi eta galdera etortzen zaizu burua: pilotari trebeak izan eta Ezpeletako axoa jan eta ardoa gustura edateaz gain, zer egiten zuten Iparraldeko euskaldunek orduan, hain beldurgarriak izateko? Ezin da esan Quinn artzaina garai haietan IK-ko kidea zenik, edo Euskal Lurralde Elkargoa defendatzen zuenik. II. Mundu Gerran zebilen, askatasunaren aldeko borrokan laguntzen, otso bakarti baten moduan Pirinioetan gora eta behera. Beldurgarria eta idealista.

Emakumeak ez daude estereotipo horretatik kanpo. Hitzetan zuhurrak, baina ekintzetan izugarriak. 1997. urtea. The Jackal filmean Richard Gere IRAko kide ohia da, Bruce Willis gaizkilearen kontra egin behar duena. Pelikulako eszena batean Gerek neska-lagun ohia bisitatzen du, ETAko kidea izandakoa. Isabellak —nekez sinesten da 60ko edo 70eko hamarkadan jaiotako ETAko emakume batek izen hori izango zuenik, baina tira— iragan bortitza du. Neska erretiratua dago, bizitza normal bat egiten ari da. IRAko eta ETAko kide ohiak elkartzen direnean, iraganeko amodioaren nostalgia ageri da. Biak humano azaltzen dira. Espainiako kritikak ez zuen oso gustura hartu ikusmolde hori. Gainera, Isabellari ETAko ekintzailea deitzen zaio, ez terrorista. Gereren hitzetan, borrokalari politiko ageri da Isabella, Bruce Willis Jackal ez bezala. Humanoa eta idealista.

# Gosaria diamanteekin

2013ko ekainak 8

Diamante eta bitxien salmentak gora egin du zinema aretoetan The Great Gatsbyfilma ikusgai dagoenetik. Horixe adierazi du Tiffany etxeak urteko lehen lauhilekoaren balantzea egitean: 2012arekin alderatuta, salmentak %9 igo dira, eta etekin garbiak, %3. Luxuzko bitxiak saltzen dituen enpresako presidente Michael J. Kowalskiren ahotik diamanteen dirdira irten da datuak irribarretsu azaldu dituenean: «Espero baino gehiago saldu dugu. Irabaziek gora egitea ere lortu dugu (...) Horretaz gain, Gatsby handia filmaren promozio ekitaldietan hartu dugu parte, pelikulako bitxiak diseinatu baititugu».

Tiffanyrena ez da arrakasta ekonomiko bakarra izan. Leonardo DiCapriok antzeztutako filmaren zipriztinek beste arlo batzuk ere arrosatu dituzte. Brooks Brothers-eko jostunek filmeko aktoreak jantzi dituzte. Fogal etxeak, aldiz, emakumezkoen gorputzak estali ditu lingerie eta galtzerdi erakargarriekin. Bide batez, Gatsby galtzerdiak merkaturatu ditu. Just in case... Moët et Chandon xanpain ekoizleak ere negozioa egin du, The Independent egunkariak zehaztu duenez. Jakin zuten Hollywooden, bai, Moët dela AEBetara xanpaina esportatzen duten etxe bakarretako bat. Mahats-bilketa onena identifikatu zuten —1921. urtekoa—, enpresari deitu, eta hark botilak bidali zizkien.

Bistakoa da ikus-entzunezkoaren eragina gure gustu eta joeretan. Adibide bat: diamanteak oparitzeko ohitura filmen bidez hedatu zen. Joan den mendeko laugarren hamarkada hasi baino lehen emakumeek ez zuten diamanterik ezkontza-eraztunetan. De Beers diamante enpresa hegoafrikarrak dirutza eman zien Hollywoodeko estudioei filmetako andre ezkonberrien eraztunetan harribitxia jartzeko. Apeta hori munduko aberatsenen buruan sartu zen. Gero, beste gizajook ere irentsi genuen amua.

Oraindik ezin jakin Gatsby efektua Euskal Herrian garatu ote den; Donostian ohi baino diamante gehiago saldu duten, Bilbon Moët gehiago edan duten, ezta zenbat gizonzok erosi duten traje arrosa bat Miarritzeko boutiqueetan ere. Oraindik ezin jakin efektu horrek nola eragingo zigun, Scott Fitzgerald dek mende hasieran Kaliforniara joaniko euskal artzain futbolzale

bat sartu balu bere nobelan. Filma garai berrietara egokitu, eta Leonardo DiCaprio, haren lagunak eta haien bitxiak ekarri ahalko zituen Baz Luhrmann zuzendariak San Mames zaharrera. Bide bat izango zen Gatsby efektuak enpresa pribatuen dirua erakartzeko. De Beers diamante etxearen ikurra eta dirua Athleticen sartzeko. Naturaren eta giza eskubideen kontra jarduten duen enpresa da De Beers, batez ere Afrikan, baina ez dio ardura. Zer egiten du, ba, gure Petronor maitagarriak ingurumen arloan hemen, eta Repsol espainiarrak —Petronorren jabea da— Hego Amerikako eskualde indigenetan eta Teodoro Obiangen etxaldean, Ekuatore Ginean? Negozioa, business. Futbol talde batek kamisetan Amnesty Internationalen irudia musu-truk eramaten duen egunean hasiko naiz kirol profesionalaren benetako altruismo eta elkartasunaz sinesten.

Ongi etorri, Gatsby; ongi etorri, De Beers! Garaiz gaude epe luzeari begira lanean hasteko. 100 urte barru San Mames Barri-Barria eraikitzeke unean hainbeste diru publikorik ez erabiltzeko —Espainia autonomikoan segitzen badugu, Eusko Jaurlaritzak sosik ez emateko behintzat, EAeko herritar guztiona izango da eta—. Eskatu dezala De Beersek orduan atletismo pista egiteko estadioan, baita hura diamante dirdiratsuen irudiez apaintzeko ere. Eta inaugurazio ekitaldian pista erabiltzea exijitzen badu, eta Hegoafrikako atleta bat ekarri nahi badu, ekar dezala. Lasai, Pistorius ez da etorriko eta.

Bitartean, segi dezala Gatsby handiak gogoratzen Daisy lehenengoz musukatu zuen eguna. Izan ere, inork ez du ahazten bere lehen musua. Leonardo DiCapriok ere ez: «Nire lehen musua bizitzako gauzarik nazkagarriena izan zen. Neskak libra bat listu sartu zidan ahoan, eta harengandik urruntzean dena bota behar izan nuen».

# Azken metroa

2013ko ekainak 15

Laurogeiko hamarkadan bazegoen ohitura bat Bilboko ezker aldean: Labe Garaiak, La Naval, Babcock & Wilcox eta antzeko enpresa handietako langileak fabriken ondoko tabernetan batzen ziren, goizeko seietako txandan sartu aurretik, lehen pattarra edan eta bertan ematen zituzten pelikula pornoak ikusteko. Gaupasa egiten ari ziren gazteek ere hara jotzen zuten mozkortzen segitu, pornoa ikusi eta, *last but not least*, film horiei begira zeuden langile goiztiarren kontura barre egiteko. Hantxe biltzen ziren bi edo hiru belaunaldi batera, nor bere erara alienatuta.

Orduan Bilbon ez zegoen metrorik. Trenak —eta autobusak— zeharkatzen zituen ezker aldeko herriak, eskuinaldekoekin zuzenean inoiz lotu barik. Bi mundu, bi bide. Denbora luzea pasatu da geroztik. Metroa heltzarekin batera nabarmen hobetu zen garraio publikoa. Gaur, metro hori dugu Bilbon azken hamarkadetan izaniko aldaketaren ikurretako bat. Horixe nabarmenduko zuten Bizkaiko hiriburuan aste honetan elkartu diren alkateek.

Garraio publikoak mugikortasuna erraztu behar du eta autoen erabilera murrizten lagundu. Hala ere, beti pentsatu dut Bilboko metroa bulegarientzako garraiobidea dela. Orduetegi begiratu besterik ez dago. Metroa ezin hobea da Bilbo erdian lanean zortzietan hasten den jendearentzat. Zer egin behar dute, ordea, periferian goizeko seietatik aurrera jarduten dutenek? Metroa ahaztu, astegunetan goizeko seietan hasten baita ibiltzen. Trena hartzea da irtenbide bakarra. Santurtzitik Basaurira lanera joan behar duena ozta-ozta helduko da lantokira. Plentziako herritar batek, aldiz, ezin du goizeko txandan lan egin Basaurin, autorik ez badu. Ez du trenik. Metroa bai, baina zerbitzurik ez garaiz ailegatzeko.

Bilbo hain handia ez dela esango dute, ezin dela Paris edo Madrilekin konparatu. Egia da, baina Bilbo handiko zenbait eremutan hobeto funtzionatzen dute zerbitzu publikoek. Hori ere egia da. Baita Bilbo aldeak baino herritar gutxiago biltzen dituztenetan ere. Nurenberg-ek eta Fuerth-ek Bilbo handiak baino 100.000 lagun gutxiago dituzte elkarrekin. Hala ere, Bavariako bi hiriak biltzen dituen metroak garraiobidea eskaintzen dio goizean goiz lanera doanari,

Bilbokoak ez bezala. Metroko lehen zerbitzua 04:37an hasten da bertan. Zerbitzua goizaldeko ordu batean ixten da. 650.000 herritarrek eskubidea dute Nurenberg handiko mutur batetik bestera joateko garraio publikoan, hiru ordu pasatxoko tartean izan ezik. Lehen zerbitzuetan apenas doan jenderik, baina beharra duenak eskura du metroa. Bilbo handiko 750.000 lagunek, aldiz, zazpi orduko etena dute metrorik gabe astegunetan, hamaikak aldean irteten baita azken trena.

Zerbitzu publikoak ez dira soilik errentagarritasunaren arabera neurtu behar. Goizean goiz, jende gutxi; beraz, zerbitzurik ez. Asteburuetan, ordea, gau osoan garraioa, herritarrek lehertu arte edateko aukera izan dezaten. Ez naiz hori kritikatzeko ari. Festa-infusioak aho, sudur edo zainetatik sartzen dituztenek edo new age fruitu zuku naturalak edaten dituztenek eskubidea dute etxera auto istripurik izan gabe bueltatzeko. Baina Plentziako herritar bati laguntzen bazaio larunbat gauean Basauriko kuadrilla edo bikotekidearekin egon dadin, zergatik ez lagundu asteleheneko lehen orduetan herri horretara joan behar badu lanera?

Goizeko bostetan etxera *hinkata bragetaraino* itzultzen direnek eta lanera txintxo-txintxo doazenek eskubide berdinak izan beharko lituzkete, asteburuetan zein astegunetan, metroa erabiltzeko. Segurtasun arrazoiak direla eta, enpresak ez baditu nahasi nahi, jarri ditzala bagoi desberdinetan. Haatik, hori gizaterian konfiantzarik ez izatea da, eta belaunaldien arteko komunikazioa oztopatzea: bi taldeak elkarrekin jarriz gero, Barakaldora iristerako lagunak izango dira. Eta Sestaora heltzean batera aterako dira metrotik, kantuz, inguruko taberna batean Roccoren azken marruak entzuteko.



# Larunbat arratsaldea

2013ko ekainak 22

Texasko gazte batek ezin du eskolara joan. Galarazia du. Lyndon Batyk oso ahul du immunitate-sistema eta, ondorioz, germenak erraz bereganatzeko joera du. Kutsagarria izateko arrisku itzela. Hori dela eta, Knox Cityko mutilak ordezkaria bidaltzen du egunero ikastetxera: Baty-Bot robota. Lydonek robotaren bidez hartzen ditu eskolak. Haren mugimenduak etxeko ordenagailutik zuzentzen ditu. Gazteak zerbait esan nahi duenean, ordenagailuko tekla bat zapaldu eta argia pizten zaio ikasgelan dagoen robotari, irakaslea ohar dadin. Gero, robotarekin komunikatzen jarraitzen du, hitz egiteko.

Lotfi A. Zadeh ingeniariak ordenagailuen adimena lantzen jardun du bizi osoan. Makinek gizakien komunikazioa hobe dezaten lan egiten du logika zehaztugabea deitutakoaren aitak. Zadehek 92 urte ditu, eta lanean segitzen du Kalifornian, Berkeleyko unibertsitatean. Zientzialaria Sobiet Batasun ohian jaio zen; txikitán Iranera alde egin zuen etxekoekin, eta 40ko urteetan, AEBetara. «Sobiet Batasunean heroiak ingeniariak, matematikariak eta zientzialariak ziren; Iranen kulturak garrantzi handia zuen: pertsona ospetsuen artean poetak ziren nabarmenenak, ez milioi asko zituztenak», adierazi dio La Vanguardiaegunkariari. «Gaur, dirua irabazten arrakastarik ez baduzu, ez zaituzte babesten. Ni AEBetan hasi nintzen garaietan pentsaera hori ez zegoen hain hedatuta».

Zadehen arabera, aurrerakuntzak ondorio kontrajarriak ekarri ditu: medikuari pantaila baten bidez zu sendatzeko modua eskaintzen dion informazio-teknologiak bizitzaren gaineko kontrol prozesua ekarri du: «Informazioaren iraultzak gauza onak ditu, baina txarrak ere bai. Eredu asko suntsitzen ari da». Nima Yushij poeta irandarrak (1896-1960) egoera hau iragartzen zuten hitzak idatzi zituen Nire etxea hodeitsua da poeman: «Eguzkiaren aurrean paratzen naiz / itsasoaren gainean botatzen dut begirada / haizeak hondatua eta suntsitua du mundu osoa».

Zientziak giza komunikazioa hobetu du. Gizakiaren zenbait funtzio ere ordezkatzeko dituzte teknologiak. Horra Baty-Bot robota, Lyndon Baty ordezkatzeko. Teknologia diru iturria ere bada: Double Robotics enpresa Skype-roboten hurrengo belaunaldia garatzen ari da. Ez gara horraino

iritsi, baina denbora kontua izango da: egun batean elkar ikusi ezin duten bikotekide ohiek robot bana bidaliko dute epaitegira, dibortzio paperak sinatzeko. Lyndon gazteak Baty-Botrobota bidaltzen badu ikaskideak ez kutsatzeko, posible izango da emakume edo gizon bat metalezko ordezkariak baliatzea lehengo maitearen begien gorrotoak ultzera areago ez diezaion. Etorkizunean makinek gizakiak ordezkatzeko dituzte bileretan, Baty-Bot-ek Lyndon ordezkatzeko duen bezala. Orain bide erdian gaude. Nazioarteko Diru Funtzaren bileretara haragizko robotak joaten dira. Hotz eta zorrotz jokatzeko dute, krudelkeriaz. Zer ez zaigun etorriko bilera horietan Christine Lagarde andrearen altzairuzko robota azaltzen den egunean.

Beti izan dira ordezkatzekoak, baita iruzurrak ere, baina lehen humanoagoak ziren. Haragizkoak. Txikitako arratsalde batean istorio bitxia entzun nuen irratan. Neska batek mutila ezagutu zuen asteburuan. Harekin gustatu, eta hurrengo larunbaterako lotu zen. Bezperan gaixotu egin zen, baina. Ahizpa bikiari bere ordezkari joateko eskatu zion orduan, mutila galduko ote zuen beldurrez edo. Bikiak izanik, hark ez zuen ezer igarriko (ustezko) bigarren hitzorduan. Handik bi hilabetera irrati programara idatzi zuen ordezkariak, aholku eske. Izan ere, hitzordu hartan berari ere gustatu zitzaion mutila, baina gero ahizpak segitu zuen harekin. Bera sufritzen ari zen, larunbat arratsalde hartatik morroiaz maiteminduta baitzegoen. Maiteminduta eta haurdun.

Suntsitua da mundua, baina haren amaiera ez du apokalipsiaren laugarren zaldizkoak ekarriko. Robotek bihotzez, ez buruz, poesia idazten ikasiko duten egunean bukatuko da mundua.

# 'Terroristaren' apologia

2013ko ekainak 29

Nelson Mandela itzaltzen ari da. Hegoafrikako presidente ohia larri dago Pretoriako erietxe batean. Madiba badoa. Ezusteko aldaketak tarte baterako susperraldia ekar lezakeen arren, logika latzak agintzen du: 94 urteko gizona bidearen amaieran dago. Mandela hiltzen denean haren ibilbidea goretsiko dute mundu osoko agintari, politikari eta iritzi-emaileek. Denak ados. Charles Fombruni, Erreputazioaren Institutuaren sortzaileari, hauxe galdetu diote aste honetan elkarrizketa batean: nork du munduko erreputazio onena? Erantzuna: Mandelak.

Mandela bakarra erakutsi digute. Beste alde bat ezkututzen saiatu dira: borroka armatua azken erremedio moduan defendatu zuena. Inork esango ote du Mandela terrorista izan zela eta inoiz ez zela horretaz damutu? Areago: inork azalduko ote du diktadura arrazistaren kontrako borroka armatuan zibilak hiltzea, desio ez arren, ordaindu beharreko prezioa zela, haren ustez? Haren biktimen gorpu odoltsuak erakutsiko dizkigute? Hona hemen Mandelak Long Walk to Freedom liburuko biografikoan (Londres, Abacus, 1995) zer idatzi zuen, MK (Umkhonto we Sizwe, Nazioaren Lantza) erakunde armatuaren lehen bonba-autoak eragindako sarraskiari buruz. Atentatua informazio zerbitzuen kontra izan zen, Pretoria erdian. Hemeretzi zibil hil ziren, eta 200 baino gehiago zauritu: «Zibilak hiltzea istripu tragikoa izan zen eta heriotza kopuru hark oso hunkitu ninduen. Baina, hildako horiek asaldatzen ninduten arren, banekien istripu horiek borroka armatuari ekin izanaren ondorio saihestezina zirela. Giza hutseginkortasuna gerraren alde bat da eta horren prezioa altua da beti».

Adierazpenak kartzelatik irten eta gero egin zituen Mandelak, hotzean. «Istripu tragikoa». «Gerraren prezio altua». Hemen kartzelara itzularazteko arrazoia izango zen hori. Hiltzaile ziniko nazkagarria deituko zioten, beste batzuei bezala. Baina hori guztia ahaztu egingo dute gure pentsalari bakezaleek Mandela goratzen dutenean. MK erakundeak 200 lagundik gora hil zituen, horietako asko zibilak. MK Nelson Mandelak sortu zuen: «Borrokaren natura zapaltzaileak definitzen duela ikasten du askatasunaren aldeko borrokalariak. Zenbaitetan, suari suaren bidez baizik ezin diozu erantzun».

Bai, Mandelak armak utzi zituen, baina ez zioten damutzeko eskatu. Bai, Hegoafrika eta Euskal Herria eta Espainia bi errealitate dira, baina dilema etikoa hor dago. Egunotan ikusi dugu Espainiaren zuzenbide estatua delako hori nolakoa den: Guillem Agullo 18 urteko ezkertiarra labankadaz hil zuten gazte faxistek 1993an, Valentzian, nazirik ez zioen besokoa zeramalako soinean. Hiltzaileek Cara al Sol ereserkia kantatu zuten eraso eta gero. Horietako bat zigortu zuten, Pedro Cuevas: 14 urteko kartzela. Lau urte besterik ez zuen bete. Kartzelatik irten ondoren Alianza Nacional eskuin-muturreko alderdiaren hautagaia izan da Cuevas. Agullo hil eta 20 urtera, Juan Gómez Monterok, Plataforma per Catalunya alderdi xenofoboak Santa Coloma de Grameneten (Bartzelonan) duen zinegotziak, hauxe esan zuen duela hiru aste: «Agullo putaseme bat zen, eta oraintxe bertan dagoen lekuan oso ondo dago». Fiskaltzaren hitzik ez. Lucia Etxebarria idazlearen erantzuna bere blogean: «Bihar esaten badut ETaren biktima bat putakumea zela eta dagoen lekuan ondo dagoela, ez dut ulertzen zergatik lepora diezadaketen terrorismoaren apologia egitea, eta gizon hau inork ez salatzea». Etxebarriak adierazi duenez, ETak bere osaba bahitu zuen. Familia mehatxatuta egon da.

Zer gertatuko litzateke baten batek ozenki esango balu Carrero Blanco eta beste batzuk putakume itzelak zirela eta hiltzea merezi zutela? Militante antifaxista batek Juan Gomez Montero hilko balu haren pentsaera faxista, arrazista eta kriminalagatik, zilegi izango litzateke esatea Santa Colomako zinegotzia putaseme galanta zela eta dagoen lekuan ondo dagoela? Zer dio Espainiako Estatuko Fiskaltza Nagusiak horretaz?